

BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3612

AGINDUA, 2026ko ekainaren 9koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez laguntzen oinarri arautzaileak onartzen baitira eta 2026ko ekitaldirako deialdia egiten baita, nekazaritzako, elikagaigintzako eta basogintzako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta garatzeko industrietarako, eta kalitate gastronomikoa hobetzeko inbertsioetarako (Lehiatu Inbertsioa programa).

2021eko abenduan, Europar Batasunak Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) programazio-aldi berria jarri zuen martxan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamendua argitaratu baitzuen; hain zuzen, estatu kideek Nekazaritza Politika Erkidearen esparruan (NPEaren plan estrategikoak) egin behar dituzten plan estrategikoetarako laguntzari buruzko arauak ezartzen ditu, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatuta.

Erregelamendu hori indarrean sartzearekin bat, NPEa hiru helburu nagusiekin lotutako emaitza zehatz batzuk lortzera bideratutako politika izatera pasa da: nekazaritza sektore adimentsua, lehiakorra, erresilientea eta dibertsifikatua sustatzea, elikagaien epe luzeko segurtasuna bermatuko duena; ingurumenaren babesa indartzea eta babestea, biodibertsitatea eta klimaren aldeko ekintza barne, eta Batasuneko ingurumen- eta klima-helburuak lortzen laguntzea, (bereziki Parisko Itunaren arabera hartutako konpromisoak) eta landa-inguruetako sare sozioekonomikoa indartzea.

Orientazio berri hori estatu kideen subsidiariorotasun handiagoaren gainean egituratzen da; izan ere, estatuek diseinatu beharko dituzte, egoera eta premia espezifikoetan oinarrituz, beren esku-hartze propioak.

2021/2115 Erregelamenduari erantzuteko, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategiko Nazionala egin zuen Espainiak 2023-2027 aldirako (aurrerantzean, NPEPE), eta haren azken helburua da nekazaritzaren, elikagaien eta landa-eremuen garapen jasangarria, gizartearen elikagai-segurtasuna bermatzeko, sektore lehiakor baten eta landa-eremu bizi baten bidez. Plan estrategiko hori 2022ko abuztuaren 31n onartu zuen Europako Batzordeak, C (2022) 6017 Erabakiaren bidez, eta, ondoren, hiru aldiz aldatu zuen C(2023) 5746, C(2024) 6133, C(2025)5713 eta C(2025) 8557 Erabakien bidez.

NPEPEan jasotako esku-hartze guztiak abian jartzeko eta kudeatzeko, arau-pakete zabal bat egin zen Estatuan. Arau sorta horretan, hauek daude: 1047/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruko esku-hartzeak eta beste laguntza batzuk kudeatzeko eta kontrolatzeko sistema arautzen duena; 1048/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, 2023tik aurrera NPEPEaren esparruan zuzeneko ordainketen esku-hartzeak aplikatzeari eta betekizun komunak ezartzeari buruzkoa eta kudeaketa- eta kontrol-sistema integratuaren eskabide bakarra arautzeari buruzkoa, eta 147/2023 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, NPEPEan jasotako esku-hartzeetan zigorrak aplikatzeko arauak ezartzen dituen.

NPBPEan jasotako laguntzako esku-hartze guztiak, bai lehen oinarriaren esparruan programatutakoak (zuzeneko eta sektoreko laguntzak, NBEF funtsak finantzatutakoak), bai bigarren zutabeko landa-garapenerako esku-hartzeak (LGENF funtsak batera finantzatuta), autonomia-erki-degoan inplementatzen eta garatzen dira, kasu bakoitzean ezarri diren eskualde-berezitasunekin

eta autonomia-erkidego bakoitzak lurraldean programatu dituen esku-hartzeen eta aurrekontuen arabera.

EAEren kasuan, zuzeneko ordainketa gisako esku-hartzeek eta NBEFren esku-hartze sektorialekin gain, landa-garapeneko 18 esku-hartze programatu dira guztira (LGENF), eta dekretu hau da arau-esparrua: Euskal Autonomia Erkidegoan, Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoa ezartzeko eta landa-eremuen karakterizazioa finkatzeko den maiatzaren 28ko 66/2024 Dekretua.

Programatutako esku-hartzeen artean, nekazaritza-produktuen eraldaketa, merkaturatze edo garapeneko inbertsioei eta baso-inbertsio produktiboei buruzkoak daude, eta agindu honen II. eta III. kapituluetan arautzen dira.

Bestalde, landa-garapeneko politikaren arabera, bateragarriak dira kofinantzatutako neurriak eta estatu-laguntzak. Hori bai, estatu-laguntzak muga eta kontrol jakin batzuen mende daude, bi politikak koherenteak izan daitezen elkarren artean eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107., 108. eta 109. artikuluek lehiakortasunaren alorrean xedatzen dituzten arauak hertsiki bete daitezen; bistan denez, artikuluko horiek landa-garapenari aplikatuko zaizkio.

Hala, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluek aplikatuz, nekazaritza- eta basogintza-sektoreetako eta landa-eremuetako zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituen Europako Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko 2022/2472 (EB) Erregelamenduari babespean, laguntza-lerro bat programatu da Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta elikagaigintza-industrietan elikagai ekologikoak eraldatzeko, merkaturatzeko eta garatzeko inbertsioak egiteko, eta beste laguntza-lerro bat aurreko kapituluetan sartzen ez diren elikagaiak lortzeko inbertsioak egiteko, salbu eta ardoa eta nagusiki arrantzako eta akuikulturako produktuetatik datozen lehengaiekin egindako produktu landuak, bai eta nekazaritzako azpiproduktuak balorizatzeke proiektuak egiteko laguntzak ere. Laguntza horiek IV. eta V. kapituluetan garatzen dira.

Bestalde, VI. kapituluak laguntzak Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduari atxikitzen zaizkio –Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluek de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa –.

Azkenik, EAEko elikagaien sektorea babestea eta indartzea 2024-2028ko Gobernu Programaren helburu instrumentaletako bat da, eta elikaduraren eta gastronomiaren balio-katearen balio erantsia handitzeko beharrean zehazten da, elikagaien ekosistemaren ikuskera integral batetik abiatuta. Elikagaigintzaren ikuspegi globala da, eta ekoizpen primarioarekin hasi eta elikagaiak kontsumitzeko eskuragarri jartzearekin amaitzen da eta elikadura-ekosistema segurua, jasangarria eta osasungarria bultzatu nahi du.

Horregatik eta eraginkortasun administratiboko estrategia dela, egokitzen jotzen da agindu honetan ere arautzea kalitate gastronomikoa sustatzeko laguntzak; horiek Jaurkitzearen eman ditu 2018tik eta, gastronomiaren eta elikaduraren sektorean estrategikotzat jotzen diren ekimen gastronomikoak diruz laguntzea dute helburu.

Laburbilduz, agindu honetan laguntza hauen deialdia egiten da:

– Nekazaritza-produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko edo garatzeko inbertsioetarako laguntzak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko (EB) 2021/2115 Erregelamenduan xedatutakoari jarraituz.

- Basogintzako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko edo garatzeko inbertsioetarako laguntzak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduan xedatutakoari jarraikiz.
- Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta elikagaigintza-industrietan, elikagai ekologikoak eraldatzeko, merkaturatzeko edo garatzeko inbertsioak egiteko laguntzak. Laguntza horiek Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko 2022/2472 (EE) Erregelamenduaren babespean daude, eta ezin izango zaizkie gehitu beste kapituluetakoei.
- Aurreko kapituluetan sartzen ez diren elikagaigintza-produktuak lortzeko inbertsioak egiteko laguntzak, salbu eta ardoa eta nagusiki arrantzako eta akuikulturako produktuetatik datozen lehengaiekin egindako produktu landuak, bai eta nekazaritzako azpiproduktuak balorizatzen proiektuak egiteko laguntzak ere. Laguntza horiek Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko 2022/2472 (EE) Erregelamenduaren babespean daude, eta ezin izango zaizkie gehitu beste kapituluetakoei.
- Kalitate gastronomikoa sustatzeko proiektuak egiteko laguntzak, proiektu gastronomiko berriak sustatzeari eta bikaintasun gastronomikoa sendotzeari lotuta. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen (EB) 2023/2831 Erregelamenduaren babespean daude.

Deitutako laguntzen xedeak guztiz bat datoz 2024-2028 Gobernu Programarekin eta Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzaren «Elikagaien industriari laguntzea» jarduketa-ardatzaren barruan sartzen dira. Ardatz horren helburua da EAEko elikagaigintza- eta basogintza-industriaren lehiakortasuna handitzea, eraldaketa- eta merkaturatze-kateetan balio erantsia sortzen duten hobekuntzen bidez, herritarren joera eta eskaera berriei erantzuteko: kalitatezko elikagaigintza-produktuak, balio erantsia sortzen dutenak eta ingurumenaren aldetik jasagarriak direnak.

Laguntza horiek Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren 2026-2028ko ekitaldietarako dirulaguntzen plan estrategikoan daude aurreikusita. Plan hori Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2026ko martxoaren 4ko Aginduaren bidez onartu zen. Plan hori Eusko Jaurlaritzaren webgunean dago argitaratuta («www.euskadi.eus»), sailari eskainitako eremuaren barruan eta «Planak eta proiektuak» sekzioan.

Deialdi honek aurrekontu-zuzkidura nahikoa du, Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 7/2025 Legeak baimendutako kredituen arabera.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikuluen arabera, Jaurlaritzako sailburuek, gobernuak gisa dagozkien eskumenei kalterik egin gabe, beren sailari dagozkion gaietan administrazio-xedapen orokorrak eta ebazpenak emateko eskudantzia izango dute. Horrenbestez, hauxe

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Oinarri arautzaileak eta deialdia.

Nekazaritzako, elikagaigintzako eta basogintzako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta garatzeko industrietarako eta, kalitate gastronomikoa hobetzeko inbertsioetarako laguntzen oinarri arautzaileak onartzea eta 2026ko ekitaldirako deialdia egitea (Lehiatu Inbertsioa programa); Eranskinean daude.

Azken xedapenetatik lehenengoa.— Errekurtsoak.

Interesdunek, agindu honen aurka, berraztertzeke errekurtsoa aurkez diezaiokete Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Azken xedapenetatik bigarrena.— Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 9a.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
AMAYA BARREDO MARTIN.

ERANSKINA

OINARRI ARAUTZAILEAK

I. KAPITULUA

ZATI OROKORRA

1. oinarria.– Xedea eta izaera.

1.– Nekazaritzako, elikagaigintzako eta basogintzako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta garatzeko eta, kalitate gastronomikoa hobetzeko laguntzen oinarri arautzaileak onartzea, eta 2026ko ekitaldirako deialdia egitea (Lehiatu Inbertsioa programa) da oinarri hauen xedea.

2.– Emango diren laguntzak ez dira itzuli beharrekoak izango.

2. oinarria.– Laguntza-ildoak.

Laguntza-ildo hauek ezarri dira:

1.– Tratatuaren I. eranskinak aipatzen dituen nekazaritza-produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko edo garatzeko inbertsioak egiteko laguntzak.

Laguntza hauek Lehiatu Nekazari izeneko II. kapitulan garatzen dira eta maiatzaren 28ko 66/2024 Dekretuak xedatutakoan sartzen dira (Euskal Autonomia Erkidegoan, Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoa ezartzeko eta landa-eremuen karakterizazioa finkatzeko dena).

2.– Basogintzako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko edo garatzeko inbertsioak egiteko laguntzak.

Laguntza hauek Lehiatu Egurra izeneko III. kapitulan garatzen dira eta maiatzaren 28ko 66/2024 Dekretuak xedatutakoan sartzen dira (Euskal Autonomia Erkidegoan, Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoa ezartzeko eta landa-eremuen karakterizazioa finkatzeko dena).

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta elikagaigintza-industrietan, elikagai ekologikoak eraldatzeko, merkaturatzeko edo garatzeko inbertsioak egiteko laguntzak. Laguntza hauek ezin izango zaizkie gehitu 1. eta 2. apartatuetan aipatutako ezeini.

Laguntza hauek Lehiatu Ekologikoa izeneko IV. kapitulan garatzen dira eta Europako Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko 2022/2472 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren babesean ematen dira. Erregelamendu horren bidez, nekazaritza- eta basogintza-sektoreetan eta landa-eremuetan barne-merkatuarekin bateragarriak diren zenbait laguntza-kategoria deklaritzen dira Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta elikagaigintza-industrietan inbertsio-proiektuak egiteko laguntzak, baldin eta aurreko apartatuetan sartzen ez badira, salbu ardoa eta arrantzatik eta akuikulturatik datozen produktuak, baita nekazaritzako azpiproduktuak balorizatzekeo proiektuak ere.

Laguntza hauek Lehiatu Ekoizpen izeneko V. kapitulan garatzen dira eta Europako Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko 2022/2472 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren babesean ematen

dira. Erregelamendu horren bidez, nekazaritza- eta basogintza-sektoreetan eta landa-eremuetan barne-merkatuarekin bateragarriak diren zenbait laguntza-kategoria deklaritzen dira Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

5.– Kalitate gastronomikoa hobetzeko inbertsio-proiektuak egiteko laguntzak, proiektu gastronomiko berriak sustatzeari, bikaintasun gastronomikoa sendotzeari eta integrazio bertikaleko proiektu gastronomikoak ezartzeari lotuta.

Laguntza hauek Lehiatu Gastrobikain izeneko VI. kapituluaren garatzen dira eta Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduari atxikitzen zaizkio –Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa –.

3. oinarria.– Definizioak.

Agindu honen ondorioetarako, honela ulertu behar dira jarraian datozen definizioak:

1.– Nekazaritza: kontzeptuak barne hartzen du laborantzakoa, abeltzaintzakoa eta basokoa dena, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legeak xedatutakoarekin bat.

2.– Elikagaigintza: kontzeptu honen barnean sartzen dira nekazaritzatik, arrantzatik, arrain-haztegietatik, ehizatik eta mikologiatik datozen produktuak edo beste jatorri natural batetik datozenak ekoiztea, eraldatzea, ontziratzea eta merkaturatzea, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legeak ezarritakoarekin bat.

3.– Handizkako merkataritza-jarduera: norberaren izenean eta norberaren kontura nekazaritzako edo arrantzako produktuak erosteko eta haiek handizkako beste merkataritza bidez eta txikizkako merkataritza saltzeko lanbidea. Jatorrizko handizkariak produktuak lehen salmentan, lonjan edo jatorrizko merkatu gisa baimendutako establezimenduetan erosten dituzte.

4.– Txikizkako merkataritza-jarduera: norberaren izenean eta norberaren kontura nekazaritzako edo arrantzako produktuak erosteko eta haiek kontsumitzaileei saltzeko lanbidea. Jatorrizko txikizkariak produktuak lehen salmentan, lonjan edo jatorrizko merkatu gisa baimendutako establezimenduetan erosten dituzte.

5.– Salmenta-zirkuitu laburra: nekazaritza-ustategi bakoitzaren inguruko eremu geografikoa, non ustategian eraldatutako produktuak saltzen baitira.

6.– Nekazaritza-produktuak merkaturatzea: salmentarako edukitzea edo erakustea, salmentarako eskaintzea, produktuak entregatzea edo merkaturatzea aurkezteko beste edozein modu, salbu eta nekazari batek bitartekari edo eraldatzaileei egindako lehen salmenta eta lehen salmenta horretarako produktu bat prestatzeko jarduera oro; nekazari batek azken kontsumitzaileei egindako salmenta nekazaritza-produktuak merkaturatzea dela ulertuko da, baldin eta horretarako erreserbatutako lokal edo instalazio independenteetan egiten bada salmentarako edukitzea edo erakustea, salmentarako eskaintzea, produktuak entregatzea edo merkaturatzea aurkezteko beste edozein modu, salbu eta lehen sektoreko ekoizle batek bitartekari edo eraldatzaileei egindako lehen salmenta eta lehen salmenta horretarako produktu bat prestatzeko jarduera oro; lehen sektoreko ekoizle batek azken kontsumitzaileei egindako salmenta nekazaritza-produktuak merkaturatzea dela ulertuko da, baldin eta horretarako erreserbatutako instalazio independenteetan egiten bada, bat etorri Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko (EB) 2022/2472 Erregelamenduari.

- 7.– Nekazaritza- eta elikagaigintza-enpresak: nekazaritzaren eta elikagaigintzaren esparruan jarduten duten nekazaritza-ustiategi eta enpresen multzoa.
- 8.– Krisialdian dauden enpresak: estatuak krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentarauetan (2014/C 249/01) jasotako definizioan ezarritako inguruabarren bat duten enpresak.
- 9.– Establezimendua: nekazaritzako eta basogintzako produktuak eraldatzeko, garatzeko eta merkaturatzeko erabiltzen den edo erabiliko den eraikin multzoa, eraikina, eraikineko eremua edo espazio irekia.
- 10.– Gastronomia-establezimendua: oro har, publiko osoari irekita dagoen lokala, aplikagarria den araudiaren arabera, non jatetxe-zerbitzuak ematen diren eta haien jarduera ekonomikoa kontsumorako elikagaiak edo edariak ekoitzi, zerbitzatu eta saltzearekin lotuta duten.
- 11.– Nekazaritza-ustiatagia: nekazaritza-ekoizpen primarioarako erabilitako lursail, lokal eta instalazioek osatutako unitatea, Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko (EB) 2022/2472 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.
- 12.– Nekazaritza- eta elikagai-industria: nekazaritza-produktuak edo elikagaigintza manipulatu produktu berriak sortzeko ekipamendu-ondasunen instalazioak, behar dituzten instalazio osagarriak barne, enpresa autonomo moduan funtzionatzeko gai direnak.
- 13.– Zuraren lehen transformazioko industriak: zura menditik aterata bezala, hau da, baldintza naturaletan erabiltzen dutenak, zura maneiatzeko eta garraiatzeko beharrezkoak diren eragiketak (adar-kentzea, trontzatzeta eta antzekoak) baino ez dituztenak.
- 14.– Proiektuko edo jarduerako lanen hasiera: hiru hauetatik, lehenbizi gertatzen dena hartuko da hasiera-eguntzat: inbertsioarekin lotutako jarduerak edo eraikuntza-lanak hasteko eguna; ekipoak eskatzeko edo zerbitzuak erabiltzeko lehen konpromiso irmoa hartzeko eguna; proiektuak edo jarduera itzulezin bihurtzen duen beste konpromiso bat hartzeko eguna. Lurrak erostea eta prestaketa-lanak egitea (hala nola baimenak lortzea eta bideragarritasun-azterlanak egitea) ez dira joko proiektuaren edo jardueraren lanen hasieratzat.
- 15.– Instalazio tekniko industrialak: eraikin edo egitura baten barruko elementu finkoak, ekoizpen-prozesua errazteko diseinatuta daude eta, bereiz badaitezke ere berez, funtzionamendurako behin betiko lotuta daude eta amortizazio-erritmo bera dute. Apartatu honetan, instalazio hidrosanitarioak eta suteen aurkako babesekoak sartzen dira.
- 16.– Mantentze-lanak: halakotzat hartuko dira aktiboak jarduteko baldintza normaletan mantentzea helburu duten mantentze- eta konponketa-gastuak, baldin eta egiten diren ekitaldiko emaitzen kontuari zuzenean lotzen bazaizkio.
- 17.– Bertako lehengaia: Euskal Autonomia Erkidegoan ekoizten den nekazaritzako, abeltzaintzako edo basogintzako lehengaia.
- 18.– Mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak: mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioak halakotzat hartzen dituen enpresa-kategoriak.
- 19.– Enpresa berria: sortu berria izateaz gain, eskatutako laguntzaren xede den produkzio-zentro berri bat sortzen duena. Enpresa sortu eta lehenengo bi urteetan mantendu ahal izango da enpresa berriaren izaera hori.

20.— Industria-eraldaketaren aurreko eragiketak: zerrategiko zuraren mozketak, zatikatzea, azala kentzea, trontzatzak, biltegiatzea, tratamendu babesleak aplikatzea eta lehortzea, bai eta zerrategi-industrialaren aurreko gainerako eragiketa guztiak ere; eta urtean zur-enborkien 20.000 m³-ko gehieneko ahalmena duten zerrategiak, Batzordearen (EB) 2022/2472 Erregelamenduan definitzen den moduan.

21.— Nekazaritzako produktua: Europar Batasunaren Fundazioaren Tratatuen (aurrerantzean Trataturia) I. eranskinean zerrendatutako produktuak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 11ko 1379/2013 (EB) Erregelamenduan I. eranskinean zerrendatutako arrantza- eta akuikultura-produktuak izan ezik, Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko (EB) 2022/2472 Erregelamenduak ezarritakoaren arabera.

22.— Nekazaritza-ekoizpen primarioa: nekazaritzatik eta abeltzaintzatik eratorritako produktuak ekoiztea, Tratatuen I. eranskinean zerrendatuta, produktu horien izaera aldatzen duen beste eragiketarik egin gabe, Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko (EB) 2022/2472 Erregelamenduak ezarritakoaren arabera.

23.— Produktu ekologikoa: produktuaren jatorrizko autonomia-erkidegoan ziurtatutako operadore baten ziurtagiri ekologikoa edo organikoa duena (zigilu ekologikoa).

24.— Inbertsio-proiektua: produktu komertzialak eskuratzeko eta, haien produktibitatea eta kalitatea hobetzeko diseinatutako azpiegitura, ekipamendu, instalazio tekniko industrial eta makinak multzoa.

25.— Belaunaldi-erleboia: trantsizio-prozesu estrategikoa, non belaunaldi zaharrago batek belaunaldi gazteago bati lagatzen baitizkio enpresa edo ustategi baten lidergoia, kudeaketa eta jabetza.

26.— Nekazaritza-sektorea: nekazaritza-ekoizpen primarioan, eraldaketan eta merkaturatzean jarduten duten enpresa guztiak, Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko (EB) 2022/2472 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

27.— Maquila-zerbitzua: enpresa batek hirugarren batentzat produktu bat edo produktu horren zati bat egiteko konpromisoa hartzen duen zerbitzu-kontratua.

28.— Nekazaritza-produktuak eraldatzea: nekazaritzako produktu baten gainean egindako eragiketaren emaitza, baldin eta emaitza, orobat, nekazaritza-produktu bat bada, animalia- edo landare-produktu bat lehenbiziko salmentarako prestatzeko beharrezkoak diren nekazaritza-jarduerak izan ezik, Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko (EB) 2022/2472 Erregelamenduak ezarritakoaren arabera.

29.— Basogintzako produktuak eraldatzea, garatzea eta merkaturatzea: lehengai edo energia-iturri gisa erabiltzen den zuraren lehen eraldaketarekin bat egiten duten eta enpresaren instalazioen barnean egiten diren zerratu, ekoitzi eta banatzeko eragiketen multzoa (zurari azala kentzea, zatikatzea, biltegiatzea, sailkatzea, babes-tratamendua ematea eta lehortzea).

30.— Elikagaien artisau-erldaketa: tokiko lehengaiak ohiko metodoen bidez prozesatzea, produktu bakarrak, naturalak eta kalitate handikoak bermatuz.

4. oinarria.— Finantzaketa.

1.— 14.674.990,39 euro erabiliko dira Lehiatu Inbertsioa 2026 programaren deialdian aurreikusitako laguntzak finantzatzeko. II. eta III. kapituluetan, LGENF funts komunitarioaren eta

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren artean kofinantzatu ahal izango dira laguntzak. IV., V. eta VI. kapituluetan emango diren laguntzak, berriz, soilik finantzatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura.

Funtsak honela banatuko dira:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura, 12.100.000,00 euro; honela banatuko dira:

i) II. kapituluko laguntzak finantzatzeko, 7.500.000,00 euro erabiliko dira; horietatik, 500.000,00 euro 2026rako ordainketa-kredituari dagozkio, oso-osorik LGENFren kontrapartidari dagozkionak, eta 7.000.000,00 euro, 2027rako konpromiso-kredituari; horietatik, 2.699.805,08 euro LGENFren kontrapartidari dagozkio eta 4.300.194,92 euro gehiago finantzaketa nazional gehigarri gisa.

ii) III. kapituluko laguntzak finantzatzeko, 2.000.000,00 euro erabiliko dira; horietatik, 250.000,00 euro 2026rako ordainketa-kredituari dagozkio eta, horietatik, 80.996,14 euro, LGENFren kontrapartidari dagozkio eta 169.003,86 euro gehiago finantzaketa nazional gehigarri gisa. Eta, horietatik, 1.750.000,00 euro 2027rako ordainketa-kredituari dagozkio eta, horietatik, 132.558,14 euro, LGENFren kontrapartidari dagozkio eta 1.617.441,86 euro gehiago finantzaketa nazional gehigarri gisa.

iii) IV. kapituluko laguntzak finantzatzeko, 1.000.000,00 euro erabiliko dira. Hortik, 200.000,00 euro 2026. urterako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 800.000,00 euro, 2027. urterako konpromiso-kredituari.

iv) V. kapituluko laguntzak finantzatzeko, 1.000.000,00 euro erabiliko dira. Hortik, 200.000,00 euro 2026. urteko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 800.000,00 euro, 2027. urterako konpromiso-kredituari.

v) VI. kapituluko laguntzak finantzatzeko, 600.000,00 euro erabiliko dira. Hortik, 100.000,00 euro 2026. urteko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 500.000,00 euro, 2027. urterako konpromiso-kredituari.

b) Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren kontura, 2.574.990,39 euro; horietatik:

i) II. kapituluko laguntzak finantzatzeko, 2.413.888,04 euro erabiliko dira; 377.192,98 euro 2026rako ordainketa-kredituari dagozkio, eta, 2.036.695,06 euro, 2027rako konpromiso-kredituari.

ii) III. kapituluko laguntzak finantzatzeko, 161.102,35 euro erabiliko dira; 61.102,35 euro 2026rako ordainketa-kredituari dagozkio, eta, 100.000,00 euro, 2027rako konpromiso-kredituari.

2.– Programa honetara bideratutako Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren baliabide ekonomikoak kontsumitu ondoren, II. eta III. kapituluetakoa laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura baino ez dira finantzatuko.

3.– Emango diren laguntzen bolumen guztia ezingo da izan 1. apartatuan ezarritako baliabideak baino handiagoa, edo haien eguneratzearen ondoriozko zenbatekoa baino handiagoa, indarrean dagoen legediaren arabera aurrekontu-aldaketak onartzen diren kasuetan. Gehikuntza hori gertatuz gero, 1. apartatuan ezarritako zenbateko globalaren % 20 handitu ahal izango da gehienez, eta deialdiaren ebazpena eman baino lehen egin beharko da, horren

berri emango da Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordearen ebazpenaren bitartez, baina horrek ez du esan nahiko eskabide berriak aurkezteko epea irekiko denik, ez eta ebazteko epearen beste zenbaketa bat hasiko denik ere.

4.– Proiektu bakar batek ere ezin izango du lehen apartatuan ezarritako zenbateko osoaren % 20tik gorako laguntzarik jaso.

5.– Kontuan izanik funtsak mugatuak direla kapituluka, azken eskaera onargarrirako proposatutako zenbatekoa erabilgarri dagoen kopurua baino handiagoa bada, esleituko den laguntza diru-kopuru erabilgarri hori izango da.

6.– Hala ere, kapitulu baten aurrekontu-zuzkidura agortzen ez bada, sobera geratu den kopurua beste kapituluei gehitu ahal izango zaie, baldin eta kapitulu horretan diruz lagundu daitezkeen proiektuak geratzen badira.

5. oinarria.– Onuradun izateko baldintza orokorrak, espezifikoak, eta debekuak.

1.– Onuradun izaera eskuratzeko, eskakizun orokor hauek bete beharko dira:

a) Inbertsioak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan egitea.

b) Dirulaguntzaren azken ordainketa egin aurretik eta, Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenen araubideari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko maiatzaren 21eko 63/2024 Dekretuaren 2. artikulua aplikatzaren ondoriozko salbuespenetan izan ezik, inbertsioak egin diren establezimenduak erregistro horretan inskribatuta egotea. Nolanahi ere, inbertsio-proiektu guztiek jarduera-lizentzia eta osasun-erregistroa izan beharko dituzte laguntzaren azken ordainketa egin aurretik.

c) Inbertsio-eragiketak hasita ez egotea eskabidea aurkezten den unean, efektu pizgarria izan dezan laguntzak, Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko 2022/2473 (EB) Erregelamenduan eta Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko 2022/2472 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren arabera. Betekizun horretatik salbuetsita egongo dira obra-proiektuaren ordainsariak.

d) Enpresak bideragarriak izatea ikuspegi ekonomikotik eta haren produktuei nahiko etorkizun ona aurreikustea merkatuan. Aurreikusitako urteko kontuetan agertzen diren datuak aztertuko dira enpresa sortu berrien edo produktu berritzaileak merkaturatzen dituzten enpresen kasuan.

e) Enpresak krisialdian ez egotea, estatuak krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentzarauetan jasotako definizioaren arabera (2014/C 249/01).

f) Proiektuak ingurumenaren arloko arauak bete ditzala, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen, eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen arabera. Inbertsio-proiektuen aurretik, hala badagokio, ingurumen-inpaktuaren eta higienearen ebaluazioa egingo da, bai eta kasuan kasuko inbertsioei aplikatu beharreko Erkidegoko arauak ere.

g) Ez egotea berreskuratze-agindu baten menpe, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

h) Eskatutako dirulaguntza 30.000 eurotik gorakoa bada, Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeak bete beharko ditu, eta hori Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.3 bis artikuluan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da, horixe jasotzen baita IV. eranskinean.

i) LGTBIfobia egin, bultzatu edo sustatu ez izana, bihurketa-terapiak sustatu edo egitea barne, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen esku-bideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluen arabera.

2.– Eskatutako laguntza motaren edo egin beharreko inbertsio-motaren arabera, baldintza espezifiko hauek bete beharko dira:

a) II. kapituluko eta III. kapituluko eragiketarako, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko (EB) 2021/2115 Erregelamenduan ezarritako baldintzak betetzea. Erregelamendu horren bidez, nekazaritza-politika erkidearen esparruan estatu kideek egin beharreko plan estrategikoetarako (NPEaren plan estrategikoak) laguntzari buruzko arauak ezartzen dira –Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatuta– eta 1305/2013 (EB) Erregelamendua eta 1307/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen dira. Halaber, Espainiako NPEaren 2023-2027 aldirako Plan Estrategikoan ezarritako baldintzak ere betetzea (Europako Batzordeak 2022ko abuztuaren 31n onartua, eta 2023ko abuztuaren 30ean aldatua).

b) IV., V. eta VI. kapitulueterako, Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko 2022/2472 (EB) Erregelamenduaren 17. artikuluan ezarritako baldintzak.

c) VI. kapitulurako, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen (EB) 2023/2831 Erregelamenduaren baldintzak bete beharko dira. Zehazki, erregelamendu honetako de minimis araubideko laguntzak jaso dituzten onuradunek ezin izango dute 300.000 euroko laguntza gainditu hura eman aurreko hiru urteetan.

d) Produktu izoztu eta ultraizoztuak hotzean biltegitartzeko inbertsioei dagokienez, biltegien edukiera produktuak eraldatzeko instalazioen ekoizpen-ahalmenarekin bat etortzea, eta, merkaturatzeari dagokienez, edukiera erosahalmenarekin bat etortzea.

e) Diruz lagundu daitekeen proiektuan obra edo instalazioak egin behar badira, proiektua ebaluatzeko unean, agiri bidez egiaztatzea inbertsioa egiteko behar diren lursailak edo higiezinak erabiltzeko aukera ematen duen titulua, gutxienez 10 urterako, eskaera aurkezten den urtetik aurrera; horrez gain, obra gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimenek aurrez eskatuta egon beharko dute. VI. kapituluan jasotako laguntzetarako, higiezin gutxienezko baliagarritasun-epea 5 urtekoa izango da.

3.– Ezingo dira dirulaguntzen onuradun izan Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.1 artikuluan adierazitako inguruabar hauetakoren batean dauden pertsona fisiko edo juridikoak:

a) Epai irmo bidez, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorra jaso izana edo prebarikazio, eroskeria, diru publikoen erabilera bidegabea, influentzia-trafiko, iruzur eta ordainarazpen ilegal edo hirigintza-delituak direla eta zigorra jaso izana.

b) Borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskaera egin izana, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaraturia izatea, konkurtsoan deklaraturia egotea (salbu eta konkurtso horretan hitzarmen batek efikazia lortu badu), esku-hartze judizialaren mende egotea edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta egotea, konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe egonik.

c) Kausaren batean errudun deklaraturia izateagatik, administrazioarekin egindako edozein kontratari ebazpen irmoa eragin izana.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaritza dutenak egotea Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako bateraezintasun-erregimenetako batean, edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat izatea, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen araudi autonomikoan ezarritako baldintzetan.

e) Egunean izatea indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bat etorritik Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6. artikuluan ezarritakoarekin (zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa), bai eta Euskadiko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruko dirulaguntzak itzultzeari dagozkion betebeharrak ere.

f) Egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean izatea.

g) Egunean ez izatea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko edozein entitatek emandako dirulaguntzak itzultzeagatik betebeharren ordainketak, bat etorritik Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduarekin (agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen edo dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da). Pertsona edo entitate eskatzaileek edo onuradunek dirulaguntzak itzultzeko betebeharraren ordainketa egunean dutela ulertuko da, baldin eta betearazpen-epean Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko edozein entitateekin dirulaguntzak itzultzearekin lotutako zorrik ez badute, edo, premiamendu-bidea ezarri ezin zaien pertsona edo entitateen kasuan, borondatezko epean ordaindu gabeko zorrik ez badute. Era berean, pertsonak edo entitateek dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketak egunean dituztela ulertuko da, zorrak zatituta edo geroratuta eta bermatuta badaude, edo dagokion itzulketa-ebazpenaren aurkaratzea dela-eta horiek bertan behera uztea erabaki bada.

h) Zehapena jaso izana dirulaguntzak jasotzeko aukera galarazten dion ebazpen irmo baten bidez, lege honetan edo beste batzuetan zehaztutakoari jarraikiz. Zehazki, ezingo dira dirulaguntzen onuradun edo entitate laguntzaile izan sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoak eta juridikoak, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak eta, Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen ber-

dintasunaren esparruan finkatzen duen moduan, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

i) Pertsona fisiko edo juridikoa, publiko edo pribatua zehatuta egotea, Hondakinak eta Lur-zoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitakoaren arabera, arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.

j) Bete ez izana desgaitasuna duten pertsonentzat legez ezarritako lanpostuen erre-serba-kuota, hura betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla egiaztatu gabe.

4.– Abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 11.4 artikuluan aurreikusitako elkarteak ezin izango dira onuradun izan, haien kideetako edozeinek aurreko debekuetakoren bat badu.

5.– Ezingo dute dirulaguntzarik jaso, halaber, entitate eta enpresa hauek: haien buru diren pertsonak edo beste inguruabar batzuk kontuan hartuta, aurretik debekua jaso duten entitate eta enpresen jarraipen izan daitezkeela pentsatzeko bidea ematen dutenek edo entitate edo enpresa haien aldaketa, bat-egite edo ondorengo izan daitezkeela pentsatzeko bidea ematen dutenek.

6.– Ezingo dira inola ere erregulatutako dirulaguntzen onuradun edo entitate laguntzaile izan Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. paragrafoetan aurreikusitako debekuren bat jaso duten elkarteak. Ezingo dira halaber dirulaguntzen onuradun edo entitate laguntzaile izan Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, zigor-arloko arau-hauste baten zentzuzko zantzuak egoteagatik, inskribatzeko administrazio-prozedura etenda duten elkarteak ere, harik eta ebazpen judizial irmoa eman, eta, horren bitartez, dago-kion erregistroan inskribatu ahal izan arte.

7.– Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzak ofizioz egiaztatuko du egunean dau-den zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak, eskatzaileak espresuki aurka egin ezean; kasu horretan, betekizun hori betetzen dela egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du. Baldintza hori bete beharko da hala onuradun izateko nola laguntza jasotzeko, eta, hortaz, egiaztapen-jarduerak bi unetan egingo dira: dirulaguntza ematen denean eta ordainketak egiten direnean.

8.– 1. apartatuko a), b) eta c) betekizun orokorrak ofizioz egiaztatuko dira. Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzak in situ ikuskatuko ditu 1. apartatuko d) eta e) betekizunak, eta, horrez gain, laguntzen eskatzaileak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du. Gainerako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko, erantzukizunpeko adierazpen bat egingo da, l. eranskinaren arabera.

9.– 2. apartatuan adierazitako betekizun espezifikoak egiaztatzeko, 6. oinarriko 7. apartatuan ezarritako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

10.– 3. apartatuko c) letran jasota dagoen debekua aintzat hartzeko eta haren irismena zehazteko, sektore publikoko kontratazioa erregulatzen duen araudiak ezarritakoaren arabera jokatuko da.

11.– 3. apartatuko j) azpiapartatuan jasotako debekuaren irismena aintzat hartzeko, 6. oinarriko 7. apartatuko q) azpiapartatuan aipatzen den komunikazioa aurkeztu beharko da.

12.– 3. apartatuko eta 1. apartatuko e), f), g) eta i) letretako gainerako debekuak aintzat hartzeko, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.5 artikulua arabera, eta I. eranskin gisa atxikitako ereduari jarraikiz.

6. oinarria.– Eskabideak aurkezteko epea, modua eta edukia.

1.– Eskaerak aurkezteko epea 30 egunekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskaerarekin batera, 7. apartatuan aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira. 5.1.c) oinarrian ezarritako baldintzak betetzeko, agindua argitaratu aurretik aurkeztutakoa onartuko da eskaera-datatzat, betiere hasi ez izanaren akta edo dagokion egiaztapena egin bada.

2.– Eskaera bakarra egingo da establezimendu eta jarduera bakoitzeko.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan sartuta aurkeztuko dira eskaerak, 4. apartatuan adierazten diren helbideetan.

4.– Eskabidea, erantzukizunpeko adierazpena, justifikazioak eta gainerako agiriak nola izapidetu jakiteko xehetasunak helbide honetan eskuratu daitezke:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0034216>

Eskabidearen ondoko izapideak hemen egingo dira:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>.

5.– Eskabidea ordezkari baten bitartez egiten bada, ordezkaritza egiaztatu beharko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Ildo horretan, eta agindu honen esparruan, ordezkaritza egiaztatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ordezkarien erregistro elektronikoan inskribatuta badago (<https://www.euskadi.eus/ordezkaririk>). Ordezkaritza erregistro horretan inskribatuta ez badago, ordezkaritza egiaztatzeke, borondatezko ordezkaritza emateko inprimaki normalizatua bete behar da (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>), edo zuzenbidean onartutako beste edozein modutan egiaztatu beharko da.

6.– Laguntza hauen eskabidearen ereduaren oinarrizko edukia eskuragarri dago <https://euskadi.eus> helbidean, agindu honen I. eranskina da eta 5. oinarriko baldintzak eta debekuak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena eranstean du.

7.– Eskaerarekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Pertsona juridikoek, eratze-eskrituraren kopia bat eta estatutuen kopia bat (dagokion erregistroan inskribatu dela adierazten duen zigilua jarrita), eta, hala badagokio, gerora erregistratutako eskrituren kopia, enpresa gaur egun zer egoeratan dagoen egiaztatzeke.

b) Nortasun juridikorik gabeko entea izanez gero, eratze-eskrituraren kopia eta osaeran edo funtzionamenduan aldaketak ekarri dituen ondorengo beste edozein eskriturarena.

c) Enpresa eskatzailea talde batekoa bada (Batzordearen 2003/361/CE Gomendioaren arabera): enpresa zein taldetakoa den, haren antolamendu-egituraren dokumentazioa, partaidetza-ehunekoak adierazita (laguntza eskatzen den egunean).

Datu hauek emango dira:

- Negozio-zifraren zenbateko garbia.
- Langileen batez besteko kopurua.
- Aktiboaren zenbatekoa, guztira.

Era berean, emandako datuak egiaztatzen dituen dokumentazioa eman behar da, hala nola aurreko hiru ekitaldietako urteko kontu bateratuak, enpresa bakoitzaren urteko kontu ikuskatuak (halakorik ezean, Merkataritza Erregistroan aurkeztutako balantzea eta galdu-irabazien kontua), sozietateen gaineko zerga eta abar.

d) Azken 5 urteetan Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarik jaso ez bada, hirugarrenaren alta-agiria; helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

e) Egin beharreko proiektuaren memoria tekniko-ekonomiko bat, edukiaren aldetik II. eranskinarekin bat datorrena.

f) Aurrekontuak eta proformako fakturak, inbertsioa edo gastua justifikatzeko. Jatorrizko formatuan eta modu indibidualizatuan aurkeztuko dira. Eskaintza faltsuak edo manipulatuak aurkezten badira, laguntza-eskabidea ukatu eta otsailaren 28ko 147/2023 Errege Dekretuaren I. eranskinean aurreikusitako zigorrak aplikatuko dira.

g) Kostuen moderazioa era egokian kontrolatzeko, Excel taula bat erantsiko da (III. eranskina), eta, bertan, zerrendatuta azalduko dira eskatutako inbertsio guztiak, bakoitzaren hiru aurrekontuak, haien trazabilitatea eta hautatutako aurrekontua. Ezinezkoa bada inbertsioren batean hiru aurrekontu aurkeztea, justifikazio-memoria, ezintasun hori modu erantzunezinean argudiatzen duena.

h) Proiektuak berekin badakar industriako instalazio teknikoak edo obrak egitea, nahitaezko obra-lizentziaren eskabide osoaren kopia. Lizentzia hori behar ez bada, hala dela egiaztatzen duen udal-ziurtagiria.

i) III. kapituluko laguntzaren eskatzaileek zerrategirako zur-enborkien gehieneko edukiera adierazten duen frogagiria aurkeztu beharko dute, eskabidea egin aurreko urteari dago-kiona: zuraren inbentario-liburua, sarrera-irteeren xehetasunekin.

j) Erantzukizunpeko adierazpen bat, betekizunak bete direla eta debekurik ez dagoela zehazten duena.

k) Kasu bakoitzean, 28., 34., 40., 46. edo 55. oinarrietako balorazio-irizpideak betetzen direla justifikatzeko memoria; halaber, enplegua sortzeko konpromisoa dagoenean, enplegatuko diren langileen kopurua, proposatutako inbertsio edo gastuek agindutako enplegu-sorkuntzan zer ondorio izatea aurreikusten den justifikatuz.

l) Enpresak eskatutako eta justifikazio-memorian garatutako balorazio-irizpideen euskarri-dokumentuak (V. eranskina).

m) Enplegua sortzeko konpromisoa baldin badago, «Alta emanda dauden plantillako langileen batez besteko kopuruari buruzko txostena» aurkeztu beharko du enpresak, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egina; dirulaguntza eskatu aurreko urtekoa eta ordainketa-eskaera aurkeztu aurreko hilabetekoa izan behar du txostenak. Ondorio horietarako, lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek ere izaera bera izango dute eta Borondatezko gizarte-prestazioko erakundeek emandako batez besteko plantillaren txostena baliozkoa izango da.

n) Bideragarritasun ekonomikoa eta merkatuan nahiko etorkizun ona izatea aurreikusten dela egiaztatzeko, bai eta mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainak (ETE) direla egiaztatzeko ere, hauek aurkeztu beharko dira:

i) Sozietateen gaineko zerga aurkeztu behar ez duten pertsona fisikoen eta nortasun juridikorik gabeko enteen kasuan:

– Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, eskabidea aurkeztu den dataren aurreko hiru ekitaldietakoa eta ekitaldi bakoitzeko jarduera ekonomikoen eranskina.

ii) Sozietateen gaineko zerga aurkeztu behar duten pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko enteen kasuan:

– Eskabidea aurkeztu den dataren aurreko hiru ekitaldietako sozietateen gaineko zerga.

iii) Enpresa sortu berrien kasuan:

– Hurrengo hiru ekitaldietarako aurreikusitako urteko kontuak.

o) Higiezinaren bat erosi bada, indarreko tasazio ofiziala eta eraikinak azken 10 urteetan horretarako laguntzarik jaso ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena.

p) 50 langile baino gehiago dituzten enpresa eskatzaileen kasuan, Berdintasun Plana, zeina eskatzen baita Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera, bai eta plan hori erregistratuta dagoela adierazten duen frogagiria ere.

q) 50 langile baino gehiago dituzten enpresa eskatzaileen kasuan, desgaitasuna duten langileentzat plantillaren % 2ko erreserba-kuota bete izanaren jakinarazpena edo, bestela, hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri izanaren egiaztagiria.

r) VI. kapituluko 1. lerroko laguntzen eskatzaileek proiektuaren buru izango den eta jatetxe berriaren gastronomia- edo sukaldaritza-zuzendaritza bere gain hartuko duen pertsonaren tituluaren kopia autentikoa, eta batez besteko kalifikazioa jasotzen duen espediente akademikoaren kopia, bai eta ospe handiko chefekin izandako lan-esperientzia justifikatzea ere.

s) VI. kapituluko 2. lerroko laguntzen eskatzaileek establezimenduaren aintzatespen gastronomikoen justifikazioa aurkeztu beharko dute.

t) Eskatzaileek laguntza kuantifikatzeko egokitzen jotzen duten beste edozein dokumentazio osagarri aurkeztu ahal izango dute.

8.– Zazpigarren paragrafoan eskatutako dokumentazioa administrazio honetan edo beste batean entregatzen bada, eta betiere eskatzaileak berriaz deklaritzen badu dokumentu horietan ez dela aldaketarik egin, horiek aurkeztutzat joko dira, bat etorriz urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua 3. paragrafoan ezarritakoarekin. Eskatzaileak adierazi

beharko du zein administrazioan aurkeztu dituen eta noiz aurkeztu dituen. Edonola ere, eskatzaileak berariaz uko egin ahal izango dio baimen inplizitu hori emateari laguntza-eskaera, eta, hala egiten badu, dokumentazioa berak aurkeztu beharko du.

9.– Nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dira laguntza-eskaera eta eskatutako dokumentazioa. Era berean, laguntza-eskabidearen ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan, entitate eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoaren arabera.

10.– Eskabideak ez baditu betetzen bete beharreko baldintza guztiak, interesdunari jakinaraziko zaio hamar egun balioduneko epea duela hutsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak eranstea. Halaber, adieraziko zaio horrela egin ezean atzera egin duela ulertuko dela, Elikagaien Politika eta Industriako zuzendaria ebazpena eman ondoren eta bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoarekin.

11.– Edonola ere, Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzak beharrezkoak iruditzen zaizkion agiriak eta informazio osagarriak eska diezazkioke eskatzaileari, aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertzeko, ebaluatzeko eta izapidetzeko.

7. oinarria.– Dirulaguntza jaso dezaketen inbertsioak, oro har.

1.– Diruz lagundu ahal izango dira, oro har, hauek guztiak:

a) Lehen aldiz martxan jarriko diren establezimenduak eraikitzea edo eskuratzea; edo, bestela, bigarren eskuko establezimenduak eskuratzea eta birgaitzea, baldin eta, azken hamar urteetan, ez badute jaso Estatuko edo EAEko dirulaguntza publikorik helburu bererako, hain zuzen ere laguntza bikoiztea dakarrenik.

a.1.– Lurren balioa laguntzatik kanpo geldituko da betiere. Tasatzaile independente eta egiaztatu batek ezarriko du balioa.

a.2.– Inbertsioa justifikatzeko beharrezkoak diren makineria eta instalazio tekniko industrialak eduki beharko dituzte establezimenduek. Lehengaiak eta produktuaren balio-kate bereko produktu amaituak biltegiratzeko establezimenduei dagokienez, bertan egiten den jardura justifikatzeko beharrezkoak diren eskakizunak bete beharko ditu makineriak, baldin eta higiezin horiek Nekazaritza eta Elikadurako Industrien Erregistroan inskribatu ahal badira, Nekazaritza eta Elikadurako Industrien Erregistroari dagokion araudiak salbuetsitako establezimenduetan eta VI. kapituluan jasotakoetan izan ezik.

b) Obra edo instalazio tekniko industrialak egiteko nahitaezkoak diren ordainsari profesio-nalak, gehienez ere, proiektuaren exekuzio materialaren % 8ra arte.

c) Instalazio tekniko industrialak egitea.

d) Produkzio-instalazioetako ekipamendua (aldagelak, bulegoak eta altzariak), eta instalazioan lan egiten duten langileek behar dituzten espazioak.

e) Makineria erostea.

f) Ingurumenari dagokionez, inpaktua txikitu eta kalitatea hobetzeko prozesuetan inbertsioak egitea; helburuak izan behar du produktuek ekoizpen-prozesuetako eskakizun tekniko eta sanitarioak betetzen dituztela egiaztatzea edo haietara egokitzea.

2.– Onuradunak hornitzaile desberdin eta independenteen hiru eskaintza aurkeztu beharko ditu gutxienez, laguntzaren xede diren inbertsio guztienak, edozein dela ere kostu zenbatekiaren zenbatekoa, baita aipatutako kostua kontratu txikiaren zenbatekoa baino txikiagoa denean ere.

Aurrekontuan jasotako inbertsioa egiteko eta zerbitzu hori emateko gaitasuna duten enpresa independenteek egin behar dituzte aurrekontuak; gainera, behar bezain zehaztuta egon behar dute, eta konparatzeko moduko gastu-kontzeptuak jaso behar dituzte.

Hiru eskaintzak obra egiteko konpromisoa hartu aurretik, zerbitzua eman aurretik edo ondatsunaz hornitu aurretik aurkeztu eta jaso beharko dira, salbu eta haien ezaugarri bereziengatik merkatuan ez badago haiek egiten, ematen edo hornitzen dituen behar adina entitate; kasu horretan, hala dela egiaztatu beharko da.

Eskaintzak hornitzaileei eskatu behar zaizkie, eta hori egiaztatzeko modua eduki behar da; izan ere, edozein unetan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari edo onuradunari eskaintzak zer egunetan eskatu eta jaso ziren agiri bidez egiaztatzeko.

Aurkeztutako eskaintzen artean egindako hautua –laguntza eskatzean aurkeztu beharko dira eskaintzak– efizientzia- eta ekonomia-irizpideei jarraikiz egin beharko da, eta, betiere, berariaz justifikatu beharko da memoria batean, baldin eta proposamen ekonomiko onuragarrienaren alde egiten ez bada. Hautatutako eskaintzek inbertsio-elementua kontratatu, gauzatu edo fakturatu baino lehenagokoak izan behar dute beti.

Edonola ere, eskatzaileak aurkeztutako gastu diruz lagungarrien zenbatekoak ez du gaitortuko merkatuko batez besteko balioa.

8. oinarria.– Oro har, dirulaguntza jaso ezin duten kostuak.

Ez dira diruz lagunduko:

1.– Enpresen salerosketa edo transferentzia.

2.– Ikerketa.

3.– Kontabilitateak gastutzat hartzen dituen inbertsioak, salbu eta azterlanak eta proiektuak.

4.– Sozietate bat eratzeke eta lehen aldiz ezartzeko gastuak.

5.– Inbertsioa egiten den lursaila erosteko eta erosten diren lokal eta pabiloi eraikietako lurzoruen balioa ordaintzeko inbertsioak.

6.– Eraitsiko diren eraikinak erostea.

7.– Establezimenduak erostea, erosketa horrek dirulaguntzarik jaso badu azken 10 urteetan. Era berean, ez dira diruz lagunduko lehendik administrazio publikoek helburu bererako diruz lagundutako establezimenduetako inbertsioak, 7 urte igaro ez badira, Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzaren iritziz behar bezala arrazoitutako inbertsioak edo jarduerari eragiten dioten arau-aldaketen ondoriozkoak izan ezik.

Bi kasuetan, laguntza hori kobratzen den egunetik aurrera hasiko dira zenbatzen epe horiek.

8.– Eraldaketa-proiektuei dagokienez, higiezinetan bakarrik egiten diren inbertsioak, salbu eta, enpresak jardunean jarraitzeko, onuradunak makinak edo ekipamenduak garraiatzen baditu beste establezimendu batetik.

- 9.— Salgaietan ordaintzen diren inbertsioak eta, bigarren eskuko makinetan eta ekipamenduetan egindako inbertsioak, salbu 27.4. oinarrian ezarritakoa.
- 10.— Lehendik dauden makinak inbertsioa egingo den lokalera edo kokapenera eramateko gastuak.
- 11.— Txikizkako merkataritzarekin lotutako inbertsioak, hauek izan ezik: nekazaritza-sargaiak edo enpresaren beraren produktuak dastatzeko dendak merkaturatzen dituzten lokalak, VI. kapituluaren jasotako laguntzen onuradunak eta nekazaritza-sargaiak merkaturatzeko lokalak.
- 12.— Produktuak eraldatzeko, garatzeko edo merkaturatzeko prozesuarekin zuzeneko loturarik ez duten obrak (etxebizitzak, sukaldeak, enpresakoak ez diren langileentzako jangelak, ostatuak eta antzekoak), bai eta erabilera horiek dituzten higiezinen erosketa ere.
- 13.— Lurzatiaren mugaren eta establezimenduaren artean, lurra berdintzea eta urbanizatzea, gainazal eraiki berri bat proiektatzen bada izan ezik.
- 14.— Industriaren jarduerarekin zuzeneko loturarik ez duten urbanizazio-lanak, industriaren lursailetik kanpoko zerbitzu-azpiegituretarako harguneak barne (ura, argia, saneamendua, etab.).
- 15.— Apainketa-lanak eta jolas-ekipoak. Luxuzko gastuak.
- 16.— Enpresaren amortizazio-taulan, 5 urtetik beherako amortizazio-aldiarekin jasotako materiala, betiere ibilgetu materiala erregistratzeko eta baloratzeko Kontabilitateko eta Kontuen Auditoretzako Institutuaren arauen arabera.
- 17.— Garraio-elementuak, salbu eta eraldaketa-prozesuekin halabeharrezko lotura badute eta establezimenduaren barruan badaude.
- 18.— Guztira, 3.000 eurotik beherakoak diren inbertsioak.
- 19.— Fruta- eta barazki-ekoizleen elkarte (FBEE) bateko kideak dituzten ustiategiei eragiten dieten edo FBEE batek sustatzen dituen inbertsio diruz lagungarriak, baldin eta haien funts operatiboetatik eskatu bada dirulaguntza.
- 20.— Ekipamendua eta makineria berritzeko edo soilik ordeztzeko inbertsioak, salbu eta erositako berria aurrekoak ez bezalakoa bada, erabiltzen duen teknologiaren zein errendimenduaren aldetik.
- 21.— Konpontze- eta mantentze-lanak. Autoeraikuntza.
- 22.— Eskudirutan ordaindutako inbertsioak.
- 23.— Ebakitzeko, zultzeko eta antzeko esku-erremintak.
- 24.— Zeharkako zergak ez dira inola ere hartuko diruz laguntzeko moduko gastutzat, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke, ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.
- 25.— Proiektuaren xederako neurritz kanpokoak direnak, laguntzak kudeatzen dituen organoaren irizpide arrazoituaren arabera.
- 26.— Makineria ez den inbertsioen finantza-alokairua.
- 27.— Instalazio fotovoltaikoetan egindako inbertsioak.

28.— Euskal Autonomia Erkidegoko elikakatea eta zuraren katea digitalizatzeko laguntzen aginduan sartzen diren software- eta hardware-inbertsioak, salbu eta enpresaren automatizazio-prozesuetarako beharrezkoak diren instalazioetan, hardwareetan (automatak) eta makinerian egiten diren inbertsioak.

9. oinarria.— Diruz lagundu daitezkeen kostuen mugak eta baldintzak.

Jarraian zehaztu diren inbertsio-balorazioen moduluei egokituko zaizkie diruz lagundu daitezkeen kostuak, kontuan izanik hauek guztiak:

1.— Proiektuek obra egitea aurreikusten badute, diruz lagundu daitezkeen gehieneko inbertsioa honela kalkulatu da: azalera eraikia edo berritua bider metro koadroko 520 euroko modulu bat.

Modulu hori aplikatzeko, kontuan izango dira bai erosketa-gastuak, bai obra-gastuak —erakuntza berrien eta berrituen kasuan—, barneko banaketak barne. Horretarako, aipaturiko muga horiek ezingo dira gainditu, ezta azalera berean gastu horietako bat baino gehiago egiten bada ere.

Muga horretan ez dira kontuan hartuko instalazioekin lotutako gastuak, edozein direla ere.

2.— Produktuak altueran biltegitatzeko eraikinei dagokienez, moduluaren zenbatekoa honela kalkulatu da: aurreko paragrafoan aipatutako metro koadroko moduluaren zenbatekoa bider guztizko altuera, zati zazpi.

3.— Proiektuak bulego-altzariak jartzea badakar, diruz lagundu daitezkeen gehieneko inbertsioa 1.000 euro izango da ekipamendurako lanpostu bakoitzeko.

4.— Finken inguruko itxiturak. Diruz lagundu daitezkeen gehieneko inbertsioa 40 euro izango da metro linealeko, barnean direla ateaz besteko elementu berezi guztiak. Era berean, diruz lagundu daitezkeen metro linealen gehieneko kopurua, balio absolutuan, inbertsio-proiektuaren xede den establezimenduan eraikitako edo eraiki nahi diren metro koadroen batura izango da.

5.— Lurrak berdintzea eta urbanizatzea, zoru-zuzkidura barne. Diruz lagundu daitezkeen gehieneko zenbatekoa 35 euro izango da jarduketaren xede den metro koadro bakoitzeko. Era berean, diruz lagundu daitezkeen metro koadroen gehieneko kopurua kalkulatzeko, azalera eraikia bider bi egingo da.

6.— Makinerian egindako inbertsioak finantza-errentamenduaren bidez finantzatu ahalko dira, baina soilik finantza-errentamenduaren kontratuan ezartzen bada derrigorrezkoa izango dela ondasun hori eskuratzea errentamendu-operazioa amaitzen denean. Alde horretatik, ondasunaren deskribapena, haren zenbatekoa eta errentamendu-epea adieraziko ditu kontratuak, eta, halaber, alokairua amaitzen denean ondasuna erostea nahitaezkoa izateko klausula bat finkatuko du, baita alokairuak dirulaguntzei buruzko araudiak finkatzen dituen betebeharrak bete behar izatea ere. Finantza-errentamenduak zazpi urte iraungo du gehienez ere.

7.— Enpresaren beraren produktuak dastatzeko denden ekipamendurako gehieneko dirulaguntza 30.000 euro izango da.

10. oinarria.— Laguntzen kudeaketa eta esleitzeko prozedura.

1.— Elikagaien Politika eta Industriako zuzendaria da oinarri hauetan araututako laguntzak kudeatzeko organo eskuduna.

2.– Lehiaketa bidezko norgehiagoka-prozedura izango da agindu honen II., III., IV., V. eta VI. kapituluek arautzen duten laguntza-ildo bakoitzeko laguntzak esleitzeko prozedura, Diru-laguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19.1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

11. oinarria.– Balorazio-batzordea.

1.– Inbertsio-eskaerak ebaluatu eta baloratzeko, Balorazio Batzorde bat eratuko da eta bokalgisa jardungo duten Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko hiru kidek osatuko dute; Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzako teknikarien artetik aukeratu dira horiek, eta Zuzendaritza horren zuzendariaren ebazpenaren bidez izendatuko dira; ebazpen horrek, era berean, adieraziko du nor izango den idazkaria eta nor batzordeburua; Balorazio Batzordeko kide guztien ordezkioak ere izendatuko dira, zuzendaritza bereko teknikarien artetik hautatuak. Elikagaien Politika eta Industriako zuzendariak emandako batzordearen osaerari buruzko ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, batzordea eratu aurretik.

2.– Batzordeak, bere eginkizunak betetzeko, arloko adituei eskatu ahal izango die bileretan parte hartzeko eta aholkularitza emateko, beharrezko irizten dionean. Batzorde horren jardunean, behar diren neurriak hartuko dira eskaeren balorazioan parte hartzen duten pertsona guztien interes-gatazkak saihesteko.

3.– Balorazio Batzordeak espedienteen bideragarritasuna aztertu eta espedienteak balioetsi aurretik, Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzako teknikari batek eskabide bakoitza aztertuko du: proiektu bakoitzaren azterketa tekniko eta ekonomikoa egingo du, eta, haren arabera, proiektuak agindu honetako eskakizunak betetzen dituen aztertzeko memoria bat egingo du, eta Batzordeari aurkeztuko dio.

4.– Balorazio Batzordeak funtzio hauek izango ditu:

a) Aurkezten diren eskabide guztiak aztertzea eta aplikatu beharreko araudia betetzen dutenak eta araudia betetzen ez dutenak bereiztea. Halaber, araudia betetzen ez duten eskabideen zerrenda egingo du, eta banan-banan azalduko du zein izan den baztertzeko arrazoia.

b) Aplikatu beharreko araudia betetzen duten inbertsio-eskabideak ebaluatzea; hain zuzen ere, proiektuak ebaluatu eta agindu honetan finkatutako irizpide objektiboak zenbateraino betetzen diren aztertzea, laguntza motaren arabera.

c) Egindako ebaluazioaren emaitzak jasoko dituen txostena egitea, kapitulu bakoitzak laguntza mota bakoitza baloratzeko eta kuantifikatzeko finkatzen dituen irizpide objektiboe-tan oinarrituz. Txosten horretan informazio hau jasoko da:

i) Baiesteko eskabideei dagokienez:

– Onuradunen izena edo izen soziala, eta IFKa edo NANA.

– Diruz lagundu daitekeen inbertsioa, aplikatutako irizpide objektiboak eta laguntzaren ehunekoa.

ii) Ezesteko eskabideei dagokienez:

– Eskatzaileen izena edo izen soziala, IFKa edo NANA.

– Uko egiteko arrazoiak, eta aginduko zein oinarri urratzen den (edo diren) zehaztuko da.

5.– Agindu honen II., III., IV., V. eta VI. kapituluek arautzen duten laguntza-lerro bakoitzaren barruan, proiektu bakoitzari emango zaion laguntzaren hasierako zenbatekoa kalkulatzeko, aurkezten diren proiektuak konparatuko dira, eta aginduak finkatzen dituen irizpide objektiboak eta balorazioa aplikatuko zaizkie. Aurreko araua aplikatu eta gero, laguntza-lerro bakoitzeko aurkeztutako proiektuen zerrenda egingo da beheranzko ordenan, bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera. Horren ondoren, laguntzak esleitzeko dira ordena horretan, 29., 35., 41., 47. eta 56. oinarrietan ezarritako laguntza-ehunekoak aplikatuta, funts guztiak agortu arte.

6.– Balorazio Batzordeak nahi dituen funtzionamendu-arauak ezarri ahalko ditu, eta horietan xedatzen ez den guztian Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoari jarraituko zaio.

12. oinarria.– Behin-behineko eta behin betiko ebazpen-proposamena.

1.– Balorazio Batzordearen txostena kontuan hartuta, Elikagai Politika eta Industriako zuzendariak behar bezala arrazoitutako behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, eta, horretan, dirulaguntza ematea proposatzen den eskatzailea eta dirulaguntzaren zenbatekoa adierazi beharko dira.

Gainera, dirulaguntzak emateko espedientean organo kudeatzaile horren txostena egongo da, eta txosten horretan jasota geratuko da organo kudeatzailearen esku dagoen informazioaren arabera onuradunek betekizun guztiak betetzen dituztela dirulaguntzak jasotzeko.

2.– Prozeduran interesdunek adierazitakoez bestelako egitateak, alegazioak eta frogak ageri badira edo kontuan hartzen badira, ebazpen-proposamen hori behin-behinekoa izango da, interesdunei jakinarazi behar zaizkie eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko. Alegazio horiek aztertuta, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da.

3.– Entzunaldi-izapidea albo batera utz daitekeen kasuetan –ez dagoelako interesdunek adierazitakoez bestelako egitaterik, frogarik edo alegaziorik–, oinarri honen beraren 3. apartatuaren arabera emandako behin-behineko ebazpen-proposamena behin betikoa izango da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21. artikuluko 3. apartatuan ezarritakoari jarraikiz.

13. oinarria.– Ebazpena, jakinarazpena eta errekursoak.

1.– Behin betiko ebazpen-proposamena egin ondoren, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeak ebatziko du deialdia, ebazpen bakarraren bidez, eta hor jasoko dira eskatutako zein laguntza emango diren eta zein ukatuko.

2.– Abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22. artikuluen 3. apartatuan aurreikusitako eduki guztiak sartu beharko dituzte.

a) Onartutako eskabideei dagokienez:

i) Onuradunen izena edo sozietate-izena, eta IFKa edo NANA.

ii) Enpresa mota, proiektuaren izenburua eta aurkeztutako inbertsioa.

iii) Dirulaguntza jaso dezakeen inbertsioa, laguntzaren intentsitatea eta aurrekontu-ekitaldien arabera banaketa.

iv) Diruz lagundutako kopurua, II. eta III. kapituluetan jasotako laguntzak zehaztuko dira LGENF Europako funtsaren kontura finantzatzen den zenbatekoa eta Euskal Autonomia

Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura finantzatzen den zenbatekoa; LGENF kontrapartidari eta finantzaketa nazional gehigarriari ere zer dagokion zehaztu beharko da.

v) Diruz lagundutako jarduketa guztiak gauzatzeko epea.

b) Ezetsitako eskaerei dagokienez:

i) Eskatzaileen izena edo sozietate-izena, eta IFKa edo NANA.

ii) Uko egiteko arrazoiak, eta aginduko zein oinarri urratzen den (edo diren) zehaztuko da.

3.– Agindua indarrean jarri eta gehienez sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da ebazpena, EHAA-n argitaratuko da, eta horrek jakinarazpen-ondorioak izango ditu, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera. Dena dela, onuradun bakoitzari ebazpen osoa helaraziko zaio, eta, gainera, banakako eranskin baten bidez, ebazpenean bakoitzari berariaz eragiten dioten alderdiak identifikatuko dira, laguntza emateko edo ukatzeko kontzeptuak azalduta, banakatuta eta behar bezala arrazoituta. Nolanahi ere, lehenik egiten den jakinarazpenaren data hartuko da jakinarazpen-datatzat.

Ebazpenen jakinarazpen elektronikoak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

4.– Agindu honek ondorioak dituenetik aurrera sei hilabete igarota, ebazpen espresurik ez badago, eskabidea ukatu egin zaiela ulertu beharko dute interesdunek, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

5.– Prozeduraren ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio interesdunak Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, edozein unetan, administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik aurrera, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluari jarraikiz.

14. oinarria.– Onuradunen betebeharrak.

Laguntzen onuradunek oinarri honetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, zeinak, hain zuzen ere, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluko betekizunak jasotzen baititu, bai eta agindu honen laguntza-lerroetako bakoitzeko betebeharrak espezifikoak ere; honako hauek:

1.– Diruz lagundu daitezkeen inbertsio guztiak exekutatzea, bai hasieran onartutakoak, bai aldatutakoak, laguntza emateko ebazpenean edo, hala badagokio, laguntza luzatzeko ebazpenean ezarritako epean, betiere, dagokion kapituluaren ezarritako gehieneko mugaren barruan.

2.– Dirulaguntza emate-ebazpenaren edo aldatze-ebazpenaren bidez eman den xederako erabiltzea.

3.– Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretan, laguntza eman izanaren ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean onuradunak berariaz onartzen ez badu, isilbidez onartutzat joko da. Laguntza onartzeak berekin dakar onuraduna eragiketen zerrenda publiko batean sartzea. Zerrenda hori elektronikoki edo beste bide batzuetatik argitaratuko da, II. eta III. kapituluaren ezarritakoaren arabera emandako laguntzen kasuan.

4.– Egiaztatzea egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak ere, dirulaguntza emateko behin betiko ebazpen-proposamenaren eman aurretik eta hura ordaintzeko unean.

Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzak egiaztatuko du automatikoki eta ofizioz Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean daudela. Sozietate zibilen eta ondasun-erkidegoen kasuan, egiaztapen hori parte-hartzaile guztiei egingo zaie. Hala ere, eskatzaileak berariaz egin diezaioke uko egiaztatze horri; kasu horretan, adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

5.– Establezimendu berriak Nekazaritza eta Elikadurako Industrien Euskal Autonomia Erki-degoko Erregistroan erregistratu beharko dira, laguntzaren azken ordainketa eskatu aurretik, agindu honen VI. kapituluari atxikitako espedienteak izan ezik.

6.– Dagoeneko erregistratuta dauden establezimenduek eguneratuta izan beharko dituzte datuak NEIEn, azken ordainketa egin aurretik egindako inbertsioekin eta agindu honen VI. kapituluari atxikitako espedienteak izan ezik.

7.– Inbertsioek aktibo jarraitu beharko dute ordainketa osoa egin osteko gutxienez 7 urteetan, ondasun higigarrien kasuan. Ondasun higiezinaren kasuan, jabetza-erregistroan inskribatzen direnetik ondorengo 10 urteetan, eta epe horretan ezin izango dira ez besterendu, ez amortizatu, ez diruz laguntzen den helburua ez den beste helburu baterako erabili. Agindu honen VI. kapituluaren babesean emandako laguntzen kasuan, epea 5 urtekoa izango da bi kasuetan.

8.– Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzari jakinaraztea diruz lagundutako proiektua partzialki edo osorik gauzatu dela eta haren esku jartzea hala egin dela egiaztatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia.

9.– Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea eskatzen zaion informazio guztia, jasotako laguntzak nola erabili diren eta haien helburuak bete ote diren fiskalizatzeko eginkizunen barruan.

10.– Kasu bakoitzean, onuradunari aplikatu behar zaion merkataritza-legeriak eta sektore-legeriak eskatutako moduan ikuskatutako kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako dokumentu guztiak izatea, deialdi bakoitzean finantzatutako inbertsioarekin lotutako inbertsio eta gastu guztietarako, araudiak finkatzen dituen kontrolak egin ahal izateko.

11.– Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikokoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduerak gauzatzeko erabil baitaitezke; gutxienez, 5 urtez gorde beharko dira, azken ordainketa jasotzen denetik aurrera.

12.– Baldin eta beste administrazio batek edo ente publiko edo pribaturen batek helburu bere-rako ematen duen beste dirulaguntza edo laguntzarik eskuratzen bada, horren berri ematea Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzari, idatziz, beste laguntza edo dirulaguntza eskuratu izanaren berri izan eta hurrengo hamabost egun naturalen barruan eta, betiere, funts publikoen erabilera justifikatu aurretik.

13.– Baldin eta dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintza objektibo edo subjektiboak aldatzen badira, horren berri ematea Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzari, idatziz, baldintzak aldatu izanaren berri izan eta hurrengo hamabost egun naturaletan eta, betiere, funts publikoen erabilera justifikatu aurretik.

14.– Laguntzaren zenbatekoa ezartzeko kontuan izan bada enpresaren batez besteko enplegua handitzeko irizpidea, 28., 34., 40. eta 46. oinarrietan ezarritako baldintzetan, eutsi egin beharko zaio horri, onuradunari laguntzaren azken ordainketa egiten zaionetik hurrengo bost urteetan gutxienez.

15.– II. eta III. kapituluekin bat ematen diren laguntzei dagokienez, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 27. artikuluan xedatutakoa aplikatuta, diruz laguntzeko xede diren inbertsio guztietan ikusteko moduan eta agerian jaso beharko da, baita horiei buruz argitaratzen den informazio edo publizitate guztian ere, finantzaketa publikoa dela: alde batetik, LGENF funtsak dituela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko (EB) 2021/1060 Erregelamenduaren 50. artikulua arabera, eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren funtsak dituela, abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuak araututako Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan ezarritakoaren arabera.

16.– Agindu honen IV., V. eta VI. kapituluekin bat ematen diren laguntzei dagokienez, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 27. artikuluan xedatutakoa aplikatuta, diruz laguntzeko xede diren inbertsio guztietan ikusteko moduan eta agerian jaso beharko da, baita horiei buruz argitaratzen den informazio edo publizitate guztian ere, finantzaketa publikoa dela, hau da, Eusko Jaurlaritzaren funtsak dituela, abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuak araututako Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan ezarritakoaren arabera.

17.– Enpresa-deslokalizaziorik ez egitea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluari jarraikiz.

18.– Ikuspegi intersektzionala eta, bereziki, sexuari eta generoari dagokion alderdia errespetatzen dituen hizkera eta irudiak erabiltzea dirulaguntza jasotzen duen jardura edo proiektuak behar dituen agiri eta material guztietan.

19.– Herritarren hizkuntza-eskubideak eta, bereziki, euskararen erabilera bermatzea, diruz lagundutako jarduketarekin zerikusia duten argitalpenetan, iragarkietan eta publizitatean.

15. oinarria.– Gauzatzeko gehieneko epeak.

1.– Urtebetean edo zenbait urtetan gauzatu ahalko dira inbertsio-proiektuak.

2.– Proiektu horiek zenbait urteetarako izan daitezke, baldin eta inbertsioetan obra edo instalazio tekniko industrialak sartzan badira eta Elikagaien Politika eta Industriako zuzendariak onartzen baditu.

3.– Urtebete irautean duten inbertsioak gauzatzeko epea 2026. urteko urriaren 31ra artekoa izango da, baina luzatu egin ahal izango da, 18. oinarriaren 5. apartatuan xedatutakoarekin bat. Nolanahi ere, epea luzatzen bada, 2027ko urriaren 31ra artekoa izango da gehieneko epea.

4.– Zenbait urte irautean duten inbertsioak exekutatzeke gehieneko epea 2027. urteko urriaren 31ra artekoa izango da; baina, luzatu egin daiteke, 18. oinarriaren 5. apartatuan ezarritakoarekin bat, gehienez ere, 2028ko urriaren 31ra arte.

16. oinarria.– Inbertsioa gauzatu dela justifikatzea.

1.– Emandako laguntzaren xede den inbertsioa gauzatu dela justifikatzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzan, proiektua gauzatzeko gehieneko epea amaitu eta gehienez ere hurrengo 15 egunetan:

a) Egindako jarduketak justifikatzeko memoria bat; informazio hau jaso behar da: proiektua egin dela, exekuzio-maila eta diruz lagundu daitezkeen gastuek ez dutela merkatuaren

balioa gainditzen. Era berean, onartutakoaren (hasieran edo aldaketa bidez) eta justifikatuaren arteko edozein alde azaldu beharko da.

b) Ondasun higiezinak erostea lagundu bada diruz, salerosketa egiaztatzen duen dokumentu publikoaren kopia aurkeztuko da. Eraikuntza berriaren kasuan, ikus-onetsitako obraren azken ziurtagiriaren kopia eta eraikin hori dagokion erregistroan inskribatu izanaren egiaztagiria.

c) Udal-araudiak hala eskatzen badu, inbertsioak egin izanaren udal-lizentzia. Lizentzia eta baimen horiek eskatzea ez bada nahitaezkoa, gorabehera hori behar bezala egiaztatzen duen froga aurkeztu beharko da.

d) Fakturak eta froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentuak, baliozkoak direnak merkataritzako trafiko juridikoan, edo administrazio-eraginkortasuna dutenak.

e) Excel taula xehatua, fakturei eta egindako ordainketei buruzko datuekin, hala nola fakturazioaren eta ordainketaren datak eta erreferentziak, hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eurotan eta aplikatutako zergak. Taula horretan, egindako gastua eta hasieran onetsitakoa edo onartutako azken aldaketan jasotakoa alderatuko dira inbertsio bakoitzerako.

f) Erantzukizunpeko adierazpen bat, zehazten duena fakturak eta ordainketak justifikatzeko gainerako egiaztagiria ez direla aurkeztu diruz lagundu daitezkeen beste programa batzuk justifikatzeko edo, hartarako aurkeztu badira, zehazten duena zer programa justifikatzeko aurkeztu diren eta faktura edo egiaztagiri bakoitzaren zer ehuneko lagundu den diruz. Kasu horretan, jasotako beste dirulaguntzen emate-ebazpenak aurkeztu beharko dira.

g) Laguntzaren zenbatekoa ezartzeko, enpresaren batez besteko enplegua handitzea erabili bada proiektuak baloratzeko irizpide gisa, 28., 34., 40. eta 46. oinarrietan ezarritako baldintzetan, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egindako «alta emanda dauden plantillako langileen batez besteko kopuruari buruzko txostena» aurkeztuko da, laguntzaren azken ordainketa egin aurreko 30 egunetan. Ondorio horietarako, baliozkoa izango da borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundearen ziurtagiria, lan elkartuko kooperatibetan.

2.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzak ofizioz egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla. Sozietate zibilen eta ondasun-erkidegoen kasuan, egiaztapen hori parte-hartzaile guztiei egingo zaie.

Hala ere, eskatzaileak berariaz egin diezaioke uko egiaztatze horri; kasu horretan, adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Gainera, dirulaguntza-eskaera aurkezteak berarekin dakar eskatzaileak baimena ematea Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzak zuzenean jaso dezan beste edozein administrazio publikok egindako dokumentazio guztia.

3.– Elikagaien Politika eta Industriako zuzendariak agiri gehiago eskatu ahal izango ditu, egoki baderitzo. Eskaera hori arrazoitu egin beharko da.

17. oinarria.– Ordainketak.

1.– Laguntza zuzenean ordainduko zaie onuradunei, finantza-errentamenduen edo esku-bide-lagapenen kasuan izan ezik.

2.– Agindu honetan jasotako laguntza guztiei dagokienez, bi ordainketa partzial egin ahal izango dira urte bakoitzean, betiere, interesdunak eskatzen badu. Ordainketa partziala egiteko, onuradunak hasieran onetsitako laguntzaren xede den proiektuko zenbatekoaren % 70 gutxienez exekutatu dela justifikatu beharko du. Proiektuak hainbat urtetan gauzatzekoak badira, ekitaldi bakoitzean egingo da urte bakoitzean egindako inbertsioen edo gastuen ordainketa, bat etorriz Euskadiko aurrekontu-araubidearen alorrean indarrean dauden eta maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioei eta partzuergoei aplikatu dakiekeen aurrekontu-araubidea arautzen duten legezko xedapenen testu bateginaren 111. artikuluko 5. paragrafoan xedatutakoarekin.

3.– Ordainketak egin aurretik, emandako laguntzaren xede den inbertsioa exekutatzeke eskaera eta justifikazioa egin beharko dira aurreko oinarriak aipatzen dituen dokumentuen bidez, eta Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzako teknikariek proiektuaren exekuzioari buruzko kontrola egin beharko dute. Kontrol hori gehienez ere hilabeteko epean egingo da onuradunak ordainketa-eskabidea aurkeztu duenetik.

4.– Ordainketa egiteko eskabidearekin batera, 16. oinarriaren 1. apartatuan aipatzen diren agiriak aurkeztuko dira. Dokumentazio hori osatu eta gehienez ere hilabete batean, Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzak egin beharreko izapideak egingo ditu, Ogasun eta Finantza Sailak ordainketa egin dezan.

5.– Emandako laguntzaren xede den inbertsioak gehieneko epeen barruan egiten ez badira, luzapenak barne, edo emandako laguntzaren xede den inbertsioa egin izanaren egiaztagiria epe barruan aurkezten ez badira, ondorio hauek sortuko dira:

– LGENF funtsaren kontura finantzatzen den laguntza-zatiari dagokionez, LGENF funtsaren kargurako ordainketaren konpromisoa bertan behera geratzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko (EB) 2021/2116 Erregelamenduaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera. Erregelamendu hori nekazaritza-politika erkidearen finantzaketari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa da eta 1306/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen du.

– Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura finantzatzen den laguntzari dagokionez, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galtzea eta, kasuan-kasuan, 20. oinarriak dirulaguntzak itzularazteko xedatzen duen prozedura hastea.

18. oinarria.– Dirulaguntzak emateko baldintzak aldi berean gertatzea eta aldatzea, eta inbertsioa egiteko epeak luzatzea.

1.– Aldi berean beste entitate publiko nahiz pribatu batetik beste laguntza edo dirulaguntzaren bat jasoz gero, idatziz justifikatu eta jakinarazi beharko zaio Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzari, eta, horren ondorioz, gerta liteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea; kasu horretan, dena dela, agindu honetan ezarritako betekizunak eta laguntza ematea eragin zuen helburua gorde beharko dira. Horretarako, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburordeak dagokion aldaketa-ebazpena emango du, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak oinarri berriaren arabera doitzeko, horrela badagokio, eta, beharrezkoa izanez gero, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan aurreikusitako prozedura aplikatuko da.

2.– Aurkeztutako inbertsio-proiektuan (hau da, emandako dirulaguntzaren xede den hartan) edozein aldaketa eginez gero, onuradunak jakinarazi eta behar bezala justifikatu beharko du Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzan, inbertsioak egin aurretik eta 3 hilabe-

teko gehieneko epean, dirulaguntza emateko ebazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Aurkeztutako inbertsio-proiektuan eta dirulaguntza jaso duen inbertsio-proiektuan funtsezko aldaketak egiten badira, laguntza emateko ebazpena Elikadurako eta Landa Garapeneko sail-buruordeak aldatzea ekarriko du.

Hauek hartuko dira funtsezko aldaketatzat:

- a) Laguntzaren onuraduna aldatzea, enpresek bat egitea edo sozietate mota eraldatzea salbu.
- b) Emandako laguntzaren xede den inbertsioa gauzatzeko egutegia aldatzea.
- c) Inbertsioen kokapena aldatzea.
- d) Inbertsioaren kontzeptuak aldatzea, hasieran onartutako inbertsioez gain beste batzuk ere sartuz.
- e) Hasieran onartutako inbertsioetako bat edo gehiago ez exekutatzea.

Ez dira onartuko aldaketa gisa, hasieran emandako laguntzaren xede den inbertsioa % 70 baino gutxiago exekutatzea dakarten aldaketak. Hortik behera exekutatzea ez-betetzea izango da.

Aldaketek ez dute inoiz ekarriko emandako laguntza handitzea.

Aldaketak ez badira funtsezkoak, ez da aldatuko laguntza emateko ebazpena, kontuan harturik, nolanahi ere, oinarri honen 4. apartatuan aurreikusitakoa gerta daitekeela.

3.– Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren balorazio-irizpideak aplikatzean aldaketaren bat egiten bada eta emandako laguntzaren zenbatekoarekiko beheranzko desbideratzea eragiten badu, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murrizteko ebazpena emango da dirulaguntzaren ehuneko berria aplikatzeetik ateratzen den proportzio berean, eta, hala badagokio, behar ez bezala jasotako zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaio hilabeteko borondatezko epean, dirulaguntza murrizteari eta itzultzeari buruzko ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Borondatezko epe horretan itzulketarik egiten ez bada, dagokion itzulketa-prozedura hasiko da Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

4.– Baldin eta egindako inbertsioaren behin betiko benetako kostua txikiagoa bada onartutako eta laguntza emateko erreferentziazat hartutako aurrekontua baino, eta laguntza helburu bererako erabiltzen bada, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da dagokion proportzioan, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordearen aldaketa-ebazpenaren bidez, eta, beraz, dirulaguntzaren ehuneko aplikatuko zaio diruz lagundu daitekeen inbertsioaren zenbateko berriari. Ez da onartuko hasiera batean onetsitako dirulaguntzaren xede den inbertsioaren % 70, gutxienez, ez exekutatzea dakarren aldaketarik.

5.– Onuradunak aldeztu aurretik eta idatziz eskatzen eta arrazoitzen badu –laguntza emateko ebazpenaren arabera emandako laguntzaren xede den inbertsio-gauzatzea bukatu behar den eguna baino lehenago aurkeztu beharko luke eskabidea–, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeak emandako laguntzaren xede den inbertsioa gauzatzeko epea luzatu ahal izango du, ebazpen bidez, non zehaztuko baita gehienez zenbat luza daitekeen, hasieran

onartutako dirulaguntzari eutsita. Ebazpenean, luzapenaren gehieneko iraupena finkatuko da, eta, alde horretatik, proiektuak gauzatzeko gehieneko epea inola ere ez da izango 15. oinarriak xedatzen duena baino luzeagoa.

Luzapenak honako kasu hauetara mugatuko dira:

- Eraikuntza-beharrak, obra-zuzendaritzaren txostenarekin baliozkotuta.
- Makineria berandu entregatzea, behar bezala justifikatuta eta hornitzaileen ziurtagiriak aurkeztuta.
- Lizentziak emateko atzerapena, behar bezala justifikatuta.

19. oinarria.– Atzera egitea eta uko egitea.

1.– Laguntzaren eskatzaileak atzera egin ahalko du eskabidean, eskatutako laguntzak emateko prozedurako ebazpena jakinarazi baino lehen. Jasota dagoela ahalbidetzen duen edozein bide erabiliz egin ahal izango da, baldin eta dagozkion sinadurak baditu. Elikagaien Politika eta Industriako zuzendariak, ebazpenaren bidez, guztiz onartuko du atzera-egite hori, eta prozedura bukatutzat joko du.

2.– Laguntzaren onuradunak uko egin ahal izango dio emandako laguntzari. Uko egin ahalko da, laguntza onartu ondoren ere –14. oinarriko 3. paragrafoan ezarritako betebeharrari jarraikiz,–, baina, betiere, inbertsioa amaitu aurretik, eta baldin eta Administrazioak inolako ordainketarik egin ez badu. Uko-egitea jasota uzten duen edozein bide erabiliz egin ahal izango da, baldin eta dagozkion sinadurak baditu. Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburordeak, ebazpenaren bidez, bete-betean onartuko du uko-egite hori, eta amaitutzat emango du prozedura. Behin uko-egitea onartuta, onuradunak automatikoki galduko du ebazpen bidez onartutako eskubidea, bai eta emandako laguntza kobratzeko eskubidea ere.

20. oinarria.– Ez-betetzeak.

1.– Honako hauek dira, gutxienez, ez-betetzeen kausak:

- a) Agindu honetan ezarritako betebeharretakiko edozein ez betetzea.
- b) Ez betetzea dirulaguntza emateko ebazpenean ezartzen diren baldintzak, halakorik iza-nez gero.
- c) Laguntza emateko xedea ez betetzea edo ez mantentzea.
- d) Dokumentu faltsuak edo manipulatuak aurkeztea.
- e) Hasieran onartutako edo gerora aldatutako laguntzaren xede den proiektuko inbertsio guztiak ez egitea.
- f) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan aurreikusitako itzulketa-kausaren batean egotea.

2.– Onuraduna aurreko apartatuan zerrendatutako ez-betetzeen kausetako edozeinetan egongo balitz, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburordeak eskubidea ez-betetzeagatik galtzeari buruzko espediente egin ondoren –espediente horretan, entzunaldia emango zaio interesdunari, 15 eguneko epean egokitzen jotzen dituen alegazioak egin ditzan–, ebazpen bidez deklaratu du dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu duela, osorik edo zati batean, eta, hala badagokio, kobratu dituen laguntzak eta dagozkion legezko interesak itzuli beharko

dizkio onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, partez edo osorik, proiektuaren exekuzio-mailaren arabera, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan xedatuarekin bat; eta dagozkion gainerako neurriak hartuko dira. Ez-betetzea inbertsioei eusteko epeari badagokio, emandako dirulaguntzaren itzulketa «prorrata temporis» egingo da.

Diru-zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira legezko ondorio guztietarako, Dirulaguntzen araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 38. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.– Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritza izango organo eskuduna itzulketa-espedientearen abiarazi eta izapidetzeko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40.1 artikuluan adierazitako deskontzentrazioaren arabera.

4.– Administrazioako arau-hauste baten ondorioz hasi bada itzultze-prozedura, egitate horiek eskumena duen organoari jakinaraziko zaio dagokion zehatze-prozedura hasteko. Administrazioako arau-hausteak izango dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 56., 57. eta 58. artikuluetan jasotako jokabideak.

21. oinarria.– Zigorrak.

1.– Eskatzen den laguntza osorik ukatu ahal izango da zalantzarik gabe, baldin eta egiaztatzen bada onuradunak datu edo informazio okerra eman duela laguntza jasotzeko asmoz.

Gainera, onuraduna laguntza edo esku-hartze beretik kanpo geratu daiteke irregulartasuna atzeman den urte naturalean, eta hurrengo bi urte naturaletan.

2.– Eskatutako laguntza osorik ukatu daiteke, baldin eta laguntzen onuradunak kontrol-jarduketari aurka egiten badie, oztopoak jartzen badizkie, aitzakiak jartzen badizkie edo uko egiten badie. Inguruabar horiek daudela ulertuko da, baldin eta onuradunak, behar bezala jakinarazita egonda, kontrol-jarduketak luzatzeko, oztopatzeko edo eragozteko jarduerak egin baditu.

3.– Eskatutako laguntza guztien % 100era arte murriztu ahal izango da, baldin eta laguntza hori jasotzeko eskatzen diren baldintzak eta betebeharrak betetzen ez badira, ingurumen-alderdiak barne, edo laguntza hori kudeatzeko behar den informazioa ematen ez bada zabarkeriaren ondorioz.

Gainera, onuraduna hurrengo urte naturalean dirulaguntza hori jasotzetik baztertuta gera daiteke.

4.– Murrizketa horiek handiagoak izan daitezke behin eta berriz egiten badira, edo % 100eko murrizketa egin daiteke ez-betetzeak nahita egiten badira, ingurumen-baldintzei buruzkoak barne, arrazoitutako erabaki baten bidez.

5.– Artikulu honetan aurreikusitako penalizazioak ez dira zehapentzat hartuko, eta bateragarriak izango dira dagozkien bestelako zehapenekin.

6.– Gainera, bat etorri otsailaren 28ko 1047/2023 Errege Dekretuaren 5. artikuluekin (dekretu horren bidez, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoan jasotako esku-hartzeetan zigorrak aplikatzeko arauak ezartzen dira eta 2023-2027 aldirako Nekazaritza Politika

Erkidea Espainian aplikatzearekin lotutako zenbait alderdi arautzen dituzten errege-dekretu batzuk aldatzen dira), ez da inolako penalizaziorik aplikatuko kasu hauetan:

- a) Ez-betetzea ezinbesteko kausengatik bada, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko (EB) 2021/2116 Erregelamenduaren 3. artikuluan xedatzen denarekin bat. Onuradun batek «ezinbesteko kasuetan izan ezik» formula erabili nahi badu, agiri bidezko froga ukaezina aurkeztu beharko dio dagokion agintari eskudunari, hondamendi natural larriaren edo fenomeno meteorologiko larriaren kasuan izan ezik.
- b) Ez-betetzea agintari eskudunek aitortutako akats nabarien ondorioa bada.
- c) Ez-betetzea agintari eskudunaren edo beste agintari baten akats baten ondorioa bada, eta administrazio-zigorak eragindako pertsonak ezin izan badu akatsa zentzuz detektatu.
- d) Interesdunak agintaritza eskudunari egoki frogatu badiezaioke ez dela betebeharrak ez betetzearen erantzule edo agintaritza eskudunak, bestela, interesduna erantzulea ez delako ustea hartzen badu.

22. oinarria.— Bateragarritasunak.

1.— Agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein entitate publiko edo pribatuk helburu bererako ematen duen beste edozeinekin; betiere, dirulaguntza guztien batura ez bada handiagoa agindu honen kapitulu bakoitzak finkatzen dituen gehieneko ehunekoak baino. Handiagoa bada, berriz, gehiegizko kopuruari dagokion zenbatekoa kenduko zaio.

2.— VI. kapituluaren xedatutako laguntzek Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarrita dauden de minimis arauak errespetatuko dituzte.

Aipatutako de minimis erregelamenduaren arabera, enpresa batek, gehienez, 300.000 euro jaso ditzake laguntzen multzo osoagatik, aurreko hiru urteetako edozein alditan. Kontuan hartu behar den hiru urteko aldia etengabe ebaluatu behar da. De minimis laguntza berri bat ematen den bakoitzean, aurreko hiru urteetan emandako de minimis laguntzen zenbateko osoa hartu behar da kontuan.

Adierazitako muga gaindituz gero, soberakinari dagokion zenbatekoa kenduko zaio deialdi honetan emandako laguntzari, organo emailearen ebazpen baten bidez, entitate onuradunari entzun ondoren.

23. oinarria.— Datuen babesa.

Agindu hau aplikatzean jasotako datu pertsonalak nekazaritza- eta elikagaigintza-produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko edo garatzeko laguntzei buruzko fitxategian jaso eta tratatuko dira, zeinaren helburua baita agindu honen bidez deitutako laguntza-espedienteak izapidetzea eta ebaztea.

Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritza da fitxategiaren arduraduna, eta Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren aurrean gauzatuko ditu dagozkion eskubideak.

Eta hori guztia Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta indarreko gainerako araudian xedatutakoari jarraikiz egingo da.

Eskubideak: eskubidea duzu zure datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko; era berean, informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere badituzu (www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842/).

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta xehea duzu gure web-orrian: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/001600-cap2-eu.shtml>

Araudia:

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>).

II. KAPITULUA

LEHIATU NEKAZARI

EUROPAR BATASUNAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO TRATATUAREN I. ERANSKINEAN JASOTAKO PRODUKTUAK ERALDATZEKO, MERKATURATZEKO EDO GARATZEKO INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZAK (AURRERANTZEAN, TRATATUA), ARDOA ETA ARRAINAK, KRUSTAZEOAK ETA MOLUSKUAK IZAN EZIK.

24. oinarria.— Xedea eta helburua.

1.— Laguntza hauen xedea Tratatuan aurreikusitako produktuetatik lortutako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta garatzeko inbertsioak egitea da, ardoa, arrainak, krustazeoak eta moluskuak izan ezik. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko (EB) 2021/2115 Erregelamenduaren esparruan sartzen dira. Erregelamendu horren bidez, nekazaritza-politika erkidearen esparruan estatu kideek egin beharreko plan estrategikoe-tarako (NPEaren plan estrategikoak) laguntzari buruzko arauak ezartzen dira —Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatuta— eta 1305/2013 (EB) Erregelamendua eta 1307/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen dira. Halaber, Espainiako NPEaren 2023-2027 aldirako Plan Estrategikoaren esparruan ere sartzen dira (Europako Batzordeak 2022ko abuztuaren 31n onartua, C (2022) 6017 Erabakiaren bidez, eta gerora, lau aldiz aldatua, C(2023)5746, C(2024)6133, C(2025)5713 eta C(2025)8557 Erabakien bidez).

2.— Hauek dira kapitulu honetako laguntzen helburuak:

Produktuen integrazio handiagoa sustatzea elikakatean, eta, horretarako, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategien eraldaketa-, garapen- eta merkaturatze-lana bultzatuko da, gure nekazaritzako elikagaien kooperatiba eta enpresen pisu ekonomikoa eta enplegua, eta horiek Euskadiko ekoizpen-sektorean betetzen duten trakzio-eginkizuna sendotuz.

EAEn kokatutako nekazaritzako elikagaien enpresen efizientzia energetikoa, ura aurreztea eta araztea, eta hondakinen eta azpiproduktuen aprobetxamendua areagotzea, ingurumen-inpaktua arintzen lagunduz.

3.— Hautagarritasun-baldintzak.

a) Inbertsioek Tratatuaren I. eranskinean jasotako nekazaritza-produktuak (ardoa izan ezik) eraldatu, merkaturatu edo garatzeko ekoizpen-prozesuei lotuta egon behar dute.

b) Gehigarri baimenduak eta beste elikagaigintza-produktu batzuk erabili ahalko dira ekoizpen-prozesuan, betiere eraldatutako bolumenaren % 20 baino gehiago ez badira.

c) Inbertsioek ez dute martxan egon behar eskabidea aurkezten denerako. Betekizun horretatik salbuetsita egongo dira obra-proiektuaren ordainsariak. Baldintza hori betetzen dela ziurtatzeko, Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzak ikuskapen-lanak egingo ditu in situ.

25. oinarria.— Onuradunak.

1.— Pertsona fisiko eta juridiko pribatuak izan ahalko dira kapitulu honek arautzen dituen laguntzen onuradun: batetik, nekazariak eta nekazari-elkarteak eta, bestetik, ekoizpen-establezimendua EAEn duten nekazaritza-kooperatibak eta nekazaritzako elikagaien enpresak; betiere, Tratatuaren I. eranskinak aipatzen dituen nekazaritza-produktuak eraldatzen, merkaturatzen edo garatzen badituzte eta proiektu aukeratuak izateko baldintzak betetzen badituzte.

2.— Ezin izango dira onuradun izan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateak, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

26. oinarria.— Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak.

Kapitulu honen esparruan, inbertsio hauek hartuko dira diruz laguntzeko modukotzat:

1.— Nekazaritzako elikagaien artisau-eraldaketa. Alegia, Euskadiko elikagaien artisau-ekoizpenari buruzko uztailaren 3ko 126/2012 Dekretuak finkatzen dituen baldintzetan beren ekoizpena elikagaigintza-sektorearen barruan eraldatzen, garatzen eta merkaturatzen duten nekazaritza-ustategietan egindako inbertsioak.

2.— Nekazaritzako elikagaien enpresetan egiten diren eraldaketak. Produktua egiteko prozesuaren berezko eragiketak, lehengaiak jasotzen denetik amaitutako produktua biltegiaritzen den arte, ekoizpen-prozesuak kontrolatzeko sistemak barne. Bereziki, honako hauek:

a) Enpresak nekazaritzako elikagaien katean areago integratzeko inbertsioak, bitartekarien kopurua txikitzeko, hornitzaile eta bezeroen arteko harremanak sendotzeko eta lehen sektoreko ekoizpenetik tira egiteko.

b) Enpresen tamaina edo nazioartekotzea handituko duten inbertsioak, kantitateari eta erregulartasunari dagokienez haien eskaintzaren baldintzak hobetzeko jardueren bidez.

c) Gehiago ordaintzen den merkatuetan jarduteko inbertsioak, Euskal Autonomia Erkidegoak zein kanpokoak izan.

3.— Kudeaketa eta kalitatea hobetzea. Produktuen kalitatea kontrolatzeko prozesuaren barruko egiteko oro: lehengaiak iristen direnean laginak hartzea, produktuak egiteko prozesua kontrolatzea, produktuen trazabilitatea ziurtatzea, kalitate-sistemak erabiltzea edo elikagaien kalitatea bermatzeko arauak ezartzea.

4.— Egitura operatiboa hobetzea, prozesuak automatizatuz.

5.— Produktu eraldatuak ahalik eta modu eraginkorrean merkaturatzeko elementu komertzial oro: biltegiak, bulego komertzialak, merkaturatze-sareak garatzeko azpiegitura. Bereziki, honako hauek:

a) Produktuak lantzeko instalazioen ondoan dauden zuzeneko salmenta-guneak, erakusketak eta aretoak eta dastalekuak barne.

b) Puntu horietan, produktuak erakusteko edo saltzeko beharrezkoa den ekipamendua.

6.– Ingurumena hobetzearekin lotutako inbertsioak. Ekoizpen-jarduerak ingurumenean duen eragina txikitzeko inbertsioak (dekantagailuak, araztegiak, ur-tratamenduak, gas-iragazketa...). Kasu hauetan, bi enpresa edo gehiagok elkarrekin parteka dezakete inbertsioa, lankidetzak-akordio bidez, baina bakarrik izango da inbertsioaren arduradun eta laguntzaren onuradun.

7.– Nekazaritza eta Elikadurako Industrien Erregistroan (NEIE) inskriba daitezkeen establezimenduek egindako inbertsioak, nekazaritza-produktuak eta elikagaiak biltegiratzeko, garbitzeko, hautatzeko, ontziratzeke eta kontserbatzeko prozesuei lotuta, betiere ekoizpen primarioari eta elikakatearen lehen mailari lotutako jarduerari badagozkie.

27. oinarria.– Diruz lagunduko ez diren inbertsioak.

Kapitulu honen esparruan, 8. oinarrian xedatutakoez gain, honako hauek ere ez dira lagunduko diruz:

1.– Mahastizaintzako eta Ardogintzako Espainiako Esku-hartze Sektorialak (2023-2027) babesten dituen mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreko inbertsioak, hura indarrean dagoen bitartean edo proiektu berriak babesteko dauzkan funtsak agortu bitartean.

2.– Laguntza jaso dezaketen inbertsioak, baldin eta Fruta- eta barazki-ekoizleen elkarte (FBEE) bateko kideak dituzten ustategiei eragiten badiete edo FBEE batek sustatzen baditu, eta haien funts operatiboetatik eskatu bada dirulaguntza.

3.– Basogintza sektorekoak eraldatzeko, merkaturatzeko eta garatzeko inbertsioak, (III. kapitulan diruz lagundu badaitezke) zein arrantzakoak eta akuikulturakoak.

4.– Bigarren eskuko ekipamenduak erostea. Nekazaritzako elikagaien artisau-erlaketarako proiektuen barruan, ordea, bigarren eskuko ekipoak erosten lagundu ahal izango zaie sektorean lehen aldiz instalatzen diren titularrei, baldin eta titularrek eskuratzen duten ustategiko ondasunak badira, eta azken 10 urteetan finantzaketa publikoarekin lagundu ez bazaie.

28. oinarria.– Inbertsio-proiektuen balorazioa.

1.– Kapitulu honetan jasotako inbertsio-proiektuen balorazioa oinarri honetan ezarritakoaren arabera egingo da; kuantifikazioa, berriz, 29. oinarrian xedatutakoaren arabera. Proiektu bakoitzari eman beharreko puntuazio zehatza kalkulatzeko, bete beharreko hurrengo balorazio-irizpideak eta dagozkien puntuazioak hartuko dira kontuan.

2.– Irizpide horiek laguntza-eskabidea aurkezteko unean bete eta egiaztatu behar dira, salbu eta enplegua sortzeko irizpidean eta enpresa sortu berrien kasuan; kasu horietan, betetzearen erantzukizunpeko adierazpena onartuko da.

3.– Erantzukizunpeko adierazpenaren xede diren irizpideak betetzen direla ordainketa egin aurre-aurreko unean egiaztatu beharko da.

4.– Hauek dira irizpideak eta balorazioak:

a) 25 puntu emango zaizkie EAEko Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordeak estrategiko eta traktoretzat jotzen diren sektore edo azpisektoreetan egiten diren inbertsio-proiektuei, bat etorritik martxoaren 27ko 44/2012 Dekretuarekin (Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaintzako Kontseiluaren eta Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordearen eginkizunak eta barne-araubidea zehazten ditu).

Elikagaien Politika eta Industriako zuzendariaren ebazpenaren bidez emango da jakitera zein diren estrategiko eta traktoretzat jotzen diren sektore edo azpisektoreak; ebazpen hori EHAA-n argitaratuko da, Balorazio Batzordea eratu aurretik.

b) Baldintza hauetako bat edo gehiago betetzen duten inbertsio-proiektuei 15 puntu emango zaizkie:

- i) Emakumeek sustatutako inbertsio-proiektuak. Enpresa pertsona fisikoa ez bada, haren sozietate-partaidetza % 50ekoa edo altuagoa izatea baloratuko da.
- ii) Langileen % 40 emakumeak dituzten enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak.
- iii) Emakume batek kudeatzen edo administratzen dituen enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak.
- iv) Administrazio-organoetan, emakumeek gutxienez % 50eko proportzioan parte hartzen duten enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak.

c) Gazteek (41 urtetik behera) enpresa berriak sortzeko sustatutako inbertsio-proiektuei 10 puntu emango zaizkie. Enpresa berria pertsona fisikoa ez bada, kapital sozialean duten partaidetza % 50ekoa edo handiagoa izatea baloratuko da.

Enpresa berria ez bada, 5 puntu emango zaizkie gazteek (41 urtetik beherakoek) sustatutako inbertsio-proiektuei. Enpresa pertsona fisikoa ez bada, enpresa berriaren zuzendaritza-organoan duen partaidetza % 50ekoa edo handiagoa izatea baloratuko da.

d) Inbertsio-proiektu hauei 4 puntu emango zaizkie:

- i) Enpresa berriak sortzeko proiektuak, baldin eta laguntza eskatzen denetik laguntza ordaintzen den arte gutxienez hiru lanpostu sortzen badituzte eta lanpostu horiek bost urtez mantentzen badituzte, laguntzaren azken ordainketaren datatik aurrera. Sortu eta lehenengo bi urteetan, enpresa berritza joko dira.

Sortutako enpleguaren erdia edo gehiago emakumeek betetzen badute, puntu bat gehiago emango da.

- ii) Sortu berriak ez diren enpresen kasuan, laguntza eskatzen denetik laguntzaren azken ordainketa eskatzen den arte enpresako enplegua gutxienez % 10 handitzen duten eta hori 5 urtez mantentzen duten inbertsio-proiektuak izatea. Sortutako gutxieneko enpleguak lanaldi osokoa izan beharko du. Kontuan hartuko den enpleguari buruzko datua hau izango da: laguntza-eskabidea aurkeztu aurreko urteko batez besteko enpleguaren eta eskabidea aurkeztu aurreko hilabeteko batez besteko enpleguaren arteko kopururik handiena.

Sortutako enpleguaren erdia edo gehiago emakumeek betetzen badute, puntu bat gehiago emango da.

e) Proiektuko makina-inbertsioei dagokienez, puntu hauek emango dira:

- i) Diruz lagundu daitekeen inbertsioan, makineria duten proiektuak, batera hartuta, diruz lagundu daitekeen inbertsio guztiaren % 70 baino gehiago badira: 10 puntu.
- ii) Diruz lagundu daitekeen inbertsioan, makineria duten proiektuak, batera hartuta, diruz lagundu daitekeen inbertsio guztiaren % 50 eta % 70 artean badaude: 7 puntu.

- f) Proiektuko instalazio tekniko industrialen inbertsioei dagokienez, puntu hauek emango dira:
- i) Diruz lagundu daitekeen inbertsioan instalazio tekniko industrialak dituzten proiektuak, baldin eta, batera hartuta, diruz lagundu daitekeen inbertsio guztiaren % 70 baino gehiago badira: 6 puntu.
 - ii) Diruz lagundu daitekeen inbertsioan, instalazio tekniko industrialak dituzten proiektuak, baldin eta, batera hartuta, diruz lagundu daitekeen inbertsio guztiaren % 50 eta % 70 artean badaude: 3 puntu.
- g) Proiektuko makinerian egindako inbertsioa % 50era iristen ez bada eta instalazio tekniko industrialetan egindako inbertsioa ere ez bada % 50era iristen, baina makineria eta instalazio tekniko industrialetan egindako inbertsioen guztizko batura proiektuko inbertsioen % 50 edo gehiago bada, 10 puntu emango dira.
- h) Lurralde-orekako irizpideari dagokionez, elkarren artean metatu ezin diren puntu hauek emango dira:
- i) 1. zaurgarritasun mailako arreta bereziko eremuetan (ABE) dauden enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak: 5 puntu.
 - ii) 2. zaurgarritasun mailako eremuetan dauden enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak, indarrean dagoen landa-zonifikazioko dibertsifikazio ekonomikoko maparen arabera, edo lehentasuneko jarduketa-eremuetan (LJE) daudenak: 3 puntu, baina ezingo dira aurreko puntuekin metatu.
- i) Puntu hauek emango zaizkio EAEko lehengaia erabiltzeari edo kalitate-araubideak ezartzeari:
- 1) Nekazaritzako produkzio-sektoreak garatutako inbertsio-proiektuak izatea, hau da, erabilitako lehengai gehiena eskatzailearena berarena izatea: 6 puntu.
 - 2) Proiektuan erabiltzen diren lehengaien % 70, gutxienez, EAEn ekoizitakoak izatea: 6 puntu.
 - 3) Proiektuan erabiltzen diren lehengaien % 30etik % 70era bitartean EAEn ekoizitakoak izatea: 4 puntu.
 - 4) Proiektuaren bidez ekoizten den guztiaren % 70 baino gehiago EAEko kalitate-bereizgarriren baten babeseko produktuak izatea: 4 puntu.
 - 5) Proiektuaren bidez ekoizten den guztiaren % 70 baino gehiago EAEko jatorri-bereizgarriren baten babeseko produktuak izatea: 2 puntu.
- j) 4 puntu emango zaizkie belaunaldi-erreleboaren ondorioz enpresek sustatutako inbertsio-proiektuei.
- k) Enpresa motari dagokionez, elkarren artean metatu daitezkeen puntu hauek emango dira:
- i) Kooperatibaren forma juridikoa duten enpresek sustatutako proiektuak. 3 puntu.
 - ii) Beren bazkideen lehengaietatik eratorritako produktu eraldatuak zuzenean merkatu-ratzen dituzten kooperatiben proiektuak izatea: 3 puntu.

l) Puntu bat emango zaie azken 3 urteetan laguntza-lerro hau jaso ez duten enpresek sustatutako inbertsio-proiektuei.

m) Puntu bat emango zaie energia berriztagarrietarako edo hondakinak aprobetxatzeko inbertsioak jasotzen dituzten inbertsio-proiektuei, baldin eta proiektuaren % 10 hartzen badute.

n) Puntu bat emango zaie gutxienez ekoizpenaren % 10 esportatzen duten enpresen inbertsio-proiektuei.

o) Puntu bat emango zaie merkataritza-lana modu eksklusiboan egiteko langile bateko edo gehiagoko merkataritza-saila duten enpresen inbertsio-proiektuei. Zeregin hori egiteaz arduratzen direnak ezingo dira enpresa filialak izan. Ez dira merkataritza-sail gisa baloratuko ez banaketako langileak, ez txikizkako merkataritzakoak.

p) Puntu bat emango zaie Elikadura-sistemako enpresa-jardunbide onen koderatxikitako enpresak sustatutako inbertsio-proiektuei.

29. oinarria.— Laguntzaren zenbatekoa.

1.— Eskatzailea mikroenpresa bat bada, laguntzaren gehieneko ehunekoa diruz lagun daitekeen inbertsioaren zenbatekoaren % 65 izango da; eskatzailea enpresa txiki edo ertaina bada, laguntzaren gehieneko ehunekoa diruz lagun daitekeen inbertsioaren zenbatekoaren % 50 izango da; eta eskatzailea ez bada mikroenpresa edo ETEa, laguntzaren gehieneko ehunekoa diruz lagun daitekeen inbertsioaren zenbatekoaren % 25 izango da.

2.— Inbertsio-proiektu bakoitzak aurreko oinarriarekin bat etorrira lortzen duen balorazioaren arabera, inbertsio-proiektu bakoitzari esleitu beharreko zuzeneko laguntza honela gauzatuko da:

a) Mikroenpresen kasuan:

- i) Gehienez, 9 puntu: % 0 lagunduko da diruz.
- ii) 10-15 puntu: % 30 lagunduko da diruz.
- iii) 16-25 puntu bitartean: % 40 lagunduko da diruz.
- iv) 26 eta 30 puntu bitartean: % 45 lagunduko da diruz.
- v) 31 eta 40 puntu bitartean: % 50 lagunduko da diruz.
- vi) 40 puntu baino gehiago: % 65 lagunduko da diruz.

b) Enpresa txiki eta ertainen kasuan:

- i) Gehienez, 9 puntu: % 0 lagunduko da diruz.
- ii) 10-15 puntu: % 15 lagunduko da diruz.
- iii) 16-25 puntu bitartean: % 20 lagunduko da diruz.
- iv) 26 eta 30 puntu bitartean: % 25 lagunduko da diruz.
- v) 31 eta 40 puntu bitartean: % 35 lagunduko da diruz.
- vi) 40 puntu baino gehiago: % 50 lagunduko da diruz.

c) Mikroenpresa eta ETEak ez badira:

- i) Gehienez, 9 puntu: % 0 lagunduko da diruz.
- ii) 10-15 puntu: % 7,5 lagunduko da diruz.
- iii) 16-25 puntu bitartean: % 10 lagunduko da diruz.
- iv) 26 eta 30 puntu bitartean: % 12,5 lagunduko da diruz.
- v) 31 eta 40 puntu bitartean: % 20 lagunduko da diruz.
- vi) 40 puntu baino gehiago: % 25 lagunduko da diruz.

3.– Edonola ere, batek baino gehiagok puntu kopuru bera lortuz gero, irizpide hauen arabera eta hurrenkera honetan lehenetsiko da:

- 1.– Enpresa edo ekoizpen-establezimendu berriak sortzeko proiektuak edo lanpostuak sortzen dituztenak.
- 2.– Emakumeek sustatutako inbertsio-proiektuak. Pertsona fisikoa ez bada, emakumeen partaidetza % 50ekoa edo altuagoa izatea baloratuko da.
- 3.– Oinarrizko ekoizleak kooperatiba-enpresetan biltzeko eta bat egiteko proiektuak, bazkideen kopurua eta ekoizpen propioaren bolumena handitzea eta antolamenduaren eraginkortasuna areagotzea dakartenak.
- 4.– Produktuak establezimendu bakarrean eraldatzeko eta merkaturatzeko, zenbait nekazaritza-ustategik edo nekazaritzako elikagaien zenbait enpresak elkarrekin sustatutako proiektuak.
- 5.– Produktuak zuzenean merkaturatzen dituzten nekazaritza-ustategien titularrek eginiko proiektuak.
- 6.– Enpresa txiki eta ertainen inbertsio-proiektuak, Batzordearen 2003/361/EE Gomendioak ematen duen definizioarekin bat.

Irizpideak aplikatzean berdinketa ebazten ez bada, laguntza-eskabidearen sarrera-hurrenkera arabera lehenetsiko da.

III. KAPITULUA

LEHIATU EGURRA

BASOGINTZAKO POTENTZIALA HOBETZERA BIDERATUTAKO INBERTSIOAK ETA, BASOGINTZAKO PRODUKTUAK ERALDATZEKO, MUGITZEKO ETA MERKATURATZEKO INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZAK.

30. oinarria.– Xedea eta helburua.

- 1.– Basogintzako produktuak eraldatzeko, mugitzeko eta merkaturatzeko inbertsioak egitea da laguntza hauen xedea. Zehazki, zura eraldatzeko, merkaturatzeko eta garatzeko lanei ematen zaie laguntza, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko (EB) 2021/2115 Erregelamenduaren esparruan sartzen dira. Erregelamendu horren bidez, nekazaritza-politika erkidearen esparruan estatu kideek egin beharreko plan estrategi-

koetarako (NPEaren plan estrategikoak) laguntzari buruzko arauak ezartzen dira –Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatuta– eta 1305/2013 (EB) Erregelamendua eta 1307/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen dira. Halaber, Espainiako NPEaren 2023-2027 aldirako Plan Estrategikoaren esparruan ere sartzen dira (Europako Batzordeak 2022ko abuztuaren 31n onartua, C (2022) 6017 Erabakiaren bidez, eta gerora, lau aldiz aldatua, C(2023)5746, C(2024)6133, C(2025)5713 eta C(2025)8557 Erabakien bidez).

2.– Zura lehengai edo energia-iturri gisa erabiltzeko inbertsioak izango dira, baldin eta produktu landuak edo erdilanduak sortzen dituzten industria-eraldaketan aurretik egiten diren zuraren lehen eraldaketei badagozkie. Kanpoan geratuko dira nagusiki zura birziklatzeko egiten diren inbertsioak.

3.– Hauek dira kapitulu honetako laguntzen helburuak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko basogintza-azpisektorea lehiakorragoa izan dadin bultzatzea, zura lehengai edo energia-iturri gisa erabiltzen duten inbertsioak sustatuta.
- Basogintzako produktuak merkatuko eskakizun berrietara egokitu daitezen bultzatzea, eta, horretarako, produktuen berringeniaritza, zuraren kalitatea eta basogintzako produktuen ziurtagiria sustatzea, basogintzako produktuak eta haien hondakinak hobeto ustiatzeko lehen mailako azpiegitura komertzialen sorrera finantzatzea eta zerraketa-industrien lehiakortasuna hobetzea.

4.– Era berean, aukeratuak izateko baldintza da inbertsioak ez egotea hasita eskabidea aurkeztean. Betekizun horretatik salbuetsita egongo dira obra-proiektuaren ordainsariak. Baldintza hori betetzen dela ziurtatzeko, Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzak ikuskapen-lanak egingo ditu in situ.

31. oinarria.– Onuradunak.

1.– Kapitulu honetan araututako laguntzen onuradun izan daitezke basogintzako produktuen lehen eraldaketako enpresa diren pertsona fisiko edo juridiko pribatuak edo nortasun juridikorik gabeko erakundeak, 3. oinarriaren 12. apartatuan definitutakoaren arabera.

Pertsona fisiko edo juridikoen taldeak direnean –nortasunik gabeko pribatuak edo publikoak–, eskabidean eta dirulaguntza emateko ebazpenean berariaz jaso beharko dira taldeko kide bakoitzak proiektua egikaritzeko hartzen dituen konpromisoak, bai eta bakoitzak aplikatuko duen dirulaguntzaren zenbatekoa ere, horiek ere onuraduntzat hartuko baitira. Betiere, ordez-kari edo ahaldu bat izendatu behar dute elkarrekin, elkar-teari onuradun izateagatik dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak dituen. Taldea ezin izango da desegin Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren eskubideak preskribatzeko legez aurreikusitako epea igaro arte.

Onuradunek mikroenpresa edo enpresa txiki edo ertaina izan beharko dute, bat etorritik Mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioarekin.

2.– Ezin izango dira onuradun izan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateak, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

32. oinarria.— Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak.

Kapitulu honen esparruan, zura eraldatzeko, merkaturatzeko eta garatzeko lanak hartuko dira diruz lagundu daitezkeen inbertsiotzat, bereziki, honako hauek:

1.— Zuraren lehen eraldaketarako makinerian egindako inbertsioak: azala kentzeko makinak, lehortegiak, urtean zur-enborkien 20.000 m³-ko gehieneko ahalmena duten zerraketa-lineak, instalazioen barruko garraio-makinak, zur-enborkiak, zur prozesatua edo horien hondakinak bakarrik mugitzeko, eta zura tratatzeko makinak.

Makinerian egiten diren inbertsioak finantza-errentamenduaren bidez finantzatu ahalko dira, betiere finantza-errentamenduko kontratuak xedatzen badu nahitaezkoa dela alokairua amaitzen denean ondasuna erostea. Ondasunaren deskribapena, zenbatekoa eta errentamendu-epea adierazi beharko dira. Finantza-errentamenduak zazpi urte iraungo du gehienez ere.

2.— Zura merkaturatzeko egituretan egiten diren inbertsioak: basogintzaren kudeaketa jasangarriaren barnean, basogintzako produktu eraldatuen zaintza-katea egiaztatze prozesuetan egindako inbertsioak.

3.— Zura lehengai edo energia-iturri gisa erabiltzeko eta zuraren azpiproduktuak eta zerraketa-lanetan sortzen diren hondakinak ustiatzeko eta eraldatzeko makineria izateko egiten diren inbertsioak. Inbertsio horiek eraldaketa industrialaren aurreko eragiketa guztietara mugatuko dira.

4.— Zura zerratzeko ekipamendu eta instalazio mugikorretan egiten diren inbertsioak, zura mozteko guneetara eramateko modukoak. Kanpoan gelditzen dira biltegiatze-zentroak, eta zur- eta biomasa-parkeak.

5.— Zur sailkatua erakusteko eta saltzeko merkaturatze-instalazioetan, tratamendu-makinerian, sailkagailuetan, pilatzeko makinetan eta zerraketako produktuak merkaturatzera bideratutako antzeko bestelako makinerian egiten diren inbertsioak.

6.— Basogintzako makineria erosteko kostuak: herrestatze-makinak, autokargatzaileak, prozesadoreak, kamioi gaineko basogintzako garabiak, erauzketarako baso-kablea, ezpal-makinak, biomasa landan birrintzeko, ezpaltzeko eta paketatze prozesatze-ekipoak.

33. oinarria.— Diruz lagunduko ez diren inbertsioak.

8. oinarrian adierazitakoez gain, kapitulu honen esparruan, zura eraldatzeko, merkaturatzeko eta garatzeko lan hauek diruz lagundu ezin daitezkeen inbertsioak dira:

- Bigarren eskuko ekipoak eta makineria.
- Ebakitzeko eta zulatzeko esku-erremintak, motozerrak eta antzekoak.
- Garraiorako ibilgailuak, salbu eta establezimenduaren barrukoak direnak eta soilik zur-enborkiak, prozesatuak eta hondakinak mobilizatzerantz bideratuta daudenak.
- Zuraren bigarren eraldaketarekin lotutako guztiak.

34. oinarria.— Proiektuen balorazioa.

1.— Kapitulu honetan jasotako inbertsio-proiektuen balorazioa oinarri honetan ezarritakoaren arabera egingo da; kuantifikazioa, berriz, 35. oinarrian xedatutakoaren arabera.

2.– Proiektu bakoitzari eman beharreko puntuazio zehatza kalkulatzeko, bete beharreko hurrengo balorazio-irizpideak eta dagozkien puntuazioak hartuko dira kontuan.

3.– Irizpide horiek laguntza-eskabidea aurkezteko unean bete eta egiaztatu behar dira, salbu eta enplegua sortzeko irizpidean eta enpresa sortu berrien kasuan; kasu horietan, betetzearen erantzukizunpeko adierazpena onartuko da.

4.– Erantzukizunpeko adierazpenaren xede diren irizpideak ordainketa egin aurre-aurreko unean bete beharko dira, eta betetze hori laguntzaren baldintzak mantentzeko nahitaezko aldian zehar berrikusiko da.

5.– Hauek dira irizpideak eta balorazioak:

a) 15 puntu emango zaizkie EAEko Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordeak estrategiko eta traktoretzat jotzen diren sektore edo azpisektoreetan egiten diren inbertsio-proiektuei, bat etorritik martxoaren 27ko 44/2012 Dekretuarekin (Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Kontseiluaren eta Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordearen eginkizunak eta barne-araubidea zehazten ditu).

Elikagaien Politika eta Industriako zuzendariaren ebazpenaren bidez emango da jakitera zein diren estrategiko eta traktoretzat jotzen diren sektore edo azpisektoreak; ebazpen hori EHAAren argitaratuko da, Balorazio Batzordea eratu aurretik.

b) Inbertsio-proiektuen sustatzailearen tipologiaren arabera:

i) Basogin-kooperatibek edo basogintza-ustategi batzuek establezimendu bakar batean eraldatu eta merkaturatzeko sustatzen dituzten proiektuei 10 puntu emango zaizkie.

ii) Berdintasuna sustatzen duten basogintzako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko proiektuei 5 puntu emango zaizkie. Berdintasuna sustatzen dutela ulertuko da egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

a) Emakumeek sustatutako inbertsio-proiektuak. Enpresa pertsona fisikoa ez bada, haren sozietate-partaidetza % 50ekoa edo altuagoa izatea baloratuko da.

b) Langileen % 40 emakumeak dituzten enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak.

c) Emakume batek kudeatzen edo administratzen dituen enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak.

d) Administrazio-organoetan, emakumeek gutxienez % 50eko proportzioan parte hartzen duten enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak.

iii) Basoak eraldatzeko eta merkaturatzeko, gazte ekintzaileek (41 urtetik beherakoek) sustatutako enpresa-ekimenei 5 puntu emango zaizkie. Enpresa berria pertsona fisikoa ez bada, haren partaidetza % 50ekoa edo altuagoa izatea baloratuko da.

iv) 2003/361/EE Gomendioaren definizioekin bat, 5 puntu emango zaizkie mikroenprestatzat hartu daitezkeen enpresek basogintzako produktuak eraldatzeko, garatzeko eta merkaturatzeko sustatzen dituzten inbertsio-proiektuei.

c) Inbertsio-proiektuaren tipologiaren arabera:

i) 13 puntu emango zaizkie inbertsio-proiektuei, baldin eta erabiltzen duten lehengaien % 70, gutxienez, EAEn ekoitzia bada.

ii) 10 puntu emango zaizkie belaunaldi-erleboaren ondorioz enpresek sustatutako inbertsio-proiektuei.

iii) 10 puntu emango zaizkie diruz lagundu daitekeen inbertsioan makineria sartzen duten proiektuei, baldin eta, batera hartuta, diruz lagundu daitekeen inbertsio guztiaren % 50 baino gehiago badira.

iv) 5 puntu emango zaizkie basogintza jasangarriko ziurtagirian zaintza-kateko sistemak ezartzeko proiektuei.

d) Lurralde-orekaren irizpidearen arabera:

i) 1. zaurgarritasun mailako arreta bereziko eremuetan (ABE) dauden enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak: 10 puntu.

ii) 3 puntu emango zaizkie 2. zaurgarritasun mailako eremuetan kokatutako inbertsio-proiektuei, indarrean dagoen landa-zonifikazioko dibertsifikazio ekonomikoko maparen arabera, edo lehentasuneko jarduketa-eremuetan (LJE) daudenei, baina ez da aurreko puntuarekin metagarria.

e) Enplegu-sorreraren irizpidea kontuan hartuta:

i) 4 puntu emango zaizkie enpresa berriak sortzeko proiektuei, baldin eta laguntza eskatzen denetik laguntza ordaintzen den arte, gutxienez, hiru lanpostu sortzen badituzte eta lanpostu horiek bost urtez mantentzen badituzte, laguntzaren azken ordainketaren datatik aurrera. Sortu eta lehenengo bi urteetan, enpresa berritatzat joko dira.

Sortutako enpleguaren erdia edo gehiago emakumeek betetzen badute, puntu bat gehiago emango da.

ii) 4 puntu emango zaizkie enpresako enplegua gutxienez % 10 handitu eta 5 urtez mantentzen duten enpresei. Sortutako gutxieneko enpleguak lanaldi osokoa izan beharko du. Kontuan hartuko den enpleguari buruzko datua hau izango da: laguntza-eskabidea aurkeztu aurreko urteko batez besteko enpleguaren eta eskabidea aurkeztu aurreko hilabeteko batez besteko enpleguaren arteko kopururik handiena.

Sortutako enpleguaren erdia edo gehiago emakumeek betetzen badute, puntu bat gehiago emango da.

f) 3 puntu emango zaizkie azken 3 urteetan laguntza-lerro hau jaso ez duten enpresek sustatutako inbertsio-proiektuei.

g) 3 puntu emango zaizkie produktu-zorroa Espainiako estatutik kanpoko Europako herrialdeetako merkatuetan duten enpresen proiektuei.

h) Puntu bat emango zaie merkataritza-saila duten enpresen inbertsio-proiektuei, lan hori modu eksklusiboan egiteko langile bat edo gehiago baditu. Hori ez da kontuan hartuko zeregin horiek egiteko ardura dutenak enpresa filialak badira.

35. oinarria.– Laguntzaren zenbatekoa.

1.– Gehienez ere diruz lagundu daitekeen inbertsioaren % 40koa izango da laguntzaren zenbatekoa.

2.– Inbertsio-proiektu bakoitzak aurreko oinarriarekin bat etorrira lortzen duen balorazioaren arabera, proiektu bakoitzari esleitu beharreko zuzeneko laguntza honela gauzatuko da:

- a) Gehienez, 9 puntu: % 0 lagunduko da diruz.
- b) 10 eta 15 puntu bitartean: % 10 lagunduko da diruz.
- c) 16 eta 20 puntu bitartean: % 15 lagunduko da diruz.
- d) 21 eta 25 puntu bitartean: % 20 lagunduko da diruz.
- e) 26 eta 30 puntu bitartean: % 30 lagunduko da diruz.
- f) 30 puntu baino gehiago: % 40 lagunduko da diruz.

3.– Batek baino gehiagok puntu kopuru bera lortzen badute, ordena honetan emango zaie lehentasuna:

- a) Enpresa edo ekoizpen-establezimendu berriak sortzeko proiektuak edo lanpostuak sortzen dituztenak.
- b) Emakumeek sustatutako inbertsio-proiektuak. Pertsona fisikoa ez bada, zuzendaritza-organoetako partaidetza % 50ekoa edo altuagoa izatea baloratuko da.
- c) Bere basogintzako produktuak sailkatzeko eta estandarizatzeko proiektuak.

Irizpideak aplikatzean berdinketa ebazten ez bada, laguntza-eskabidearen sarrera-hurrenkaren arabera lehenetsiko da.

IV. KAPITULUA

LEHIATU EKOLOGIKOA

ELIKAGAI EKOLOGIKOAK ERALDATZEKO, MERKATURATZEKO EDO GARATZEKO INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZAK.

36. oinarria.– Xedea eta helburua.

1.– Laguntza hauen helburua da elikagai ekologikoak eraldatzeko, merkaturatzeko edo garatzeko inbertsioak egitera bultzatzea, edo ekoizpen- edo teknika-gaitasunaren zati bat nekaritzako elikagai ekologikoak eraldatzeko, merkaturatzeko edo garatzeko jarduerak egiten dituzten enpresei maquila-zerbitzuak ematera bideratutako inbertsioak egitea. Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko (EB) 2022/2472 Erregelamenduaren eta Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko (EB) 2022/2473 Erregelamenduaren arabera, jakinarazi beharrekoak ez diren laguntzen tratamendu bera izango dute. Bereziki, (EB) 2022/2472 Erregelamenduaren 17. artikulua eta (EB) 2022/2473 Erregelamenduaren 45. eta 46. artikulua aplikatuko dira, baita arau bakoitzaren xedapen orokorrak ere.

2.– Hauek dira kapitulu honetako laguntzen helburuak:

- a) Elikagai ekologiko eraldatuak merkaturatzea bultzatzea, lehendik dagoen ekoizpen-maiari jarraipena emanez, eraldaketa- eta merkaturatze-prozesuak hobetuta.

b) EAEn nekazaritzako elikagaien sektorean diharduten enpresek ingurumen-inpaktu txikia goa izateko, efizientzia energetikoa hobetzeko, ura aurrezteko eta arazteko eta hondakin eta azpiproduktuak aprobetxatzeko inbertsioei laguntza ematea.

3.– Hautagarritasun-baldintzak.

a) Inbertsioek Tratatuaren I. eranskinean jasotako nekazaritza-produktuak eraldatu, garatu edo merkaturatzeko ekoizpen-prozesuei lotuta egon behar dute, eta ziurtagiri ekologikoaren babespean egon behar dute, osorik.

b) Gehigarri baimenduak eta beste elikagaigintza-produktu batzuk erabili ahalko dira ekoizpen-prozesuan, betiere eraldatutako bolumenaren % 20 baino gehiago ez badira.

c) Eraldaketa-prozesuak indarrean dagoen araudia bete beharko du; bereziki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko (EB) 2018/848 Erregelamenduaren 10., 16. eta 24. artikuluetan eta II. eranskinaren IV. zatian adierazitakoa (produktu ekologikoen ekoizpen ekologikoari eta etiketatzeari buruzko Erregelamendua, Kontseiluaren 834/2007 (EE) Erregelamendua indargabetzen duena).

d) Era berean, aukeratuak izateko baldintza da inbertsioak ez egotea hasita eskabidea aurkeztean. Betekizun horretatik salbuetsita egongo dira obra-proiektuaren ordainsariak. Baldintza hori betetzen dela ziurtatzeko, Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzak ikuskapen-lanak egingo ditu in situ.

4.– Kapitulu honetan araututako laguntzak ezin izango zaizkie gehitu agindu honetako beste kapituluetakoei.

37. oinarria.– Onuradunak.

1.– Pertsona fisiko edo juridiko pribatuak izan ahalko dira kapitulu honek arautzen dituen laguntzen onuradun: batetik, nekazariak eta nekazari-elkarteak eta, bestetik, ekoizpen-establezimendua EAEn duten nekazaritza-kooperatibak eta nekazaritzako elikagaien enpresak, betiere Tratatuaren I. eranskinak aipatzen dituen nekazaritza-produktuak eraldatzen eta merkaturatzen badituzte, hautagarritasun-baldintzak betetzen badituzte, eta nekazaritzako elikagai ekologikoak eraldatzeko, merkaturatzeko edo garatzeko jarduerak egiten badituzte indarrean den araudiaren arabera. Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira, halaber, ekoizpen-establezimendua Euskal Autonomia Erkidegoan duten eta beren ekoizpen- edo teknika-gaitasunaren zati bat nekazaritzako elikagai ekologikoak eraldatzeko, garatzeko eta merkaturatzeko jarduerak egiten dituzten enpresei maquila-zerbitzuak ematera bideratzen duten enpresak.

Pertsona horiek mikroenpresa, enpresa txiki eta ertaintzat jo beharko dira Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko (EB) 2022/2472 Erregelamenduaren eta Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko (EB) 2022/2473 Erregelamenduaren I. eranskinean jasotakoaren arabera.

2.– Ezin izango dira onuradun izan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateak, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

38. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak.

Kapitulu honen eremuan, diruz laguntzeko modukotzat hartuko dira EAEn erregistratutako manipulazio-, elaborazio- eta eraldaketa-establezimenduetako inbertsioak, osorik ziurtatutako produktu ekologikoak egiten dituztenak, eta inbertsio-proiektu hauek lagunduko dira diruz:

a) Handitzeko, modernizatzeko edo aldatzeko proiektuak, eta, bereziki, lehendik dagoen establezimendu bat modernizatzea edo lehendik dagoen establezimendu baten produktuan edo produkzio-prozesuan funtsezko aldaketa dakarren jarduera bat abian jartzea dakarten inbertsioak, hura arrazionalizatuz, berregituratuz edo modernizatuz.

b) Elikagai ekologikoak ontziratzeak eta enbalatzeak ingurumenean duen inpaktua murrizteko makineriari buruzko proiektuak, azterlanak edo inbertsioak, baldin eta enbalatzeko edo ontziratze formatu eta materialetan hobekuntzak ezartzen badira ingurumen-inpaktuaren ikuspegitik.

c) Sektore ekologikoari maquila-zerbitzuak ematen dizkieten enpresetan eginiko inbertsioak, ekoizle ekologikoek beren berezitasunetara egokitutako zerbitzua izan dezaten, ziurtatua eta lehiakorra.

39. oinarria.— Diruz lagunduko ez diren inbertsioak.

Kapitulu honen esparruan, 8. oinarrian xedatutakoez gain, honako hauek ere ez dira lagunduko diruz:

1.— Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren Mahastizaintzako eta Ardogintzako Esku-hartze Sektorialak (2023-2027) babesten dituen mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreko inbertsioak, hura indarrean dagoen bitartean edo proiektu berriak babesteko dauzkan funtsak agortu bitartean.

2.— Laguntza jaso dezaketen inbertsioak, baldin eta Fruta- eta barazki-ekoizleen elkarte (FBEE) bateko kideak dituzten ustategiei eragiten badiete edo FBEE batek sustatzen baditu, eta haien funts operatiboetatik eskatu bada dirulaguntza.

3.— Eraldatzeko, merkaturatzeko eta garatzeko inbertsioak basogintzan, III. kapituluan diruz lagundu badaitezke, zein arrantza eta akuikultura sektoreetan.

4.— Bigarren eskuko ekipamenduak erostea. Nekazaritzako elikagaien artisau-eraldaketarako proiektuen barruan, ordea, bigarren eskuko ekipoak erosten lagundu ahal izango zaie sektorean lehen aldiz instalatzen diren titularrei, baldin eta titularrek eskuratzen duten ustategiko ondasunak badira, eta azken 10 urteetan finantzaketa publikoarekin lagundu ez bazaie.

40. oinarria.— Inbertsio-proiektuen balorazioa.

1.— Kapitulu honetan jasotako inbertsio-proiektuen balorazioa oinarri honetan ezarritakoaren arabera egingo da; kuantifikazioa, berriz, 41. oinarrian xedatutakoaren arabera. Proiektu bakoitzari eman beharreko puntuazio zehatza kalkulatzeko, bete beharreko hurrengo balorazio-irizpideak eta horiei dagozkien puntuazioak hartuko dira kontuan.

2.— Irizpide horiek laguntza-eskabidea aurkezteko unean bete eta egiaztatu behar dira, salbu eta enplegua sortzeko irizpidean eta enpresa sortu berrien kasuan; kasu horietan, betetzearen erantzukizunpeko adierazpena onartuko da.

3.— Erantzukizunpeko adierazpenaren xede diren irizpideak ordainketa egin aurre-aurreko unean bete beharko dira, eta betetze hori laguntzaren baldintzak mantentzeko nahitaezko aldian zehar berrikusiko da.

4.— Hauek dira irizpideak eta balorazioak:

a) 25 puntu emango zaizkie EAEko Nekazaritzako eta Elikagaien Politikako Batzordeak estrategiko eta traktoretzat jotzen diren sektore edo azpisektoreetan egiten diren inber-

tsio-proiektuei, bat etorri martxoaren 27ko 44/2012 Dekretuarekin (Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Kontseiluaren eta Nekazaritzako eta Elikagaien Politikako Batzordearen eginkizunak eta barne-araubidea zehazten ditu).

Elikagaien Politika eta Industriako zuzendariaren ebazpenaren bidez emango da jakitera zein diren estrategiko eta traktoretzat jotzen diren sektore edo azpisektoreak; ebazpen hori EHAA-n argitaratuko da, Balorazio Batzordea eratu aurretik.

b) Baldintza hauetako bat edo gehiago betetzen duten inbertsio-proiektuei 15 puntu emango zaizkie:

- i) Emakumeek sustatutako inbertsio-proiektuak. Enpresa pertsona fisikoa ez bada, haren sozietate-partaidetza % 50ekoa edo altuagoa izatea baloratuko da.
- ii) Langileen % 40 emakumeak dituzten enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak.
- iii) Emakume batek kudeatzen edo administratzen dituen enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak.
- iv) Administrazio-organoetan, emakumeek gutxienez % 50eko proportzioan parte hartzen duten enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak.

c) Gazteek (41 urtetik behera) enpresa berriak sortzeko sustatutako inbertsio-proiektuei 10 puntu emango zaizkie. Enpresa berria pertsona fisikoa ez bada, enpresan duten partaidetza gehiengoa izatea baloratuko da.

Enpresa berria ez bada, 5 puntu emango zaizkie gazteek (41 urtetik beherakoek) sustatutako inbertsio-proiektuei. Enpresa pertsona fisikoa ez bada, enpresan duten partaidetza gehiengoa izatea baloratuko da.

d) Inbertsio-proiektu hauei 4 puntu emango zaizkie:

- i) Enpresa berriak sortzeko proiektuak, baldin eta laguntza eskatzen denetik laguntza ordaintzen den arte gutxienez hiru lanpostu sortzen badituzte eta lanpostu horiek bost urtez mantentzen badituzte, laguntzaren azken ordainketaren datatik aurrera. Sortu eta lehenengo bi urteetan, enpresa berritatzat joko dira.

Sortutako enpleguaren erdia edo gehiago emakumeek betetzen badute, puntu bat gehiago emango da.

- ii) Sortu berriak ez diren enpresen kasuan, laguntza eskatzen denetik laguntzaren azken ordainketa eskatzen den arte enpresako enplegua gutxienez % 10 handitzen duten eta hori 5 urtez mantentzen duten inbertsio-proiektuak izatea. Sortutako gutxieneko enpleguak lanaldi osokoa izan beharko du. Kontuan hartuko den enpleguari buruzko datua hau izango da: laguntza-eskabidea aurkeztu aurreko urteko batez besteko enpleguaren eta eskabidea aurkeztu aurreko hilabeteko batez besteko enpleguaren arteko kopururik handiena.

Sortutako enpleguaren erdia edo gehiago emakumeek betetzen badute, puntu bat gehiago emango da.

e) Proiektuko makineria-inbertsioei dagokienez, puntu hauek emango dira:

- i) Diruz lagundu daitekeen inbertsioan, makineria duten proiektuak, batera hartuta, diruz lagundu daitekeen inbertsio guztiaren % 70 baino gehiago badira: 10 puntu.

- ii) Diruz lagundu daitekeen inbertsioan, makineria duten proiektuak, batera hartuta, diruz lagundu daitekeen inbertsio guztiaren % 50 eta % 70 artean badaude: 7 puntu.
- f) Proiektuko instalazio tekniko industrialetako inbertsioei dagokionez, puntu hauek emango dira:
- i) Diruz lagundu daitekeen inbertsioan instalazio tekniko industrialak dituzten proiektuak, baldin eta, batera hartuta, diruz lagundu daitekeen inbertsio guztiaren % 70 baino gehiago badira: 6 puntu.
 - ii) Diruz lagundu daitekeen inbertsioan, instalazio tekniko industrialak dituzten proiektuak, baldin eta, batera hartuta, diruz lagundu daitekeen inbertsio guztiaren % 50 eta % 70 artean badaude: 3 puntu.
- g) Proiektuko makinerian egindako inbertsioa % 50era iristen ez bada eta instalazio tekniko industrialetan egindako inbertsioa ere ez bada % 50era iristen, baina makineria eta instalazio tekniko industrialetan egindako inbertsioen guztizko batura proiektuko inbertsioen % 50 edo gehiago bada, 10 puntu emango dira.
- h) Lurralde-orekako irizpideari dagokionez, elkarren artean metatu ezin diren puntu hauek emango dira:
- i) 1. zaurgarritasun mailako arreta bereziko eremuetan (ABE) dauden enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak: 5 puntu.
 - ii) 2. zaurgarritasun mailako eremuetan dauden enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak, indarrean dagoen landa-zonifikazioko dibertsifikazio ekonomikoko maparen arabera, edo lehentasuneko jarduketa-eremuetan (LJE) daudenak: 3 puntu, baina ezingo dira aurreko puntuekin metatu.
- i) Puntu hauek emango zaizkio EAEko lehengaia erabiltzeari edo kalitate-araubideak ezartzeari:
- i) Nekazaritzako produkzio-sektoreak garatutako inbertsio-proiektuak izatea, hau da, erabilitako lehengai gehiena eskatzailearena berarena bada: 6 puntu.
 - ii) Proiektuan erabiltzen diren lehengaien % 70, gutxienez, EAEn ekoizitakoak izatea: 6 puntu.
 - iii) Proiektuan erabiltzen diren lehengaien % 30etik % 70era bitartean EAEn ekoizitakoak izatea: 4 puntu.
 - iv) Proiektuaren bidez ekoizten den guztiaren % 70 baino gehiago EAEko kalitate-bereizgarriren baten babeseko produktuak izatea: 4 puntu.
 - v) Proiektuaren bidez ekoizten den guztiaren % 70 baino gehiago EAEko jatorri-bereizgarriren baten babeseko produktuak izatea: 2 puntu.
- j) 4 puntu emango zaizkie belaunaldi-erreleboaren ondorioz enpresek sustatutako inbertsio-proiektuei.
- k) Enpresa motari dagokionez, elkarren artean metatu daitezkeen puntu hauek emango dira:
- i) Kooperatibaren forma juridikoa duten enpresek sustatutako proiektuak. 3 puntu.

ii) Beren bazkideen lehengaietatik eratorritako produktu eraldatuak zuzenean merkatu-ratzen dituzten kooperatiben proiektuak izatea: 3 puntu.

l) Puntu bat emango zaie azken 3 urteetan laguntza-lerro hau jaso ez duten enpresek sus-tatutako inbertsio-proiektuei.

m) Puntu bat emango zaie energia berriztagarrietarako edo hondakinak aprobetxatzeko inbertsioak jasotzen dituzten inbertsio-proiektuei, baldin eta proiektuaren % 10 hartzen badute.

n) Puntu bat emango zaie gutxienez ekoizpenaren % 10 esportatzen duten enpresen inbertsio-proiektuei.

o) Puntu bat emango zaie merkataritza-lana modu eksklusiboan egiteko langile bateko edo gehiagoko merkataritza-saila duten enpresen inbertsio-proiektuei. Zeregin hori egiteaz arduratzen direnak ezingo dira enpresa filialak izan. Ez dira merkataritza-sail gisa balora-tuko ez banaketako langileak, ez txikizkako merkataritzakoak.

p) Puntu bat emango zaie Elikadura-sistemako enpresa-jardunbide onen kodera atxikitako enpresak sustatutako inbertsio-proiektuei.

41. oinarria.— Laguntzaren zenbatekoa.

1.— Eskatzailea mikroenpresa bada eta bere produktuak egitean arrantza eta akuikulturatik datorren lehengairik sartzen ez badu, laguntzaren gehieneko ehunekoa diruz lagundu daite-keen inbertsioaren zenbatekoaren % 65 izango da.

Eskatzailea aurreko apartatuan sartuta ez dagoen enpresa txiki edo ertaina edo mikroenpresa bada, laguntzaren gehieneko ehunekoa diruz lagundu daitekeen inbertsioaren zenbatekoaren % 50 izango da.

2.— Inbertsio-proiektu bakoitzak aurreko oinarriarekin bat etorrira lortzen duen balorazioaren arabera, inbertsio-proiektu bakoitzari esleitu beharreko zuzeneko laguntza honela gauzatuko da:

a) Mikroenpresen kasuan:

i) Gehienez, 9 puntu: % 0 lagunduko da diruz.

ii) 10-15 puntu: % 30 lagunduko da diruz.

iii) 16-25 puntu bitartean: % 40 lagunduko da diruz.

iv) 26 eta 30 puntu bitartean: % 45 lagunduko da diruz.

v) 31 eta 40 puntu bitartean: % 50 lagunduko da diruz.

vi) 40 puntu baino gehiago: % 65 lagunduko da diruz, baina % 50 lagunduko da diruz produktuak egitean arrantza eta akuikulturatik datozen lehengaiak sartuz gero, betiere 36.3.b) oinarrian ezarritako mugak errespetatzen badira.

b) Enpresa txiki eta ertainen kasuan:

i) Gehienez, 9 puntu: % 0 lagunduko da diruz.

ii) 10-15 puntu: % 15 lagunduko da diruz.

iii) 16-25 puntu bitartean: % 20 lagunduko da diruz.

iv) 26 eta 30 puntu bitartean: % 25 lagunduko da diruz.

v) 31 eta 40 puntu bitartean: % 35 lagunduko da diruz.

vi) 40 puntu baino gehiago: % 50 lagunduko da diruz.

3.– Edonola ere, batek baino gehiagok puntu kopuru bera lortuz gero, irizpide hauen arabera eta hurrenkera honetan lehenetsiko da:

a) Enpresa edo ekoizpen-establezimendu berriak sortzeko proiektuak edo lanpostuak sortzen dituztenak.

b) Emakumeek sustatutako inbertsio-proiektuak. Pertsona fisikoa ez bada, emakumeen partaidetza % 50ekoa edo altuagoa izatea baloratuko da.

c) Oinarrizko ekoizleak kooperatiba-enpresetan biltzeko eta bat egiteko proiektuak, bazkideen kopurua eta ekoizpen propioaren bolumena handitzea eta antolamenduaren eraginkortasuna areagotzea dakartenak.

d) Produktuak establezimendu bakarrean eraldatzeko eta merkaturatzeko, zenbait nekazaritza-ustategik edo nekazaritzako elikagaien zenbait enpresak elkarrekin sustatutako proiektuak.

e) Produktuak zuzenean merkaturatzen dituzten nekazaritza-ustategien titularrek eginiko proiektuak.

f) Irizpideak aplikatzean berdinketa ebazten ez bada, laguntza-eskabidearen sarrera-hurrenkerearen arabera lehenetsiko da.

Edonola ere, erregelamendu honetan aurreikusitako gehieneko ehunekoetara mugatuko da laguntza: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko (EB) 2021/2115 Erregelamendua, Nekazaritza-politika erkidearen esparruan estatu kideek egin beharreko plan estrategikoetarako (NPEaren plan estrategikoak) laguntzari buruzko arauak ezartzen dituenak –Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatuta– eta 1305/2013 (EB) Erregelamendua eta 1307/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen dituenak.

V. KAPITULUA

LEHIATU EKOIZPEN

AURREKO KAPITULUETAN SARTZEN EZ DIREN ELIKAGAIGINTZA-PRODUKTUAK LORTZEKO INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZAK, SALBU ETA ARDOA ETA NAGUSIKI ARRANTZAKO ETA AKUIKULTURAKO PRODUKTUETATIK DATOZEN LEHENGAEIKIN EGINDAKO PRODUKTU LANDUAK, BAI ETA NEKAZARITZAKO AZPIPRODUKTUAK BALORIZATZEKO PROIEKTUAK EGITEKO LAGUNTZAK ERE.

42. oinarria.– Xedea eta helburua.

1.– Laguntza hauen helburua da aurreko kapituluetan sartzen ez diren nekazaritza- eta elikagaigintza-produktuak lortzeko inbertsioak egitea, salbu eta ardoa eta nagusiki arrantzako

eta akuikulturako produktuetatik datozen lehengaiekin egindako produktu landuak. Laguntza hauek ezin izango zaizkio gehitu kapitulu honen aurrekoetan aipatutako ezeini.

2.– Zehazki, 7. oinarriak aipatzen dituen inbertsioak arautzen ditu kapitulu honek, betiere helburu hauetako bat badute:

a) 24. oinarriak aipatzen ez dituen nekazaritza- eta elikagaigintza-produktuak eraldatzera, merkaturatzera edo garatzera bideratuta egotea, edota nekazaritzako azpiproduktuak balorizatzen.

b) Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrietan garapena eta berrikuntza erraztera bideratuta egotea, betiere trukeen baldintzak interes komunaren kontra aldatzen ez badira, 44. oinarrian deskribatzen diren bezala.

3.– Kapitulu honetan araututako laguntzek jakinarazteko betebeharretik salbuetsita dauden laguntzetarako gordetako tratamendua izango dute Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko 2022/2472 (EB) Erregelamenduaren eta Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko 2022/2473 (EB) Erregelamenduaren arabera. Zehazki, 2022/2472 (EB) Erregelamenduaren 17. artikulua eta 2022/2473 (EB) Erregelamenduaren 45. eta 46. artikulua aplikatuko dira, arau bakoitzean ezarritako xedapen orokorreaz gain.

43. oinarria.– Onuradunak.

1.– Pertsona fisiko eta juridiko pribatuak eta nortasun juridikorik gabeko enteak izan daitezke kapitulu honek arautzen dituen laguntzen onuradun; betiere, kapituluaren aurreikusitako diruz laguntzeko modukotzat hartutako jardueraren batean badihardute eta agindu honek xedatzen duena betetzen badute.

Pertsona fisiko edo juridikoen taldeak direnean –nortasunik gabeko pribatu edo publikoak–, eskaeran eta dirulaguntza emateko ebazpenean berariaz jaso beharko dira taldeko kide bakoitzak proiektua egikartzeko hartzen dituen konpromisoak, bai eta bakoitzak aplikatuko duen dirulaguntzaren zenbatekoa ere, taldekide bakoitza onuraduntzat hartuko baita. Nolanahi ere, taldearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar dute, elkarteari onuradun izateagatik dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak izango dituen. Taldea ezin izango da desegin Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren eskubideak preskribatzeko legea aurreikusitako epea igaro arte.

Onuradunek mikroenpresa edo enpresa txiki edo ertaina izan beharko dute, bat etorritik Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko (EB) 2022/2472 Erregelamenduaren I. eranskinarekin eta (EB) 2022/2473 Erregelamenduaren I. eranskinarekin (erregelamendu horiek mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioaren transposizioa egiten dute).

2.– Ezin izango dira onuradun izan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateak, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

44. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak.

1.– Kapitulu honen ondorioetarako, inbertsio-proiektu mota hauek hartuko dira diruz laguntzeko modukotzat:

A) Eraldaketa-proiektuak.

a) Enpresen ekoizpen- eta merkataritza-alderdiak sendotzeko eta, tokiko ingurunean eta ingurune globalean modu eraginkorrean lehiatzeko inbertsio-proiektuak.

- b) Produktu sorta berriak garatzeko eta kontsumitzaileek etorkizunean elikadura-arloan izango dituzten beharrei erantzuteko inbertsio-proiektuak.
- c) Ekoizpen-prozesuak modernizatzeko, teknologia berriak erabiltzen hasteko eta kudeaketa-teknika- eta -tresna berriak erabiltzen hasiz enpresen kudeaketa eta antolamendua hobetzeko inbertsio-proiektuak.
- d) Lehengaiak, ura eta energia aurrezteko eta ahalik eta hondakin, isuri eta emisio gutxien sortzeko inbertsio-proiektuak, edo nekazaritzako azpiproduktuak balorizatzekoak.
- e) Inbertsio-proiektuak, nekazaritzako elikagaien enpresa liderrak Euskal Autonomia Erkidegoan instalatzeko, eraldaketa- edo merkaturatze-defizitak dituzten azpisektoreetan eta hazteko gaitasuna dutenetan.
- f) EAEko nekazaritza- eta elikagaigintza-sektoreak ingurumen-inpaktu txikiagoa izateko, efizientzia energetikoa hobetzeko, ura aurrezteko eta arazteko eta hondakin eta azpi-produktuak aprobetxatzeko inbertsio-proiektuak.

B) Merkaturatze-proiektuak.

- a) Inbertsio-proiektuak, ahalbidetuko dutenak elikagaien kalitatea eta segurtasuna handitzea eta espezializatzeko merkatu-segmentu objektiboak identifikatzea eta ezagutzea, baita horien beharrak eta joerak ere.
- b) Merkaturatze lehiakortasuna eta iraunkortasuna hobetze aldera, e-business tresnak erabiltzen hasteko inbertsio-proiektuak.
- c) Elikagaigintza-produktuak merkaturatzea hobetzeko eta merkatu berrietan sartzeko inbertsio-proiektuak, bereziki nazioartean.

2.– Era berean, aukeratuak izateko baldintza da inbertsioak ez egotea hasita eskabidea aurkeztean. Betekizun horretatik salbuetsita egongo dira obra-proiektuaren ordainsariak. Baldintza hori betetzen dela ziurtatzeko, Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzak ikuskapen-lanak egingo ditu in situ.

45. oinarria.– Diruz lagunduko ez diren inbertsioak.

Kapitulu honen esparruan, 8. oinarrian xedatutakoez gain, honako hauek ere ez dira lagunduko diruz:

- 1.– Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren Mahastizaintzako eta Ardogintzako Esku-hartze Sektorialak (2023-2027) babesten dituen mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreko inbertsioak, hura indarrean dagoen bitartean edo proiektu berriak babesteko dauzkan funtsak agortu bitartean.
- 2.– Laguntza jaso dezaketen inbertsioak, baldin eta Fruta- eta barazki-ekoizleen elkarte (FBEE) bateko kideak dituzten ustategiei eragiten badiete edo FBEE batek sustatzen badiu, eta haien funts operatiboetatik eskatu bada dirulaguntza.
- 3.– Eraldatzeko, merkaturatzeko eta garatzeko inbertsioak basogintzan (III. kapituluaren diruz lagundu badaitezke) zein arrantza eta akuikultura sektoreetan.
- 4.– Bigarren eskuko ekipamenduak erostea. Nekazaritzako elikagaien artisau-eraldaketarako proiektuen barruan, ordea, bigarren eskuko ekipoak erosten lagundu ahal izango zaie sekto-

rean lehen aldiz instalatzen diren titularrei, baldin eta titularrek eskuratzen duten ustategiko ondasunak badira, eta azken 10 urteetan finantzaketa publikoarekin lagundu ez bazaie.

46. oinarria.— Inbertsio-proiektuen balorazioa.

1.— Kapitulu honetan jasotako inbertsio-proiektuen balorazioa oinarri honetan ezarritakoaren arabera egingo da; kuantifikazioa, berriz, 47. oinarrian xedatutakoaren arabera. Proiektu bakoitzari eman beharreko puntuazio zehatza kalkulatzeko, bete beharreko hurrengo balorazio-irizpideak eta horiei dagozkien puntuazioak hartuko dira kontuan.

2.— Irizpide horiek laguntza-eskabidea aurkezteko unean bete eta egiaztatu behar dira, salbu eta enplegua sortzeko irizpidean eta enpresa sortu berrien kasuan; kasu horietan, betetzearen erantzukizunpeko adierazpena onartuko da.

3.— Erantzukizunpeko adierazpenaren xede diren irizpideak ordainketa egin aurre-aurreko unean bete beharko dira, eta betetze hori laguntzaren baldintzak mantentzeko nahitaezko aldian zehar berrikusiko da.

4.— Hauek dira irizpideak eta balorazioak:

a) 25 puntu emango zaizkie EAEko Nekazaritzako eta Elikagaien Politikako Batzordeak estrategiko eta traktoretzat jotzen diren sektore edo azpisektoreetan egiten diren inbertsio-proiektuei, bat etorriz martxoaren 27ko 44/2012 Dekretuarekin (Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Kontseiluaren eta Nekazaritzako eta Elikagaien Politikako Batzordearen eginkizunak eta barne-araubidea zehazten ditu).

Elikagaien Politika eta Industriako zuzendariaren ebazpenaren bidez emango da jakitera zein diren estrategiko eta traktoretzat jotzen diren sektore edo azpisektoreak; ebazpen hori EHAA-n argitaratuko da, Balorazio Batzordea eratu aurretik.

b) Baldintza hauetako bat edo gehiago betetzen duten inbertsio-proiektuei 15 puntu emango zaizkie:

i) Emakumeek sustatutako inbertsio-proiektuak. Enpresa pertsona fisikoa ez bada, haren sozietate-partaidetza % 50ekoa edo altuagoa izatea baloratuko da.

ii) Langileen % 40 emakumeak dituzten enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak.

iii) Emakume batek kudeatzen edo administratzen dituen enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak.

iv) Administrazio-organoetan, emakumeek gutxienez % 50eko proportzioan parte hartzen duten enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak.

c) Gazteek (41 urtetik behera) enpresa berriak sortzeko sustatutako inbertsio-proiektuei 10 puntu emango zaizkie. Enpresa berria pertsona fisikoa ez bada, enpresan duten partaidetza gehiengo izatea baloratuko da.

Enpresa berria ez bada, 5 puntu emango zaizkie gazteek (41 urtetik beherakoek) sustatutako inbertsio-proiektuei. Enpresa pertsona fisikoa ez bada, enpresan duten partaidetza gehiengo izatea baloratuko da.

d) Inbertsio-proiektu hauei 4 puntu emango zaizkie:

i) Enpresa berriak sortzeko proiektuak, baldin eta laguntza eskatzen denetik laguntza ordaintzen den arte gutxienez hiru lanpostu sortzen badituzte eta lanpostu horiek bost

urtez mantentzen badituzte, laguntzaren azken ordainketaren datatik aurrera. Sortu eta lehenengo bi urteetan, enpresa berritza joko dira.

Sortutako enpleguaren erdia edo gehiago emakumeek betetzen badute, puntu bat gehiago emango da.

ii) Sortu berriak ez diren enpresen kasuan, laguntza eskatzen denetik laguntzaren azken ordainketa eskatzen den arte enpresako enplegua gutxienez % 10 handitzen duten eta hori 5 urtez mantentzen duten inbertsio-proiektuak izatea. Sortutako gutxieneko enpleguak lanaldi osokoa izan beharko du. Kontuan hartuko den enpleguari buruzko datua hau izango da: laguntza-eskabidea aurkeztu aurreko urteko batez besteko enpleguaren eta eskabidea aurkeztu aurreko hilabeteko batez besteko enpleguaren arteko kopururik handiena.

Sortutako enpleguaren erdia edo gehiago emakumeek betetzen badute, puntu bat gehiago emango da.

e) Proiektuko makina-inbertsioei dagokienez, puntu hauek emango dira:

i) Makineriak, batera hartuta, diruz lagundu daitekeen inbertsio guztiaren % 70 baino gehiago hartzen duten proiektuak: 10 puntu.

ii) Makineriak, batera hartuta, diruz lagundu daitekeen inbertsio guztiaren % 50etik % 70era hartzen duten proiektuak: 7 puntu.

f) Proiektuko instalazio tekniko industrialen inbertsioei dagokienez, puntu hauek emango dira:

i) Instalazio tekniko industrialek, batera hartuta, diruz lagundu daitekeen inbertsio guztiaren % 70 baino gehiago hartzen duten proiektuak: 6 puntu.

ii) Instalazio tekniko industrialek, batera hartuta, diruz lagundu daitekeen inbertsio guztiaren % 50etik % 70era hartzen duten proiektuak: 3 puntu.

g) Proiektuko makinerian egindako inbertsioa % 50era iristen ez bada eta instalazio tekniko industrialetan egindako inbertsioa ere ez bada % 50era iristen, baina makineria eta instalazio tekniko industrialetan egindako inbertsioen guztizko batura proiektuko inbertsioen % 50 edo gehiago bada, 10 puntu emango dira.

h) Lurralde-orekako irizpideari dagokionez, elkarren artean metatu ezin diren puntu hauek emango dira:

i) 1. zaurgarritasun mailako arreta bereziko eremuetan (ABE) dauden enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak: 5 puntu.

ii) 2. zaurgarritasun mailako eremuetan dauden enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak, indarrean dagoen landa-zonifikazioko dibertsifikazio ekonomikoko maparen arabera, edo lehentasuneko jarduketa-eremuetan (LJE) daudenak: 3 puntu, baina ezingo dira aurreko puntuekin metatu.

i) Puntu hauek emango zaizkio EAEko lehengaia erabiltzeari edo kalitate-araubideak ezartzeari:

i) Nekazaritzako produkzio-sektoreak garatutako inbertsio-proiektuak izatea, hau da, erabilitako lehengai gehiena eskatzailearena berarena bada: 6 puntu.

ii) Proiektuan erabiltzen diren lehengaien % 70, gutxienez, EAEko ekoizitakoak izatea: 6 puntu.

- iii) Proiektuan erabiltzen diren lehengaien % 30etik % 70era bitartean EAEn ekoiztita-koak izatea: 4 puntu.
- iv) Proiektuaren bidez ekoizten den guztiaren % 70 baino gehiago EAEko kalitate-bereiz-garriren baten babeseko produktuak izatea: 4 puntu.
- v) Proiektuaren bidez ekoizten den guztiaren % 70 baino gehiago EAEko jatorri-bereiz-garriren baten babeseko produktuak izatea: 2 puntu.
- j) 4 puntu emango zaizkie belaunaldi-erleboaren ondorioz enpresek sustatutako inber-tzio-proiektuei.
- k) Enpresa motari dagokionez, elkarren artean metatu daitezkeen puntu hauek emango dira:
 - i) Kooperatibaren forma juridikoa duten enpresek sustatutako proiektuak. 3 puntu.
 - ii) Beren bazkideen lehengaietatik eratorritako produktu eraldatuak zuzenean merkatu-ratzen dituzten kooperatiben proiektuak izatea: 3 puntu.
- l) Puntu bat emango zaie azken 3 urteetan laguntza-lerro hau jaso ez duten enpresek sus-tatutako inbertsio-proiektuei.
- m) Puntu bat emango zaie energia berriztagarrietarako edo hondakinak aprobetxatzeko inbertsioak jasotzen dituzten inbertsio-proiektuei, baldin eta proiektuaren % 10 hartzen badute.
- n) Puntu bat emango zaie gutxienez ekoizpenaren % 10 esportatzen duten enpresen inbertsio-proiektuei.
- o) Puntu bat emango zaie merkataritza-lana modu eksklusiboan egiteko langile bateko edo gehiagoko merkataritza-saila duten enpresen inbertsio-proiektuei. Zeregin hori egiteaz arduratzen direnak ezingo dira enpresa filialak izan. Ez dira merkataritza-sail gisa balora-tuko ez banaketako langileak, ez txikizkako merkataritzakoak.
- p) Puntu bat emango zaie Elikadura-sistemako enpresa-jardunbide onen koderatxikitako enpresak sustatutako inbertsio-proiektuei.

47. oinarria.— Laguntzaren zenbatekoa.

1.— Eskatzailea mikroenpresa bada eta bere produktuak egitean arrantza eta akuikulturatik datorren lehengairik sartzen ez badu, laguntzaren gehieneko ehunekoa diruz lagundu daite-keen inbertsioaren zenbatekoaren % 65 izango da.

Eskatzailea enpresa txiki edo ertaina bada, edo aurreko apartatuan sartuta ez dagoen mikroenpresa, laguntzaren gehieneko ehunekoa diruz lagundu daitekeen inbertsioaren zen-batekoaren % 50 izango da.

2.— Inbertsio-proiektu bakoitzak aurreko oinarriarekin bat etorrira lortzen duen balorazioaren ara-bera, inbertsio-proiektu bakoitzari esleitu beharreko zuzeneko laguntza honela gauzatuko da:

a) Mikroenpresen kasuan:

- i) Gehienez, 10 puntu: % 0 lagunduko da diruz.
- ii) 10-15 puntu: % 30 lagunduko da diruz.
- iii) 16-25 puntu bitartean: % 40 lagunduko da diruz.
- iv) 26 eta 30 puntu bitartean: % 45 lagunduko da diruz.

v) 31 eta 40 puntu bitartean: % 50 lagunduko da diruz.

vi) 40 puntu baino gehiago: % 65 lagunduko da diruz, baina % 50 lagunduko da diruz produktuak egitean arrantza eta akuikulturatik datozen lehengaiak sartuz gero, eta, betiere, arrantzatik eta akuikulturatik datorren lehengaiak % 20 edo gutxiago bada.

b) Enpresa txiki eta ertainen kasuan:

i) Gehienez, 10 puntu: % 0 lagunduko da diruz.

ii) 10-15 puntu: % 15 lagunduko da diruz.

iii) 16-25 puntu bitartean: % 20 lagunduko da diruz.

iv) 26 eta 30 puntu bitartean: % 25 lagunduko da diruz.

v) 31 eta 40 puntu bitartean: % 35 lagunduko da diruz.

vi) 40 puntu baino gehiago: % 50 lagunduko da diruz.

3.– Edonola ere, batek baino gehiagok puntu kopuru bera lortuz gero, irizpide hauen arabera eta hurrenkera honetan lehenetsiko da:

a) Enpresa edo ekoizpen-establezimendu berriak sortzeko proiektuak edo lanpostuak sortzen dituzten proiektuak.

b) Emakumeek sustatutako inbertsio-proiektuak. Pertsona fisikoa ez bada, emakumeen partaidetza % 50ekoa edo altuagoa izatea baloratuko da.

c) Oinarrizko ekoizleak kooperatiba-enpresetan biltzeko eta bat egiteko proiektuak, bazkideen kopurua eta ekoizpen propioaren bolumena handitzea eta antolamenduaren eraginkortasuna areagotzea dakartenak.

d) Produktuak establezimendu bakarrean eraldatzeko eta merkaturatzeko, zenbait nekazaritza-ustategik edo nekazaritzako elikagaien zenbait enpresak elkarrekin sustatutako proiektuak.

e) Produktuak zuzenean merkaturatzen dituzten nekazaritza-ustategien titularrek eginiko proiektuak.

Irizpideak aplikatzean berdinketa ebazten ez bada, laguntza-eskabidearen sarrera-hurrenkerraren arabera lehenetsiko da.

VI. KAPITULUA

LEHIATU GASTROBIKAIN

KALITATE GASTRONOMIKOA HOBETZEKO INBERTSIO-PROIEKTUAK EGITEKO LAGUNTZAK, PROIEKTU GASTRONOMIKO BERRIAK EDO INTEGRAZIO BERTIKALEKOAK SUSTATZEARI ETA BIKAIN TASUN GASTRONOMIKOA SENDOTZEARI LOTUTA.

48. oinarria.— Xedea eta helburua.

1.– Laguntza hauen xedea inbertsio-proiektuak bultzatzea da, gastronomiaren eta jatetxeen sektorearen lehiakortasuna handitzeko eta Euskadiko kalitate gastronomikoa sendotzeko xedearekin.

2.– Euskadiko establezimendu gastronomikoen lehiakortasuna, modernizazioa eta jasangarritasuna bultzatzea da kapitulu honetan aurreikusitako laguntzen xedea, balio erantsia eta enplegua sortzeko gaitasuna hobetuz eta haien eskaintza merkatuaren joera berrietara egokituz.

3.– Hautagarritasun-baldintzak.

a) Negozio gastronomiko berriak ezartzeko edo lehendik dauden negozioak modernizatzeko proiektuei lotuta egotea inbertsioak, eta proiektu horiek kapitulu honetan aurreikusitako laguntza-lerroren batean sartuta egotea.

b) Inbertsioak hasita ez egotea eskaera aurkezten den unean. Betekizun horretatik salbuesita egongo dira obra-proiektuaren ordainsariak. Baldintza hori betetzen dela ziurtatzeko, Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzak ikuskapen-lanak egingo ditu in situ.

49. oinarria.– Kapituluaren laguntza-lerroak.

1.– Agindu honen 48. oinarrian jasotako xedea lortzeko, laguntza-lerro hauek ezarriko dira:

a) Proiektu gastronomiko berriak sustatzeko programa. Negozio gastronomiko berriak sustatzea da helburua, baldin eta gastronomiako unibertsitate-gradueta edo sukaldaritzako edo jatetxe-arloko goi-mailako zikloetako tituludun berriek abian jarritakoak badira eta kalitatea bereizgarri badute.

b) Bikaintasuna sendotzeko programa. Ibilbide eta kalitate aintzatetsia duten establezimendu gastronomikoak babestea da helburua, sektoreko kalitate-estandarretan eta -ziurtagirietan hobetzeko helburuarekin, bereziki nazioartean ezagunak diren bikaintasun gastronomikoko zerrendetan eta gastronomia-gidetan.

c) Integrazio bertikaleko negozio gastronomikoak garatzeko programa. Programa honen helburua sustatzea da establezimendu gastronomikoak irekitzea eta finkatzea, Euskadin ekoiztiko elikagai edo edari baten berezko ekoizpenean oinarritzen dutenak beren jarduera eta, ondoren, lokalean bertan zerbitzatzen edo merkaturatzen dutenak. Negozio horiek prozesu osoa osatzen dute, elaboraziotik edo laborantzatik hasi eta bezeroari egindako azken eskaintzaraino, eta horrela eskaintzen dituzten produktuen trazabilitatea, freskotasuna eta kalitatea bermatzen dira. Jatetxeei laguntzen die programak, beraiek ekoiztiko osagaiekin egindako platerak zerbitzatzen badituzte edo, lokalean zuzenean kontsumitzeko edo saltzeko edarien ekoizpen propioa badute (adibidez, artisau-garagardoa, ardoak edo sagardoak).

2.– Programa bakoitzak dauzkan ezaugarri propioak direla eta, horietako batean bakarrik parte hartu ahal izango du eskatzaile bakoitzak.

50. oinarria.– Izaera orokorreko betebeharrak.

1.– Kapitulu honetan araututako laguntzen onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridiko pribatuak edo nortasunik gabeko enteak, baldin eta beren gain hartzen badute gutxienez % 10eko partaidetza duen negozio baten gastronomia- edo sukaldaritza-zuzendaritza, eta negozio hori Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta badago.

Onuradunek mikroenpresa edo enpresa txiki edo ertaina izan beharko dute, bat etorritik Mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioarekin.

2.– Ezin izango dira onuradun izan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateak, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

51. oinarria.– Izaera espezifikoko betebeharrak.

1.– Laguntza eskatzen dutenek honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) Proiektu gastronomiko berriak sustatzeko laguntza-lerroan: negozio berriari gastronomia- edo sukaldaritza-zuzendaritza beren gain hartuko duten pertsona fisikoek gastronomiako unibertsitate-graduak titulatu bat edo sukaldaritza- edo gastronomiako goi mailako zikloetako titulatu bat izan behar dute, eta gehienez 40 urte bete 2026. urtean.

b) Bikaintasuna sendotzeko programaren laguntza-lerroan, eskatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako establezimendu gastronomiko baten titularra izan edo hura zuzendu beharko dute, goi-mailako kalitatearekin eta ibilbidearekin, hala aitortuta nazioartean erabiltzen diren bikaintasun gastronomikoko zerrendetan eta gastronomia-gidetan, esaterako: Michelin Gidaliburua, Repsol Gida, San Pellegrino zerrenda, Zagat Gida, Macarfi zerrenda, OAD Zerrenda edo Euskal Gastronomia Akademiaren Gida.

c) Aurreko aintzatespenak ez dituzten eta azken bi urteetan ireki diren establezimenduen kasuan, halakoen titularrak diren edo haiek zuzentzen dituzten pertsona fisikoek establezimendu gastronomiko baten titular izan behar izan dute edo hura zuzendu, goi-mailako kalitatearekin eta ibilbidearekin, hala aitortuta nazioartean erabiltzen diren bikaintasun gastronomikoko zerrendetan eta gastronomia-gidetan, eta aurreko paragrafoetan aipatuta.

d) Integrazio bertikaleko proiektuetarako, eskatzaileek modu frogagarrian egiaztatu beharko dute integrazio bertikalaren oinarri den produktuaren ekoizpen-kate osoaren % 50etik gorako kontrola dutela, lehengaietatik hasi eta negozio gastronomikoraino.

e) Inbertsio-proiektua gauzatuko duten establezimenduek eskatzaileen eskura egon beharko dute eta jabetzan eduki beharko da, edo, bestela, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera gutxienez 5 urterako errentamendu-kontratua egiteko konpromisoa hartu beharko da, edo gutxienez 5 urteko indarraldia geratu beharko zaio errentamendu-kontratuari.

2.– Inbertsio-proiektuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Proiektu gastronomiko berrien lerroari heldu nahi dioten proiektuetan egin beharreko gutxienerako inbertsioa 30.000,00 eurokoa izango da, aktibo finkoetan.

b) Bikaintasuna sendotzeko programaren laguntza-lerroan, baldintza hauek bete beharko dira:

i) Helburutzat izatea jatetxearen kategoria hobetzea edo areagotzea, aurreko paragrafoan aipatutako nazioarteko gastronomia-gida eta bikaintasun gastronomikoko zerrenda garrantzitsuenetan jada aitortua duen kategoriatik abiatuta.

b) 75.000,00 euroko gutxienerako inbertsioa izatea, aktibo finkoetan.

a) Integrazio bertikaleko programari heldu nahi dioten proiektuetan egin beharreko gutxienerako inbertsioa 30.000,00 eurokoa izango da, aktibo finkoetan.

52. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak.

1.– Enpresaren balantzean, Kontabilitate Plan Orokorreko 2. Taldean kontabilizatu ahal izango dira inbertsio guztiak. Aplikatzekoak izango dira Dirulaguntzen Araubidea Erregula-

tzeko abenduaren 21eko 20/2003 Legearen 30. artikuluan diruz lagundu daitezkeen gastuei buruz ezarrita dauden zehaztapen guztiak; hauek izango dira:

- Lokalak egokitzeko lanak, makineria erostea, instalazioak egitea, altzariak.
- Inbertsioak egitea, ingurumen-inpaktua minimizatzeko eta desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna hobetzeko.
- Honako hauek ere dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartuko dira, enpresaren urteko kontuetan inbertsio gisa kontabilizatu ez arren:
 - Obra egiteko nahitaezkoak diren ordainsari profesionalak, gehienez ere proiektuaren egikaritze materialaren % 8ra arte.
 - Bikaintasuna sustatzeko aholkularitza-plana, diruz lagundu daitekeen proiektuaren guztizkoaren % 20ra arte.

2.– Hala ere, proiektu gastronomiko berriak sustatzeko programarako, honako gastu hauek izango dira diruz lagungarriak:

- Proiektua gauzatuko den lokalaren lehen urteko errentamendua, 100.000 euroko mugarekin.
- Lokala erostea edo eskualdatzea, 100.000 euroko mugarekin.

53. oinarria.– Diruz lagunduko ez diren inbertsioak.

Kapitulu honen esparruan, 8. oinarrian xedatutakoez gain, honako hauek ere ez dira lagunduko diruz:

- a) Bulegoko altzariak.
- b) Sukaldeko tresneria.
- c) Dekorazio-elementuak.
- d) Luxuzko inbertsioak.
- e) Makineria ez den inbertsioen finantza-errentamendua.
- f) Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta beste zerga eta tasa batzuk.
- g) 1.000 eurotik beherako unitate-zenbatekoa duten elementu diruz lagungarriak.
- h) Kontabilitate Plan Orokorreko 6. Taldean kontabilizatu behar diren kostuak, edonon dela enpresak non kontabilizatu dituen, honako hauek izan ezik: aholkularitza-plana, obra egiteko nahitaezko ordainsari profesionalak eta establezimendu berrien kasuan lehen urteko errentamendua.

54. oinarria.– Kapitulu honen laguntzen finantzaketa, zenbatekoa eta ezaugarriak.

1.– 4. oinarrian ezarri bezala, kapitulu honetan jasotako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako kredituetatik baino ez dira etorriko; guztira, 600.000,00 eurokoak izango dira, eta 2026ko eta 2027ko ekitaldien artean banatuko dira, 300.000,00 euro ekitaldi bakoitzean.

2.– Gehieneko diru-zuzkidura orokor horietatik:

- a) 200.000,00 euro proiektu gastronomiko berriak sustatzeko programara bideratuko dira, honela banatuta: 100.000,00 euro 2026ko ordainketa-kredituaren kargura, eta 100.000,00 euro 2027ko konpromiso-kredituaren kargura.
- b) 200.000,00 euro bikaintasuna sendotzeko programara bideratuko dira, honela banatuta: 100.000,00 euro 2026ko ordainketa-kredituaren kargura, eta 100.000,00 euro 2027ko konpromiso-kredituaren kargura.
- c) 200.000,00 euro negozio gastronomikoen integrazio bertikaleko programara bideratuko dira, honela banatuta: 100.000,00 euro 2026ko ordainketa-kredituaren kargura, eta 100.000,00 euro 2027ko konpromiso-kredituaren kargura.

Lerroetako baten zuzkidura agortzen ez bada, sobera geratu den kopurua beste lerroari gehitu ahalko zaio, baldin eta diruz lagundu daitezkeen proiektuak geratuko balira horretan.

3.– Laguntza hauek itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira, kopuru hauekin:

- Negozio gastronomikoen proiektu berriak: diruz lagundu daitekeen inbertsioaren % 40 gehienez, proiektu bakoitzeko 50.000,00 euroko mugarekin.
- Bikaintasuna sendotzea: diruz lagundu daitekeen inbertsioaren % 40 gehienez, proiektu bakoitzeko 80.000,00 euroko mugarekin.
- Integrazio bertikaleko proiektuak: diruz lagundu daitekeen inbertsioaren % 40 gehienez, proiektu bakoitzeko 50.000,00 euroko mugarekin.

55. oinarria.– Inbertsio-proiektuen balorazioa.

1.– Kapitulu honetan jasotako inbertsio-proiektuen balorazioa oinarri honetan ezarritakoaren arabera egingo da; kuantifikazioa, berriz, 56. oinarrian xedatutakoaren arabera. Proiektu bakoitzari eman beharreko puntuazio zehatza kalkulatzeko, bete beharreko hurrengo balorazio-irizpideak eta dagozkien puntuazioak hartuko dira kontuan.

2.– Irizpide horiek laguntza-eskabidea aurkezteko unean bete eta egiaztatu behar dira, salbu eta enplegua sortzeko irizpidean eta enpresa sortu berrien kasuan; kasu horietan, betetzearen erantzukizunpeko adierazpena onartuko da.

3.– Erantzukizunpeko adierazpenaren xede diren irizpideak ordainketa egin aurre-aurreko unean bete beharko dira, eta betetze hori laguntzaren baldintzak mantentzeko nahitaezko aldian zehar berrikusiko da.

4.– Hauek dira irizpideak eta balorazioak:

a) Proiektu gastronomiko berriak sustatzeko programari dagokionez, 100 puntu lortu ahal izango dira gehienez, honela banatuta:

i) Gehienez, 20 puntu emango dira, establezimenduaren gastronomia- edo sukaldaritza-zuzendaritza bere gain hartuko duen pertsonaren espediente akademikoaren arabera, espedientearen batez besteko notaren arabera:

a.1.– Espedientearen batez besteko nota: 8,51-10,00: 20 puntu.

a.2.– Espedientearen batez besteko nota: 6,51-8,50: 10 puntu.

a.3.– Espedientearen batez besteko nota: 5,00-6,50: 5 puntu.

ii) 20 puntu emango dira gehienez, eskatzailearen lan-esperientziaren arabera, zehazki, Michelin Gidan, Repsol Gidan, The Best Chef Award-en edo Gastronomiako Sari Nazionalen aitortutako establezimenduak dituzten chefekin, irizpide hauen arabera:

b.1.– 2 urteko edo hortik gorako lan-kontratua: 20 puntu.

b.2.– 2 urtetik beherako lan-kontratua: 10 puntu.

b.3.– urtebeteko edo hortik gorako beka /praktikak: 5 puntu.

iii) Gehienez ere, 30 puntu emango dira, tokiko produktua erosteko euskal produktoreekin formalizatutako gutxienez bi urteko iraupeneko konpromiso-aurrekontratuen arabera. Tokiko produktutzat hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko kalitate bereiziko markei atxikitako produktu oro, hala nola Eusko Label, Euskal Baserri, Jatorri Deitura Babestua (JDB), Adierazpen Geografiko Babestua (AGB), Euskadiko produktu ekologikoa eta ekoizpen integratuko produktua. Halakotzat hartuko dira, halaber, Basque Wine markak babestutako produktuak.

c.1.– Tokiko produktuak erosteko kontratu bakoitzeko: 2 puntu.

c.2.– Ekoizlearekin zuzenean egindako tokiko produktua erosteko kontratu bakoitzeko: 4 puntu.

iv) Gehienez ere, 10 puntu emango dira enpresaren komunikazio-estrategiaren arabera, parametro hauen arabera:

d.1.– Komunikazio-plan bat edukitzea, kanalak, erremintak eta aurrekontuak zehazten dituenak: 5 puntu.

d.2.– Eguneroko jarduera sare sozialetan: 5 puntu.

v) 10 puntu emango dira establezimendu berriak intolerantzien edo alergenoen karta badu.

vi) 10 puntu emango dira inbertsioaren % 10 baino gehiago bideratzen bada energia-efizientzia hobetzera, hondakinak minimizatzen edo oztopo arkitektonikoak ezabatzen.

b) Bikaintasuna sendotzeko programari dagokionez, 100 puntu lortu ahal izango dira gehienez, honela banatuta:

i) 20 puntu emango dira gehienez, establezimenduak nazioartean ezagunak diren sukaldaritza-gidetan eta bikaintasun gastronomikoko rankinetan duen aintzatespen egiaztatuaren arabera, honako honen arabera:

a.1.– Hiru Michelin izar: 20 puntu emango dira.

a.2.– Bi Michelin izar: 15 puntu emango dira.

a.3.– Michelin izar bat edo, Repsol solak, edo Izar Berdeak bezalako aitorenak: 10 puntu emango dira.

ii) Gehienez ere, 50 puntu emango dira, tokiko produktua erosteko formalizatutako bi urteko iraupeneko konpromiso-kontratuen arabera. Tokiko produktutzat hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko kalitate bereiziko markei atxikitako produktu oro, hala nola Eusko Label, Euskal Baserri, Jatorri Deitura Babestua (JDB), Adierazpen Geografiko

Babestua (AGB), Euskadiko produktu ekologikoa eta ekoizpen integratuko produktua. Halakotzat hartuko dira, halaber, Basque Wine markak babestutako produktuak.

b.1.– Tokiko produktuak erosteko kontratu bakoitzeko: 2 puntu.

b.2.– Ekoizlearekin zuzenean egindako tokiko produktua erosteko kontratu bakoitzeko: 4 puntu.

iii) Gehienez ere, 10 puntu emango dira enpresaren komunikazio-estrategiaren arabera, parametro hauen arabera:

d.1.– Komunikazio-plan bat edukitzea, kanalak, erremintak eta aurrekontuak zehazten dituenak: 5 puntu.

d.2.– Eguneroko jarduera sare sozialetan: 5 puntu.

iv) 10 puntu emango dira establezimenduak intolerantzien edo alergenoen karta badu.

v) 10 puntu emango dira inbertsioaren % 10 baino gehiago bideratzen bada energia-efizientzia hobetzerak, hondakinak minimizatzerak edo oztopo arkitektonikoak ezabatzerak.

c) Integrazio bertikaleko programari dagokionez, 100 puntu lortu ahal izango dira gehienez, honela banatuta:

i) 20 puntu emango dira establezimenduak, bikaintasun gastronomikoko sukaldaritza-gidetan eta rankingetan, Repsol solak, edo Izar eta Eguzki Berdeak bezalako aitorpen egiaztatua badu.

ii) Gehienez ere, 50 puntu emango dira, tokiko produktua erosteko formalizatutako bi urteko iraupeneko konpromiso-kontratuen arabera. Tokiko produktutzat hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko kalitate bereiziko markei atxikitako produktu oro, hala nola Eusko Label, Euskal Baserri, Jatorri Deitura Babestua (JDB), Adierazpen Geografiko Babestua (AGB), Euskadiko produktu ekologikoa eta ekoizpen integratuko produktua. Halakotzat hartuko dira, halaber, Basque Wine markak babestutako produktuak.

b.1.– Tokiko produktuak erosteko kontratu bakoitzeko: 2 puntu.

b.2.– Ekoizlearekin zuzenean egindako tokiko produktua erosteko kontratu bakoitzeko: 4 puntu.

iii) Gehienez ere, 10 puntu emango dira enpresaren komunikazio-estrategiaren arabera, parametro hauen arabera:

c.1.– Komunikazio-plan bat edukitzea, kanalak, erremintak eta aurrekontuak zehazten dituenak: 5 puntu.

c.2.– Eguneroko jarduera sare sozialetan: 5 puntu.

iv) 10 puntu emango dira establezimenduak intolerantzien edo alergenoen karta badu.

v) 10 puntu emango dira inbertsioaren % 10 baino gehiago bideratzen bada energia-efizientzia hobetzerak, hondakinak minimizatzerak edo oztopo arkitektonikoak ezabatzerak.

56. oinarria.– Laguntzaren zenbatekoa.

1.– VI. kapituluko 1. eta 3. lerroetan, diruz lagundu daitezkeen inbertsioaren zenbatekoaren % 40 izango da laguntzaren gehieneko ehunekoa, eta 2. lerroan, berriz, laguntzaren gehieneko ehunekoa % 30 izango da.

2.– Inbertsio-proiektu bakoitzak aurreko oinarriarekin bat etorrira lortzen duen balorazioaren arabera, inbertsio-proiektu bakoitzari esleitu beharreko zuzeneko laguntza honela gauzatuko da:

a) Negozio gastronomiko berrien lerroan:

- i) Gehienez, 40 puntu: % 0 lagunduko da diruz.
- ii) 41 eta 50 puntu bitartean: % 20 lagunduko da diruz.
- iii) 51 eta 70 puntu bitartean: % 30 lagunduko da diruz.
- iv) 70 puntu baino gehiago: % 40 lagunduko da diruz.

b) Bikaintasuna sendotzeko lerroan:

- i) Gehienez, 50 puntu: % 0 lagunduko da diruz.
- ii) 51 eta 60 puntu bitartean: % 20 lagunduko da diruz.
- iii) 61 eta 70 puntu bitartean: % 25 lagunduko da diruz.
- iv) 70 puntu baino gehiago: % 30 lagunduko da diruz.

c) Integrazio bertikaleko lerrorako:

- i) Gehienez, 40 puntu: % 0 lagunduko da diruz.
- ii) 41 eta 50 puntu bitartean: % 20 lagunduko da diruz.
- iii) 51 eta 70 puntu bitartean: % 30 lagunduko da diruz.
- iv) 70 puntu baino gehiago: % 40 lagunduko da diruz.

3.– Kasu guztietan eta lerro guztietan, puntuazio-berdinketa izanez gero, tokiko produktuak erosteko konpromisoekin lotutako balorazio-irizpidean puntuazio handiena lortu duen proiektua lehenetsiko da.

4.– Berdinketak irauten badu, eskabidearen sarrera-ordena aplikatuko da.

5.– Erregelamendu honen de minimis araubideko laguntzen onuradunek ezin izango dute 300.000 euroko laguntza-muga gainditu emakidaren aurreko hiru urteetan, eta, gainera, eskabidean jakinarazi beharko dute de minimis laguntzarik jaso duten aurreko hiru urteetan; hala izan bada, emailearen identitatea eta emandako zenbatekoa jakinarazi beharko dituzte.

I. ERANSKINA

ESKABIDEA ETA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Laguntzaren eskaera-inprimakia webgune honetan dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0034216>

Hau da inprimakiaren oinarrizko edukia:

- Inbertsioak Egiteko Lehiatu Programa 2026.
- Kodea.
- Organo kudeatzailea: Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritza.
- Nortasun-datuak.
 - Titularra.
 - Ordezkarria.
- Abisuak jasotzeko datuak.
 - Helbide elektronikoa.
 - SMS
 - Jakinarazpenen hizkuntza.
 - Adostasuna.
- Datu-babesari buruzko oinarrizko informazioa.
- Zerga-egoitza.
- Eskatzailearen datu fiskalak zer lurralde historikotan dauden.
- Pertsona juridikoak: sozietate-izena, kapital sozialaren egungo egitura, IFZ eta sozietate-partaidetza.
- Sozietate zibilen eta ondasun-erkidegoen kasuan: parte-hartzaileen izen-abizenak eta IFZ.
- Enplegatuen kopurua, sexuaren arabera banakatuta.
- Egun garatutako edo aurreikusitako jarduerak.
- Erabili edo aurreikusi diren lehengaiak.
- Fabrikatu edo aurreikusi diren produktuak.
- Salmenten balioa inbertsioa egin aurretik / salmenten balioaren aurreikuspena inbertsioa egin ondoren.
- Inbertsio-proiektua.
 - Izenburua.
 - Deskribapena.

- Kokalekua.
 - Inbertsioaren zenbatekoa, kontzeptuen eta urteen arabera banakatuta.
 - Proiektuaren finantzaketa.
- Laguntza-eskaeraren xede den aginduaren kapitulua.
 - Balorazio-irizpideak, aginduaren kapituluaren arabera.
 - Informazio osagarria.
 - Erantzukizunpeko adierazpen hauek:
 - 1.– Enpresak bideragarritasun ekonomikoa du, eta bere produktuei nahiko etorkizun ona aurreikusten zaie merkatuan.
 - 2.– Ezin daiteke hartu krisialdian dagoen enpresatzat, krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko gidalerroetan ezarritako definizioaren arabera (2014/C 249/01).
 - 3.– Proiektuak bete egiten ditu ingurumenaren arloko arauak, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzekoa den araudi espezifikoarekin bat (abenduaren 9ko 21/2013 Legea, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa, eta otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko ingurugiroa babestekoa).
 - 4.– Eskatu du/Ez du eskatu eta eskuratu du/ez du eskuratu diruz lagundu daitekeen proiektu bera ordaintzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik beste administrazio publiko edo, entitate publiko nahiz pribaturen batean.
 - 5.– Egunean dago kantitateen ordainketari dagokionez, baldin eta halakorik zehaztu bada EAEko Administrazioak eta haren mendeko enteek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruko itzultze- edo zehapen-prozeduraren batean.
 - 6.– Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik, penalik edo epai irmo bidezko kondenarik, ezta horretarako inolako legezko debekurik ere, sexu-diskriminazioagatiko debekuak barne, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen 23.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, zeinaren testuategina martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu baitzen.
 - 7.– Ez du eskatu konkurtso-deklaraziorik, ez dago edozein prozeduratan kaudimengabetzat deklaraturik, ez dago konkurtsoan deklaraturik, ez dago esku-hartze judizialaren mende edo ez dago desgaitua Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitzealdia amaitu gabe.
 - 8.– Ez du jaso, ebazpen irmo baten bidez, dirulaguntzak lortzeko aukera galtzeko zehapena.
 - 9.– Ez du eragin Administrazioarekin egindako kontraturen baten suntsiarazpen irmorik, kausaren batean errudun deklaraturik izateagatik.
 - 10.– Ez du urratu Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izateko betebeharra, ez eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko Estatuko legeriak xedatutako baldintzetan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezartzeko betebeharra ere (50 langiletik gorako enpresak).

11.– Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaritza dutenak ez daude Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako kasuren batean, edo ez dutela Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat, lege horretan edo arlo hau arautzen duen araudi autonomikoan ezarritako baldintzetan.

12.– Ez du laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galduta, ebazpen irmo baten bidez ezarritako zehapena dela-eta, edo honako delitu hauetakoren bat egin izanagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

13.– Egoitza fiskala ez du paradisu fiskaltzat hartutako lurralde edo herrialde batean.

14.– Elkarteen kasuan, ez daude sartuta Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debekuen kausetan. Eta etenda ez egotea inskribatzeko administrazio-prozedura, ez-zilegitasun penalaren arrazoizko zantzuak aurkitzeagatik, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan ezarritakoa aplikatzeko, harik eta ebazpen judizial irmoa egon arte; kasu horretan, dagokion inskripzioa egin ahal izango da, dagokion erregistroan.

15.– Ez egotea zigortuta Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batenagatik, administrazio-bidean emandako ebazpen irmo baten bidez, zuzenketa-neurri egokiak hartu eta zehapena ordaindu arte.

16.– LGTBI-fobiaz jokatu ez izana, edo hura bultzatu edo sustatu ez izana, bihurketa-terapiak sustatzea edo egitea barne (otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua).

17.– Ez urratu izana desgaitasuna duten pertsonentzat lanpostuak erreserbatzeko legez ezarritako kuota, hura betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla egiaztatu gabe.

18.– Ez du jaso enpresa-deslokalizazioaren deklaraziorik, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzearen abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 51. artikuluan ezarritakoaren arabera.

19.– Eskatutako laguntza jarduera berberetarako onartuta edo ordainduta dauden beste batzuekin bateragarria izatea baimenduta egonik, ez dago gainfinantzaketarik; nolana ere, etorkizunean helburu bererako jasotzen dituenak jakinarazi beharko ditu, laguntza likidatu arteko aldian.

20.– Ez dago berreskuratze-agindu baten mende, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

21.– Enpresa-mota: Markatu dagokiona:

– Enpresa txiki edo ertaintzat hartu daitekeela, Batzordearen 2023ko urriaren 17ko 2023/2775 (EB) Zuzentarau Delegatuan xedatutakoaren arabera. Zuzentarau horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/34/EB Zuzentaraua aldatzen du, tamaina mikro, txiki, ertain eta handiko enpresen edo taldeen tamainaren irizpideak egokitzeari dagokionez.

Enpresaren kategoriak:

• ETE-mikroenpresa (10 enplegatu baino gutxiago eta 2 milioiko edo hortik beherako urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra).

- ETE-enpresa txikia (50 enplegatu baino gutxiago eta 10 milioi euroko edo hortik beherako urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra).
- ETE-enpresa ertaina (250 enplegatu baino gutxiago eta 43 milioi euroko edo hortik beherako urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra).
 - Enpresa ez dela enpresa txikia edo ertaina, bat etorritik Mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Batzordearen maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioarekin.
 - Enpresaren kategoria, sozietateen gaineko zergan edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan islatzen dena, ez dela aldatu.
 - Diruz lagundu daitekeen proiektu bererako, eskatu dio/ez dio eskatu bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik beste administrazio publiko edo ente publiko zein pribaturen bati de minimis araubidearen pean, eta halakorik eskuratu du/ez du eskuratu. Erantzuna baiezkua bada, taula hau bete beharko da:

Ekitaldi ekonomikoa Emailearen identitatea Emandako zenbatekoa 2022 2023 2024 2025

Ekitaldia	Entitate emailea	Emandako kopurua
2023		
2024		
2025		
2026		

Betekizunak betetzeari eta aurkeztutako datuak zehatzak izateari buruz, hau adierazten dut:

- Indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen ditudala.
- Egiazkoak eta osoak dira eskabide honetako datu guztiak, baita aurkezten ditudan agiri guztiak ere, eta neure gain hartzen dut horren erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazio-
ren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari
ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaritzen dena betetzen dela egiazta-
tzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, orduan ezinezkoa izango da dena delako
eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik ber-
tatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak
(Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen
69.4 artikulua).

Azkenik, adierazten dut konpromisoa hartzen dudala enpresa ez deslokalizatzeko, Dirulagun-
tzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezartzen den
moduan, bai eta gainfinantzaketarik ez izateko ere, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko aben-
duaren 21eko 20/2023 Legearen 9.4.h) artikuluan xedatutakoaren arabera.

II. ERANSKINA

MEMORIA TEKNIKO-EKONOMIKOA

Memoriak parametro hauek eduki behar ditu:

- 1.– Sustatzaileak identifikatzea (enpresaren aurrekariak).
- 2.– Enpresaren egitura. Sozietate zibilen eta ondasun-erkidegoen kasuan, adierazi parte-hartzaile guztiak eta haien NAN-zenbakiak.
- 3.– Erabilitako lehengaiak, haien jatorria. Ekoizpen-prozesuaren deskribapen laburra: produktu landuak.
- 4.– Egin beharreko inbertsio-proiektuaren kokalekua.
- 5.– Ekoizpen-prozesu berrien eta lortu beharreko produktuen deskribapena (halakorik bada).
- 6.– Egin beharreko inbertsioen deskripzioa.
- 7.– Inbertsioak egiteko aurreikusitako aurrekontua.
- 8.– Gauzatzeko epea.
- 9.– Proiektua finantzatzeko iturriak.
- 10.– Inbertsioarekin aurreikusten diren emaitzak (ekonomikoak, modernizazioa, enplegu-sorkuntza...).
- 11.– Azken bi urteetako balantzea eta emaitza-kontua.
- 12.– 1.000.000,00 eurotik gorako inbertsioetarako, inbertsio-proiektuaren bideragarritasun-azterketa.

III. ERANSKINA
KOSTU-MODERAZIOAREN TAULA

Inbertsioa		Hornitzailea					Aurrekontua			
Zk.	Kontzeptua/Deskribapena	Izena	IFZa	Harremanetarako pertsona eta telefonoa	Noiz eta nola eskatu den aurrekontua	Noiz eta nola jaso den aurrekontua	Zk.	Data	Zenbateko garbia	Hautuaren arrazoia
1										
										Hautatutako aurrekontua

Inbertsioa		Hornitzailea					Aurrekontua			
Zk.	Kontzeptua/Deskribapena	Izena	IFZa	Harremanetarako pertsona eta telefonoa	Noiz eta nola eskatu den aurrekontua	Noiz eta nola jaso den aurrekontua	Zk.	Data	Zenbateko garbia	Hautuaren arrazoia
2										
										Hautatutako aurrekontua

Inbertsioa		Hornitzailea					Aurrekontua			
Zk.	Kontzeptua/Deskribapena	Izena	IFZa	Harremanetarako pertsona eta telefonoa	Noiz eta nola eskatu den aurrekontua	Noiz eta nola jaso den aurrekontua	Zk.	Data	Zenbateko garbia	Hautuaren arrazoia
3										
										Hautatutako aurrekontua

Inbertsioa		Hornitzailea					Aurrekontua			
Zk.	Kontzeptua/Deskribapena	Izena	IFZa	Harremanetarako pertsona eta telefonoa	Noiz eta nola eskatu den aurrekontua	Noiz eta nola jaso den aurrekontua	Zk.	Data	Zenbateko garbia	Hautuaren arrazoiak
4										
										Hautatutako aurrekontua

Inbertsioa		Hornitzailea					Aurrekontua			
Zk.	Kontzeptua/Deskribapena	Izena	IFZa	Harremanetarako pertsona eta telefonoa	Noiz eta nola eskatu den aurrekontua	Noiz eta nola jaso den aurrekontua	Zk.	Data	Zenbateko garbia	Hautuaren arrazoiak
5										
										Hautatutako aurrekontua

Inbertsioa		Hornitzailea					Aurrekontua			
Zk.	Kontzeptua/Deskribapena	Izena	IFZa	Harremanetarako pertsona eta telefonoa	Noiz eta nola eskatu den aurrekontua	Noiz eta nola jaso den aurrekontua	Zk.	Data	Zenbateko garbia	Hautuaren arrazoiak
6										
										Hautatutako aurrekontua

Inbertsioa		Hornitzailea					Aurrekontua			
Zk.	Kontzeptua/Deskribapena	Izena	IFZa	Harremanetarako pertsona eta telefonoa	Noiz eta nola eskatu den aurrekontua	Noiz eta nola jaso den aurrekontua	Zk.	Data	Zenbateko garbia	Hautuaren arrazoiak
7										
										Hautatutako aurrekontua

IV. ERANSKINA

AZAROAREN 17KO 38/2003 LEGEAREN 13.3 BIS ARTIKULUA BETETZEA

_____ jaunak/andrea (NAN zenbakia: _____)
_____ enpresaren ordezkari gisa (IFZ: _____),
Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, ordezeko moduan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan xedatutakoaren arabera, hauxe

EGIAZTATZEN DU:

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 bis artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren Aurkako Neurriak Ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen aplikazio-eremuan sartuta egonik (markatu dagokiona):

☐ Enpresak, kontabilitateko araudiaren arabera, ezin du galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu eta, beraz, Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditore batek igorritako ziurtagiri hau aurkeztu du, baldintza betetzen duela egiaztatzeko (enpresa hornitzailearen kobranta aurreraturako edozein finantzaketa gorabehera):

☐ Urteko azken kontuetako auditoretza-txostenetik ondorioztatzen bada hornitzaileei egin beharreko ordainketen epeak % 90 bete direla: Auditoreak igorritako ziurtagiria, bere auditoretza-lanean urteko kontuen memoriaren edukiaren zuzentasunaren gaineko ebidentzia lortzeko prozedurak egin direla adierazten duena, 13.3 bis artikuluko baldintza betetzen dela ziurtatzeko.

☐ Ziurtagiri hori ematea ezinezkoa bada (ikuskatutako urteko konturik ez dagoelako edo kontu horiek hornitzaileei ordaintzeko epeen betetze-portzentajea % 90etik beherakoa delako): Ziurtagiria, «Adostutako Prozeduren Txosten» batean oinarrituta, dirulaguntzaren eskabidea egin edo ordainketa justifikatzeko orduan (dagokiona) baldintza betetzen dela egiaztatzeko (ziurtagiriak sei hilabeterako balioko du).

☐ Enpresak, kontabilitateko araudiaren arabera, galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu dezake, eta, beraz, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 26. artikuluen arabera gainerako kasuen eraginpean dago, honako hau adieraziz:

☐ Ez dago azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.3.bis artikuluko ezein kasutan.

_____(e)n, 202_(e)ko _____ren _____(e)(a)n

Sinadura elektronikoa

Izpta.: _____

V. ERANSKINA

BALORAZIO-IRIZPIDEAK BETETZEN DIRELA JUSTIFIKATZEA

Balorazio-irizpideak eta bestelako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agirien zerrenda ez-oso

1.– Balorazio-irizpideak.

Balorazio-irizpidea	Euskarri-dokumentazio ez-esklusiboa
Emakumeek sustatutako inbertsio-proiektuak. Enpresa berria pertsona fisikoa ez bada, haren partaidetza % 50ekoa edo altuagoa izatea baloratuko da.	Pertsona fisikoa izanez gero, NANA. Pertsona juridikoa izanez gero: eratze-eskritura eguneratuak sozietatearen partaidetza egiaztatzeko, eta pertsona fisikoen NANA. 200. eredu
Langileen % 40 emakumeak dituzten enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak.	LZI dokumentua (Langileen izen-zerrenda).
Gerentetzat emakume bat duten enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak.	Kontratua edo izendapen-eskritura, gerentearen nomina eta NANA
Administrazio-kontseiluan edo Artezkaritza-kontseiluan, gutxienez, emakumeen parte-hartze ehuneko orekatua duten enpresek edo kooperatibek sustatutako inbertsio-proiektuak.	Administrazio-kontseiluko edo Artezkaritza-kontseiluko idazkariaren ziurtagiria, batzordekideei eta haien generoari buruzkoa. Pertsona juridikorik baldin badago, ordezkatzan duen pertsona eta haren generoa.
Gazteek (41 urtetik beherakoak) sustatutako inbertsio-proiektuak. Enpresa berria pertsona fisikoa ez bada, haren partaidetza gehiengo izatea baloratuko da.	Pertsona fisikoa izanez gero, NANA. Pertsona juridikoa izanez gero: eratze-eskritura eguneratuak sozietatearen partaidetza egiaztatzeko, eta pertsona fisikoen NANA. 200. eredu
Enpresa berrietan enplegua sortzea.	IFK berria Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egindako txostena, «Gizarte-segurantzaren sisteman enpresaburu gisa inskribatuta ez dagoela» adieraziz Adierazi enplegatuko diren langile berrien kopurua, proposatutako inbertsioek konprometitutako enpleguaren sorkuntzan zer ondorio izango duten justifikatuz.
Lehendik dauden enpresetan enplegua sortzea.	«Enpresan alta emanda dauden langileen batez besteko plantillaren txostena», Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, laguntza eskatu aurreko urtekoa, eta «Enpresan alta emanda dauden langileen batez besteko plantillaren txostena», Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egina, eskaera aurkeztu aurreko hilabetekoa. Ondorio horietarako, lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek ere izaera bera izango dute eta Borondatezko gizarte-prestazioko erakundeek emandako batez besteko plantillaren txostena baliozkoa izango da. Adierazi enplegatuko diren langile berrien kopurua, proposatutako inbertsioek konprometitutako enpleguaren sorkuntzan zer ondorio izango duten justifikatuz.
Proiektuan, makineriak hartzen duen ehunekoa diruz lagundu daitekeen inbertsio guztiaren % 70 baino gehiago izatea.	Inbertsioaren xehakapena, kontzeptu horrek eragindako zenbatekoak eta inbertsio osoaren gainean duten ehunekoa adieraziz.
Proiektuan makineriak hartzen duen ehunekoa diruz lagundu daitekeen inbertsio guztiaren % 50etik % 70era bitartekoa izatea.	Inbertsioaren xehakapena, kontzeptu horrek eragindako zenbatekoak eta inbertsio osoaren gainean duten ehunekoa adieraziz (inbertsio osoaren % 50etik % 70era bitartekoa izan behar du).
Proiektuan, instalazio tekniko industrialek hartzen duten ehunekoa diruz lagundu daitekeen inbertsio guztiaren % 70 baino gehiago izatea.	Inbertsioaren xehakapena, kontzeptu horrek eragindako zenbatekoak eta inbertsio osoaren gainean duten ehunekoa adieraziz.
Proiektuan, instalazio tekniko industrialek hartzen duten ehunekoa diruz lagundu daitekeen inbertsio guztiaren % 50etik % 70ekoa izatea.	Inbertsioaren xehakapena, kontzeptu horrek eragindako zenbatekoak eta inbertsio osoaren gainean duten ehunekoa adieraziz (inbertsio osoaren % 50etik % 70era bitartekoa izan behar du).

Balorazio-irizpidea	Euskarri-dokumentazio ez-esklusiboa
Proiektuan, makineriak eta instalazio tekniko industrialek hartzen duten ehunekoa diruz lagundu daitekeen inbertsio guztiaren % 50 baino gehiago izatea.	Inbertsioaren xehakapena, kontzeptu horrek eragindako zenbatekoak eta inbertsio osoaren gainean duten ehunekoa adieraziz.
1. zaurgarritasun mailako arreta bereziko eremuetan (ABE) dauden enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak	Ofizios egiaztatuko da.
2. zaurgarritasun mailako eremuetan dauden enpresek sustatutako inbertsio-proiektuak, indarrean dagoen landa-zonifikazioko dibertsifikazio ekonomikoko maparen arabera, edo lehentasuneko jarduketa-eremuetan (LJE) daudenak:	Ofizios egiaztatuko da.
Nekazaritzako produkzio-sektoreak garatutako inbertsio-proiektuak izatea; hau da, erabilitako lehengai gehiena eskatzailearena berarena izatea.	Egiaztatu beharko da industrian erabilitako lehengai gehiena eskatzaileak berak lortzen duela.
Proiektuan erabiltzen diren lehengaien % 70 gutxienez EAEn ekoiztitakoak izatea	Ekoizpen-prozesuan erabiltzen diren lehengai nagusiak zein diren eta EAEn ekoizten duten haien hornitzaileak nor diren xehatzen dituen agiria. 347. eredua (hirugarren pertsonetikiko eragiketen gaineko urteko aitortpena) edo hornitzaile horien fakturak. Egiaztatu beharko da batura hori erabilitako lehengaien % 70 dela gutxienez.
Proiektuan erabiltzen diren lehengaien % 30etik % 70era bitartean EAEn ekoiztitakoak izatea	Ekoizpen-prozesuan erabiltzen diren lehengai nagusiak zein diren eta EAEn ekoizten duten haien hornitzaileak nor diren xehatzen dituen agiria. 347. eredua (hirugarren pertsonetikiko eragiketen gaineko urteko aitortpena) edo hornitzaile horien fakturak. Egiaztatu beharko da batura hori erabilitako lehengaien % 30etik % 70era bitartekoa dela.
Proiektuaren bidez ekoizten den guztiaren % 70 baino gehiago EAEko kalitate-bereizgarriren baten babeseko produktuak izatea.	Hori justifikatzen duen indarreko ziurtagiria, eskumena duen entitateak eginda. (Jatorri-deitura, ENEEK...)
Belaunaldi-erleboaren ondoriozko enpresek aurkeztutako inbertsio-proiektuak.	Enpresa-jardueraren aurreko jabeari eta haren guraso-harremanari buruzko dokumentazioa
Kooperatibaren forma juridikoa duten enpresek sustatutako proiektuak.	Sortze-eskritura Kooperatiben Erregistroan izena emanda egotearen egiaztagiria
Beren bazkideen lehengaietatik eratorritako produktu eraldatuak zuzenean merkaturatzen dituzten kooperatiben proiektua izatea	Produktuak merkaturatzen dituzten ekoizleen kooperatiba bat izatea justifikatzen duen agiria.
Energia berriztagarrien gaineko edo hondakinak aprobetxatzeko inbertsioak jasotzen dituzten inbertsio-proiektuak, proiektuaren zenbatekoaren % 10era iristen badira.	Inbertsioaren xehakapena, kontzeptu horrek eragindako zenbatekoak eta inbertsio osoaren gainean duten ehunekoa adieraziz.
Gutxienez ekoizpenaren % 10 esportatzen duten enpresen inbertsio-proiektuak izatea.	390 eredua. BEZa, urteko aitortpen-laburpena (2024. urtea)
Modu eksklusiboan merkataritza-lana egiteko langile bateko edo gehiagoko merkataritza-saila duten enpresen inbertsio proiektuak. Zeregin hori egiteaz arduratzen direnak ezingo dira enpresa filialak izan. Ez dira merkataritza-sail gisa baloratuko ez banaketako langileak, ez txikizkako merkataritzakoak.	Enpresako komertzial batek indarrean duen lan-kontratua eta pertsona horren azken hileko nomina.
Elikadura-sistemako enpresa-jardunbide onen kodera atxikitako enpresak sustatutako inbertsio-proiektuak.	Elikadura-sistemako enpresa-jardunbide onen kodera atxikita dagoela justifikatzen duen agiria.
Basogin-kooperatibek edo, produktuak establezimendu bakarrean eraldatzeko eta merkaturatzeko, zenbait basogintza-ustiatetik elkarrekin sustatzen dituzten proiektuak.	Basogin-kooperatiben eskritura, edo eraldatzeko eta merkaturatzeko sozietate bat, basogintzako hainbat ustiatetik osatua, establezimendu bakarrean eratze dokumentazioa.
2003/361/EE Gomendioaren definizioekin bat, mikroenpresatzat hartu daitezkeen enpresek basogintzako produktuak eraldatzeko, garatzeko eta merkaturatzeko sustatzen dituzten inbertsio-proiektuak.	Enpresa-taldearen sozietate-egitura eta banakako partaidetzak. Hauek adierazi beharko dira taldeko enpresa bakoitzerako: Batez besteko langile kopurua; guztizko aktiboen zenbatekoa; negozio-zifraren zenbateko garbia; taldeko enpresen arteko transakzioak eta horien kontzeptua; zifra horien justifikazioa (itxitako azken ekitaldiko sozietateen gaineko zerga).
Basogintza jasangarriko ziurtagirian zaintza-kateko sistemak ezartzeko proiektuak.	Basogintza jasangarriko ziurtagiria (BJZ ziurtagiria).

Balorazio-irizpidea	Euskarri-dokumentazio ez-esklusiboa
Produktu-zorria Espainiako estatutik kanpoko Europako herrialdeetako merkatuetan duten enpresen proiektuak.	390. Eredua. BEZaren urteko likidazio-aitorpena (eskabidea aurkeztu aurreko urtea).

2.– Beste betekizun batzuk

Beste betekizun batzuk	Euskarri-dokumentazio ez-esklusiboa
MikroETEak edo ETEak.	Pertsona juridikoak badira, eskaera aurkeztu aurreko 3 ekitaldietako sozietateen gaineko zerga. Eskaera aurkeztu den dataren aurreko hiru ekitaldiei dagozkien pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (sozietate zibileko / ondasun-erkidegoko kide guztiena) eta 3 ekitaldietako jarduera ekonomikoen eranskina. Enpresaren jabe den pertsona fisiko edo juridikoren batek enpresaren kapitalaren edo akzioen % 25 baino gehiago badu, pertsona juridiko horren sozietateen gaineko zerga eta, pertsona fisikoa bada, PFEZa jarduera ekonomikoen eranskinarekin.
Enpresa-taldea	Enpresa zein taldetakoa den, talde horren antolamendu-egituraren dokumentazioa, partaidetza-ehunekoak adierazita (laguntza eskatzen den egunean). Hauen datu agregatuak: – Negozio-zifraren zenbateko garbia. – Batez besteko langile kopurua. – Aktiboaren zenbatekoa, guztira. Aurretik emandako datuak egiaztatzen dituen dokumentazioa, hala nola aurreko hiru ekitaldietako urteko kontu bateratuak, enpresa bakoitzaren urteko kontu ikuskatuak (halakorik ezean, Merkataritza Erregistroan aurkeztutako balantzea eta galdu-irabazien kontua), sozietateen gaineko zerga eta abar. Datu agregatuak zehazteko, enpresa eskatzailearen datuei –haren kontuen oinarriaren arabera edo, halakorik bada, kontu bateratuen oinarriaren arabera lortu direnei– datu hauek gehitu beharko zaizkie: – Enpresa elkartuak (enpresa eskatzailea beste enpresa bateko bazkidea da, baldin eta enpresa horren % 25etik % 50era bitarteko partaidetza badu, edo enpresa eskatzaileak kapitalaren edo boto-eskubideen % 25etik eta % 50era bitarteko partaidetza badu). Kapitaleko edo boto-eskubideetako partaidetza-ehunekoari (handiena) datu proportzionalak gehitzen zaizkio. – Lotutako enpresak (mota hori talde bateko kide diren enpresei dagokie, taldeak, zuzenean edo zeharka, kapitalaren edo boto-eskubideen gehiengoak kontrolatzen badu –% 50etik gorakoa, nahiz eta akordioen edo pertsona fisiko akziodunen bidez izan– edo enpresan eragin nagusia izan badezake). Enpresa horien datuen % 100 gehituko zaie enpresa eskatzailearen datuei, kontu bateratuetan sartu ez direnean. Horrez gain, enpresa eskatzailearekin elkartutako enpresak beste enpresa batzuei lotuta baldin badaude, enpresa elkartu horiei lotutako enpresen datuen % 100 erantsi beharko dira. Era berean, enpresa eskatzaileari lotutako enpresak beste enpresa batzuekin elkartuta badaude, lotutako enpresekin elkartutako enpresen datu proportzionalak erantsiko dira. Lotutako enpresekin lotutako enpresen datuen % 100 ere sartuko dira.
Nekazaritza eta Elikadurako Industrien Erregistroan (NEIE) inskribatzea	Inbertsioak egingo diren establezimendua NEIEan erregistratzea.
Berankortasunaren aurkako 3/2004 Legea betetzea	Eskatutako dirulaguntza 30.000 eurotik gorakoa bada, Merkataritza Erregistroan erregistratutako urteko kontuak aurkeztea. – Galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu dezaketen sozietateek ziurtagiria aurkeztu beharko dute, 38/2003 Legearen 13.3 bis artikuluan ezarritakoaren arabera. – Kontu laburtuak aurkeztu ezin dituzten sozietateek Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditore batek emandako prozedura adostuen ziurtagiria/txostena aurkeztu beharko dute, abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak egiaztatzeko.
Berdintasun Plana	50 langile edo gehiago dituzten enpresen kasuan, Berdintasun Plana, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera eskatuta, bai eta plan hori Hitzarmen Kolektiboan Erregistroan (REGCON) dagoela adierazten duen frogagiria ere.
Desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuak gordetzea.	50 langile edo gehiago dituzten enpresen kasuan, desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuak erreserbatzeko lege ezarritako kuota bete izanaren egiaztatzea. Betetzen ez badu, hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla egiaztatzea.

Beste betekizun batzuk	Euskarri-dokumentazio ez-esklusiboa
Kostu-moderazioa	Aurrekontuak eta proformako fakturak, inbertsioa edo gastuak justifikatzeko: Elkarren artean, 3 hornitzaile desberdinen 3 eskaintza independente, eskatutako inbertsio guzti-guztien eskatzailearekin batera. Eskatutako inbertsio guztiak banan-banan azaltzen dituen Excel taula, eta bakoitzaren hiru aurrekontuak, zein aurrekontu aukeratu den adierazita. Aurrekontu bakarra aurkeztuz gero: Justifikazio-memoria, gorabehera hori modu erantzunezinean argudiatzen duena.
Higiezinak erosten direnean edo haietan obra egiten denean	Higiezinak erosiz gero, indarreko tasazio ofiziala eta eraikinak azken 10 urtetan laguntzarik jaso ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena. Lokal bat berritzea eskatuz gero, eraikinak azken 7 urteetan xede bererako laguntzarik jaso ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena. Obra ekoizpen-establezimendu berri bat egiteko bada, inbertsioa exekutatu den lursail edo higiezinaren jabetza-tituluaren kopia edo gozamen- edo alokairu-kontratuaren kopia. Obra egiteko proiektua, oniritziarekin, dirulaguntzarako aurkeztu diren inbertsio guztiak jasotzen dituen (obra eta instalazioak). Nahitaezko lizentzien eta baimenen eskaera osoaren kopia. Lizentzia edo baimen horiek behar ez badira, lizentzia eta baimen horiek ez direla behar adierazten duen udalaren ziurtagiria. Dirulaguntzarako aurkeztu diren zenbatekoak bat etorri beharko dira obra-lizentziarako aitortutako zenbatekoekin.
Ekoizpen ekologikoa	Kalitate Bereiztuaren Ziurtagiria: Ekologikoa.
Titulazioa akademikoa	Tituluaren kopia autentikoa eta espediente akademikoaren kopia.
Esperientzia gastronomikoa	Sinatutako kontratuak.
Aintzatespen gastronomikoak	Aitorpen-ziurtagiriak.
Tokiko produktua	Konpromiso-aurrekontratuak (VI. kapituluko 1. lerroa). Konpromiso-kontratuak (VI. kapituluko 2. lerroa).
Komunikazio-estrategia	Enpresaren komunikazio globaleko plana. Erabilitako sare sozialen txostena.
Dieta bereziak	Alergenoen liburua eta jatetxearen gutuna.
Efizientzia energetikoa, hondakinak minimizatzea eta oztopo arkitektonikoak ezabatzea	Azalpen-memoria teknikoa eta taula bat, egiaztatzeko inbertsioaren % 10 baino gehiago horretara bideratzen dela.